

EUSKARAREN GAINKO OINARRIZKO DISKURTSOEN LANKETA

EGOD egitasmoa

[Eraitza txostena]

2016

Euskararen Aholku Batzordea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

EUSKARAREN GAINEKO OINARRIZKO DISKURTSOEN LANKETA

o EGOD egitasmoa

[Eraitza txostena]

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>>.

Argitaraldia:	1.a, 2016ko apirila
Ale-kopurua:	600
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
Txostengileak:	Martinez de Luna, Iñaki; Erize, Xabier; Akizu, Beatriz; Etxaniz, Josune; Elizagarate, Amaia.
Internet:	www.euskadi.eus
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastian, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz
Azala eta maketazioa:	Concetta Probanza
Inprimatzailea:	Leitzaran Grafikak
ISBN:	978-84-457-3393-6
Lege gordailua:	VI 43-2016

EUSKARAREN GAINKO OINARRIZKO DISKURTSOEN LANKETA

EGOD egitasmoa

[EMAITZA TXOSTENA]

EGOD egitasmoa bultzatu duen erakundea:

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

EGOD egitasmoaren lantaldea¹:

IÑAKI MARTÍNEZ DE LUNA

(egitasmoaren eta Euskara 21 Batzorde-atalaren zuzendaria)

XABIER ERIZE

(Soziolinguista)

BEATRIZ AKIZU

(Eusko Ikaskuntza)

JOSUNE ETXANIZ

(Eusko Ikaskuntza)

AMAIA ELIZAGARATE

(Prospekzio Soziologikoen Kabinetea)

- Hainbat zereginetan parte hartu dute Jon Aizpuruak eta Ane Crespok (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) eta Belen Urangak (Soziolinguistika Klusterra). Bestalde, eztabaida-taldeen diseinua, landa lana, analisia eta txostena *Kualitate Lantaldeak* egin ditu, eta inkestaren landa lana *Gizaker S.L.* enpresak.

AURKIBIDEA

HITZAURREA: *Diskurtso partekatua helburu*

PATXI BAZTARRIKA GALPARSORO

Hizkuntza Politikarako sailburuordea eta Euskararen Aholku Batzordeko

Euskara 21 Batzorde bereziaren presidentea

9

KRONOLOGIA

15

1. SARRERA

17

1.1. Diskurtsoa

18

1.2. Euskarari buruzko diskurtsoen lanketaren garrantzia

20

1.3. Aurrekariak: gizarte eleanitzetako diskurtsoen azterketa, eta euskararen gaineko diskurtsoei buruzko ikerketen egoera

26

1.4. Helburua eta hipotesia

35

1.5. Metodologia

36

2. AZTERKETAREN EMAITZAK

43

2.1. Egindako bidearen balorazioa

43

2.2. Euskararen inguruko diskurtsoak, gizartean

69

2.3. Aurrera begirako proposamenak

96

3. ONDORIOAK ETA EZTABAIDA

133

3.1. Hipotesiaren balorazioa emaitzen argitara

133

3.2. Emaitzen inplikazioak

137

PARTAIDEAK

143

BIBLIOGRAFIA

149

ERANSKINAK

157



PATXI BAZTARRIKA GALPARSORO
Hizkuntza Politikarako sailburuordea
eta Euskararen Aholku Batzordeko
Euskara 21 Batzorde bereziaren presidentea

Hitzaurrea

DISKURTSO PARTEKATUA HELBURU

Herritarren atxikimendua da euskara biziberritzeko prozesuaren hauspo nagusia. Eta hauspo horren eragileen artean garrantzi betekoa, gizartearen adostasuna, adostasun sozial eta politikoa.

Bide luzea egina du euskal gizarteak euskara biziberritzeko helbururantz aurrera. Urratsez urrats, gorabeherak gorabehera, baina beti aurrera, «euskararen bide luze bezain malkartsuetan» gora. Eta bide horretan barrena ikasi dugu, hiru direla, besteak beste, hizkuntza bat biziberritzeko prozesuaren arrakastaren giltzarri nagusiak: behar besteko lege babes eragingarria, biziberritu nahi den hizkuntzari lege estatus egokia bermatzen diona; oinarri demokratiko irmoak dituzten hizkuntza politika eta plangintza, baliabidez behar beste hornituak; eta, hirugarrenik baina inola ere ez garrantzian azkenik, giltzarrietan giltzarriena: herritarren, gizartearen atxikimendua, biziberritu nahi den hizkuntza hori bihotzetatik ezpainenetara eramatera bultzatzen duen gogo eraginkorra.

Beraz, euskararen garapenak beharrezkoa du lege babes egokia, beharrezkoa du hizkuntza politika eraginkorra; baina benetan erabakigarria herritarren borondatea du, gizarte osoaren inplikazioa. Ikuspegi hori bat dator, gainera, Euskararen Legeak gure Autonomia Erkidegorako ezarri zuen hizkuntzen ofizialtasunari darion elebitasun ereduarekin. Izan ere, gure elebitasun ereduak ezartzen duen araubideak bi hizkuntza ofizialen legezko parekidetasuna xedatzen du eta, parekidetasun sozialera ere iristearren, euskaraz jakiteko eta erabiltzeko eskubidea ez die euskaldunei bakarrik aitortzen, baizik eta herritar guztiei. Bestela esanda, ez du babesten dagoeneko euskaldun, hau da, euskara-hiztun, den komunitatea bakarrik. Aitzitik, euskaraz jakiteko eta erabiltzeko eskubidea herritar guztiei aitortuta, eta helburu

horretara gerturatzeko sustapen politika babestuta, bizikidetza eta kohesio sozia-
laren funtsezko osagai bihurtzen du euskara —euskara eta bere hedapen soziala.

Beraz, aurrera begira ere, gakoa gizartearen inplikazioan egongo da. Guztion in-
plikazioan, alegia. Eta gizartearen inplikazioa baldin badugu gure lehen mailako
premien artean goi-goian, berezko ondorio gisa dator euskararen gaineko oinarri-
ko diskurtsoen inguruko ikerketa eta gogoetaren beharra. Gure gizartea anizkoitza
izanik, ugariak baitira euskararen oraina eta geroari buruzko diskurtsoak.

Horregatik, aspaldiko kezka du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskararen
gaineko diskurtsoarena. Aski dugu gogora ekartzea Euskara 21 prozesu arrakas-
tatsua, 2005-2009 legealdian HPSk sustaturik Euskararen Aholku Batzordearen
eskutik garatu zena. *Euskara 21: XXI. mendearen hasierarako hizkuntza-politikaren
oinarriak. Itun berri bategin* dokumentuan jasotzen da prozesu zabal eta parte
hartzaile haren emaitza, diskurtso berriua, Euskararen Aholku Batzordeak 2009an
ahoz batez onartu zuena eta gero Eusko Legebiltzarrak ere onartu zuena. Hari segi-
da eman ez eta aipaturiko Euskara 21en azken buruko dokumentuan jasotako on-
dorioa betetzera etorri zen, 2012an, ESEP (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana): hori
ere, Euskararen Aholku Batzordeak egina eta onartua ez ezik, Eusko Jaurlaritzak eta
Eusko Legebiltzarrak ere bere egin zutena.

10

Euskararen gaineko diskurtsoen inguruko kezka ari garenez, gogoan hartu beha-
rreko beste konbikzio bat ekarri nahi nuke hizpidera: denon auzia da euskararena,
Euskal Herriko euskaldunena nahiz erdaldunena, ikuspegi politiko eta ideologiko
batzuetakoena bezala besteena, gutxi edo gehiago denok behar dugun neurrian
sendotuko baita euskararen bizi-indarra. Eta hori horrela delako, oker, guztiz oker,
jokatuko genuke euskararen gaineko diskurtsoen arteko nolabaiteko lehia —are
gutxiago etsaigoa— sortzeko helburuz ekingo bagenio diskurtso horien azterke-
tari. Egia da, jakina, aski agerikoa dela diskurtso ezberdinetako hainbat osagarriren
arteko urruntasuna; baina egia da, era berean, herritar batek, pertsona batek, bere
egin ditzakeela, eta egiten dituela, diskurtso ezberdinetako hainbat osagarri. Ez
garenez, alegia, kolore bakar batez bereizteko modukoak, gure uste, iritzi eta kon-
bikzioak ere kolore anizteta dira. Eta euskararen etorkizuna herritarren esku
dagoela esaten dugunean, kolore aniztasun hori oso kontuan izanik esaten dugu.
Gure uste nagusien muin-muinean dugulako hizkuntza politika eraginkor baten
urrezko ezaugarria bere izaera demokratikoa dela eta gizartearen kohesioa sendo-
tzea duela azken helburu.

Kontua ez da, beraz, inolako diskurtsorik ezabatzea, den-denek baitute gure gizartean tokirik eta sostengurik. Aniztasuna ukatzea edo hurkoaren hizkuntza hautua ez errespetatzea dira tokirik ez luketen bakarrak. Kontua da, hori bai, euskararen biziberritzeari buruz ditugun ikuspegi arteko hurbiltasunak eta urruntasunak behar bezala identifikatzea, eta gizartearen gehiengoan eta gutxiengoan irizpideak nondik nora bideratzen diren jakitea. Bestela esanda, zertan eta zein neurritakoak diren usterik zabalduenak, eta zertan eta zein neurritakoak diren hain zabalduak ez direnak.

Asmo hori gogoan, Euskararen Aholku Batzordeak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren proposamenez eta Euskara 21 Batzorde-atalaren bitartez, honako eginkizun hau hartu zuen bere gain legealdi honen hasiera berean: «euskararen gaineko ikuskera gizarte baldintza berrietara egokitzeko asmoz, euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoak aztertu, kontrastatu, berritu eta bateratze bidean jartzeko prozesuari ekitea».

Helburu zehatza ezarri zitzaion, beraz, gaur egun EGOD egitasmo izenez ezagutzen dugun Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen lanketari, eta lanketa horretatik ateratako emaitza da txosten hau, gaur esku artean duzun argitalpenak biltzen duena. Hasiera-hasieratik erabaki genuen ikuspegi teknikoari zegokionez zorrotza eta sendoa izan behar zuela lanketa honek (Iñaki Martínez de Luna izendatu genuen zuzendari), eta, aldi berean, ahalik eta parte hartzaileena gainera. Horregatik erabaki genuen Euskara 21 Batzorde-ataleko dozenaka kideen parte hartzeaz gain, gizartearen beste hainbat eta hainbat ordezkari estrategikoren parte hartzea ahalbidetu behar genuela. Eta hala egin da. Esku artean dugun hau da emaitzen txostena. Euskara 21 Batzorde-atalari aurkeztu zitzaion, 2015eko azaroaren 6an, azken ekarpenetarako aukera emanez, eta Euskararen Aholku Batzordearen Osoko Bilkurak ere ezagutu zuen, azaroaren 11n.

Lanketa zorrotza eta parte hartze zabala izan dituen prozesu horretatik eta, era berean, bi milatik gora herritar galdekatu zituen inkesta baten ondorioetatik abiatuta, argi ikusten dugu posible dela euskararen gaineko diskurtso partekatu bat azalratzea eta eraikitzea, euskararen gainean identifikatu ditugun bost diskurtso nagusiak ezaugarritzen dituzten uste, iritzi eta adierazpenen artean badela intersekzio zabal-zabal bat, hogeita bat esaldiz osatua eta gizartearen parte handi batek bere egiten duena, gutxienez gizartearen bi herenek. Hau da, badugula *zoru komuna* euskarari eta hizkuntza elkarbizitzari begira. Zoru komun hori zaintzea, sendotzea,

berritzea eta zabaltzea dagokigu euskara biziberritzearekin konprometiturik gauden herri erakunde eta gizarte eragile guztioi, guztiona baita, esan denez, euskararen auzia eta, beraz, baita ere egitekoa.

Horregatik, aurreratu nahi dut, pozik aurreratu ere, hausnarketa honek izango duela jarraipenik. Izan ere, 2014ko hondarrean, Euskararen Aholku Batzordeko Euskara 21 Batzorde bereziak onartu zuenean ESEPen (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana) euskararen gainean egiten den diagnostikoa sakontzeko AMIA (ikus ESEP, Euskararen Aholku Batzordea, 2015), aipatu Batzordeak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari eskaera bat egin zion: «eta orain zer?» galderari erantzungo liokeen dokumentu bat prestatzea, datozen urteetan euskara biziberritzea sendotzeko urratu beharko genukeen ibilbidearen oinarri sozial eta politiko nagusiak eta lehentasun nagusiak seinalatuko zituena. Eskaera hari erantzunez, *Eta hemendik aurrera zer?* izeneko dokumentua egin eta 2015eko uztailean jarri genuen Batzorde-ataleko kideen eskuetan —baita ere geroago beste hainbat euskaltzaleren eta gizarte eragile aunitzen eskuetan—, eta hilabeteotan Euskara 21 Batzorde berezian luze eztabai-datu ondoren eta dozenaka lagunek egin dituzten ohar eta iradokizunekin aberastuta, aurki izango dugu dokumentu osotua gizartera plazaratzeko aukera. Seguru gaude gizarte egiazki elebidunagoa —hizkuntza oreka nabarmen handiagokoa, alegia— eraikitzen jarraitzeko langintza partekaturako baliagarria izango dela.

12

Hitzaurre hau amaitzeko, agerian jarri nahi dut, eta biziki eskertu, EGOD egitasmo hau gauzatzeko lan egin dutenen ahalegina. Hala, lehen-lehenik aipatu nahi dut, nola ez, Iñaki Martínez de Luna, egitasmo honen zuzendaria, eta harekin gertuko lankidetzan aritu den Xabier Erize —soziolinguista arituak eta adituak bata nahiz bestea—, Beatriz Akizu eta Josune Etxaniz —biak ere Eusko Ikaskuntzako kideak—, eta Amaia Elizagarate, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteko langilea. Aipatu nahi ditut, era berean, EGOD prozesuaren jarraipena gertutik egin duen Jorge Gimenez, HPSko Koordinazio eta Ikerketako zuzendaria, eta EGOD egitasmoaren zenbait eginkizunetan lanera bildu diren Jon Aizpurua eta Ane Crespo, biak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako zerbitzuburuak, eta Belen Uranga, Soziolinguistika Klusterreko kidea. Eta aitortu nahi dut, halaber, Kualitate Lantaldea eta Gizaker, SL enpresek alor ezberdinetan eginiko lana.

Azkenerako utzi ditut aurren-aurreneko esker on betea zor diegunak, EGOD egitasmoaren benetako «protagonista eta langileak» izan direnak: egitasmo hau garatzeko prozesuan, modu batean edo bestean, formatu batean edo bestean, parte

hartu duten pertsona guztiak, hain zuzen ere. Ehun eta berrogeita hamarretik gorantz izan dira parte hartu dutenak, edo adituentzako berariaz antolatu genuen Gizarte Foroaren bi jardunaldietan parte hartuz edo delphi teknikaren bidezko elkarrizketak eginez, edo azterketa kualitatiboa egiteko gizartearen lagin batekin osaturiko zazpi eztabaida taldeetan parte hartuz. Eskerrak eman behar dizkiegu, baita ere, inkestari erantzun dioten 2.160 herritarrei. Eta, nola ez, Euskararen Aholku Batzordeko Euskara 21 Batzorde bereziko kideei. Aitortua eta eskertua gera bedi guzti-guztien ekarria.

KRONOLOGIA

1. 2013ko ekainaren 28ko bilkuran, Euskararen Aholku Batzordeak onartu zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) proposaturiko 2013-2014 aldirako lan-programa. Bertako eginkizunetarikoa bat honakoa zen: «euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoak aztertu, kontrastatu, berri eta bateratze bidean jartzea». Eginkizun hori garatzearen ardura Euskara 21 Batzorde-atalaren esku jarri zen, eta HPSk Iñaki Martínez de Luna, aldi berean aipatu Batzordeko zuzendaria, izendatu zuen EGOD egitasmoaren zuzendari.
2. 2014ko hasieran, prozesua aurrera eramateko Eusko Ikaskuntzaren lankidetzaren eta parte hartze zuzena ahalbidetu zuen HPSk, horretarako berariaz formalizaturiko kontratuaren bidez.
3. Horrela osatu zen EGOD egitasmoaren lantaldea, prozesuari dagozkion ikerketak diseinatu eta bideratzearen eta txostenak idaztearen ardura bere gain hartu duena: Iñaki Martínez de Luna (egitasmoaren eta Euskara 21 Batzorde-atalaren zuzendaria); Xabier Erize (soziolinguista); Beatriz Akizu (Eusko Ikaskuntza); Josune Etxaniz (Eusko Ikaskuntza) eta Amaia Elizagarate (Prospekzio Soziologikoen Kabinetea). Lantaldearen hainbat zereginetan parte hartu dute edo laguntza eman dute ere Jon Aizpuruak (HPS), Ane Crespok (HPS) eta Belen Urangak (Soziolinguistika Klusterra). Bestalde, eztabaida-taldeak diseinatu, landa lana, analisia eta txostena Kualitate Lantaldeak egin ditu, eta inkestaren landa lana Gizaker S.L. enpresak.
4. 2014ko apirilaren 8an eta azaroaren 28an izandako bileretan, Euskara 21 Batzorde-atalak prozesuaren jarraipena egin zuen.
5. 2015eko uztailaren 17an, Hizkuntza Politikarako sailburuordea Patxi Baztarririk eta Euskara 21 batzorde-ataleko eta EGOD egitasmoaren zuzendari Iñaki

Martinez de Lunak Donostian aurkeztu zuten EGOD egitasmoaren emaitzen txostena, Euskara 21 Batzorde-ataleko kideen eta EGODen dinamiketan parte hartu zuten adituen aurrean.

6. Aipatu aurkezpenean, Euskara 21 Batzorde-ataleko kideei eta EGODen prozesuan parte hartu zuten adituei ekarpenak egiteko aukera eskaini zien Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, dagokion epea irekitzearekin batera.
7. Ekarpenak jaso ondoren, 2015eko azaroaren 6an Euskara 21 Batzorde-atalak egindako bileran emaitzen azken txostena aurkeztu zen.
8. 2015eko azaroaren 11n, berriz, Euskararen Aholku Batzordearen Osoko Bilkuran aurkeztu zen emaitza txostena.
9. 2016. urtean zehar dokumentua gizarteratzeko eta zabaltzeko konpromisoa hartu zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

1

SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren 2012-2016 legealdirako lan-programako konpromiso eta eginkizunetariko bat da hain zuzen ere euskal gizartean euskarari buruz dauden diskurtsoen lanketa egitea. Lanketa hori, HPSk Euskararen Aholku Batzordeari 2013ko ekainaren 28ko bilkuran aurkezturiko dokumentuak hitzez hitz dioenez, «gure hizkuntza politikaren oinarrian dagoen Euskara 21 gogoeta prozesuarekin zuzenean lotzen da, euskararen inguruko diskurtsoak bateratze bidean jartzeko ahaleginak, gogoeta sakonaz gain, adostasun sozial eta politiko zabal baten premia onartzea eta mamitzea eskatzen baitu». Euskararen Aholku Batzordearen aipatu Batzar horretan onartu zen, HPSk hala proposatuta, Euskararen Aholku Batzordearen 2013-2014 aldirako lan-programa, bertako eginkizunetariko bat hain zuzen ere honako hau izanez: «euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoak aztertu, kontrastatu, berritu eta bateratze bidean jartzea». Eginkizun hori garatzearen ardura Euskara 21 Batzorde-atalaren esku jarri zen.

17

Eginkizun horri ikerketa enpiriko berri baten bidez eman zitzaion forma: «Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoaren lanketa» (EGOD) egitasmoa, 2014. urtean garatu zena. Egitasmo horren zuzendaria Euskara 21 Batzorde-atalaren zuzendaria bera da, Iñaki Martínez de Luna. Egitasmoaren zuzendariak eta HPSk erabaki zuten diskurtsoen kontrasterako dinamika hasiera batean bederen, lehen fase moduan, Euskara 21 batzorde-ataletik haratago zabaltzea, dokumentu honetan aurrerago azaltzen diren teknikez baliatuz askotariko ikuspuntuei leku eginez. Prozesu hori aurrera eramateko beharrezkoak diren diseinu, askotariko antolaketa eta koordinazio lan ugarietarako Eusko Ikaskuntzaren lankidetzeta eta parte hartze zuzena ahalbidetu zuen HPSk, horretarako berariaz formalizaturiko kontratu bidez, eta lehenengo orrialdean ageri den lantaldea izan da prozesuaren orain artekoa landu duena, Iñaki Martínez de Lunaren zuzendaritzapean eta HPSrekin koordinatuta.

Zenbait datu bilketa burutu dira asmo zehatz batekin: gizartean dauden euskararen inguruko diskurtso ezberdinak eta hizkuntza horri aitorturiko askotariko babilioak nolakoak diren aztertzeko; baita halakoek, EAEko herritarren artean dituzten hedapen eta onarpen maila edo pisu soziala ezagutzeko ere. Informazio kualitatiboaren (Gizarte Foroa, Delphi teknika eta eztabaida-taldeen) ardurua orokorra Eusko Ikaskuntzarena izan da; zehatzago, herritarren lagin batekin burutu diren eztabaida-taldeak Kualitate Lantaldearen gain utzi dira. Aurreko lanketen osagai den inkesta kuantitatiboa diseinatu, gauzatu eta lantzeaz Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea arduratu da, eta horren informazio bilketa Gizaker enpresak egin du.²

EGOD egitasmoaren berezitasuna, euskararen egoerari buruz egin diren gainerako lanekin konparatuta, ikergaia bera da: diskurtsoak aztertu dira, ez ohikoagoak diren beste alderdi objektibo eta subjektibo batzuk. Txosten honek EGOD egitasmoaren fruitu nagusiak biltzen ditu.

1.1. Diskurtsoa

«Diskurtsoa» kontzeptua adiera zabal batean erabiliko dugu lan honetan, Norman Fairclough-i segituz (2003, 124. or.): mundua irudikatzeko eta baloratzeko modu bat da. Halaber, Teun A. van Dijk dioen moduan, diskurtsoaren kontzeptuak hiru dimentsio nagusi biltzen ditu: (a) hitzaren erabilera: testua bera; (b) uste, iritzi edo ideologiaren komunikazioa (kognizio soziala); eta (c) interakzio soziala (van Dijk, 1997/2000b, 23. or.). Mundua modu desberdinetan irudika daiteke eta, noski, diskurtso desberdinak gerta daitezke: diskurtso neoliberala, globalizazioaren aurkako diskurtsoa, diskurtso arrazista, diskurtso feminista, etab.

2. Lan hau hein handi batean EAEra mugatu den arren, euskararen gaia EAetik haratagoko lurraldeak ere hartzen dituenez, batez ere delphi eta foroaren ataletan, beste lurraldeetako pertsonak ere parte hartu dute: Nafarroakoak eta Ipar Euskal Herrikoak.

Horrekin batera, diskurtsoek zenbait ezaugarri esanguratsu dituztela gogoratu behar da: partekatuak izaten dira talde sozialetan; egonkorrak eta aldakorrek dira aldi berean; maiz beste diskurtsoen konbinazioak izaten dira; jendeak diskurtso bat baino gehiago eduki edo nahas ditzake aldi berean, edo diskurtso desberdinetako zatiak erabili; diskurtsoek adierazpen trinko eta egituratuak izaten dituzte batzuetan (intelektual edo politiko batek egiten dituenak, adibidez; ikus lan honen «Euskararen gaineko diskurtso egituratuak» atala), eta beste batzuetan adierazpen solte eta itxuraz egituratu gabeetan adierazten dira (herritarren diskurtso gehienak eguneroko bizitzan, adibidez), etab. (Fairclough, 2003, 124-126. or.; van Dijk, 1998, 8. or.).

Mundua irudikatzeko eta baloratzeko moduak izendatzeko, diskurtsoaz gain, bada dira gizarte zientzien literaturan erabili ohi diren beste kontzeptu gehiago ere: horietako bat *markoa*, edo *framing*, da, «errealitatearen hautematea eta irudikapena gidatzen dituzten egitura kognitiboak» (Martínez de Luna, 2013a, 24. or.); *framing* kontzeptua zientzia kognitiboetan sortu zen eta bere adierazle nagusien artean Charles J. Fillmore eta George Lakoff autoreak daude (ikus, adibidez, Fillmore 1976 eta 2006, edo Lakoff 2004/2007 eta 2010). Beste kontzeptu bat, *iritzia*, edo *gizarte-iritzia*, dugu (Martínez de Luna 2013b); eta beste bat, *ideologia linguistikoa*: «Ideologia linguistikoa hizkuntza baloratzeko moduak dira, hizkuntza edo barietate bat beste bat baino hobea edo okerragoa dela esanez» (Bell, 2014, 286. or.). Badaude, baita ere, alderdi subjektiboak, oro har, aztertzen dituzten *sinesmen sozialak*, *buru-ereduak* [*mental models*], *motiboak*, *jarrerak* edo *mentalitateak* bezalako kontzeptuak. Kontzeptu horiek elkarren gertukoak izaten dira maiz, nahiz eta, jatorrian, horietako bakoitzak esanahi tekniko berezia izan. Oro har, asko landu eta eztabaidatu da diskurtsoen azterketa nazioarteko zientzia sozialen literaturan, baina, lan honen zeregina kontuan hartuta, ez gara horrelako eztabaidetan sartuko.

Lan honetan «euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoak» esaten denean, euskara, bere egoera eta hiztunak irudikatzeko eta baloratzeko moduak esan nahi da azken finean, eta horren guztiaren ondorio sozialak.

Diskurtso bat munduko gai bati buruzko enuntziatu multzo bat bezala har daiteke, Norman Fairclough-en (2003, 124. or.) arabera. Izaera hau oso garrantzitsua suertatzen zaigu lan honetarako, lanaren zeregina, azken finean, euskarari buruzko oinarrizko diskurtsoak eta beraiek osatzen dituzten enuntziatuak aztertzea baita, aurrerago ikusiko denez.

Diskurtsoak eta gizartea lotuta daude eta elkarri eragiten diote: diskurtsoen arteko harremanak jendeen arteko harremanen parte dira, eta diskurtsoak pertsonen besteekiko harremanetan erabiltzen dituzten baliabideak dira elkarlanean aritzeko, norberaren ikuspegiak besteei harrarazteko, elkarren artean lehiatzeko edo besteak menderatzeko (Fairclough, 2003, 124. or.). Kontua, azken finean, diskurtsoen eraginkortasun soziala da, Pierre Bourdieu-k diskurtsoaren «eraginkortasun performatiboa» deitu zuena: «conseguir que se reconozca a su palabra el poder (...) de imponer una nueva visión y una nueva división del mundo social» (Bourdieu, 1982/1985, 90. or.). Horregatik da hain garrantzitsua diskurtsoen azterketa: diskurtsoen sortzaileek, hitza erabiliz, munduaren kongnizio edo ikuskera jakin batzuk komunikatu eta haien nagusitasuna bilatzen dutelako interakzio sozialean; alegia, errealitate soziala sortzea zein aldaraztea bilatzen dutelako (Martínez de Luna, 2013a, 17. or.).

Lan honen zereginerako, garrantzitsua da ulertzea ideologien edo markoen edo diskurtsoen zeregina ez dela errealitatea egiazki islatzea, baizik eta errealitateari buruzko sinesmenak gidatzea: «El criterio de validez de las ideologías no es la verdad sino la eficacia social (...). Sean verdaderas o falsas, las ideologías controlan lo que los propios grupos usualmente consideran que son creencias verdaderas» (van Dijk, 1997/2000a, 55. or.). Eta errealitatea eta sinesmenak ez badira bat etortzen, sinesmenak gailenduko dira, ez errealitatea, George Lakoff-ek (2004/2007, 39. eta 63. or.) nabarmendu zuenez: «La gente piensa mediante marcos. (...) La verdad, para ser aceptada, tiene que encajar en los marcos de la gente. Si los hechos no encajan en un determinado marco, el marco se mantiene y los hechos rebotan», «(...) se ignorarán los hechos y el marco seguirá funcionando». Modu kolokialean, gauza bera adierazi zuen Julio Llamazares-ek Einstein-en esaldi bat parafraseatuz: «Es más fácil desintegrar un átomo que una idea preconcebida» (Rodríguez Marcos, 2015, 3. or.). Horrek, diskurtsoek duten garrantziaren neurria erakusten du.

1.2. Euskarari buruzko diskurtsoen lanketaren garrantzia

Azken hamarkadetan mundua zeharo aldatu duten dinamika demografikoek, bilakaera teknologikoek, gorabehera ekonomikoek, aldaketa kulturelek, migrazioek eta abarrek baldintza berriak ezarri dizkiote Euskal Herriko hizkuntza-egoerari.

Garai batean egoera ulertzeko eta interpretatzeko egokia izan zitekeena, gaur egun ez da orduan bezain egokia, ezta urrik eman ere. Aldaketa horien artean bada bat bereziki kontuan hartu beharrekoa: mundu osoan hedapen handia lortu duen aniztasunaren balioa; alegia, kultura- eta hizkuntza-aniztasuna.

Horregatik guztiagatik, euskararen egoera eta, oro har, bertako hizkuntza-egoera, paradigma gero eta zabalagoetatik irakurri eta ulertu behar ditugu. Horrek ez du esan nahi, inolaz ere, orain arteko planteamenduak baztertu behar direnik, beste batzuekin ordezkatzeko. Baizik eta ohiko ikuspuntuak haize berrietara egokitu eta munduan zabaldu diren beste planteamendu berri batzuekin kontrastean osatzeko ahaleginak egin behar direla.

Izan ere, euskararen egoera bere baitan biltzen duen errealitatea hainbeste aldatu izanak joko-zelai gaurkotua eskatzen du *Euskara Sustatzeko Ekintza Planak* (ESEP) ezartzen duen helburu nagusirantz gero eta gehiago hurbildu ahal izateko. Aipatutako helburua hau da:

(...) hizkuntza politikako neurriak erabaki eta aplikatuz euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eta bermeak eskaini ahal izateko eta bostere publikoek babestu beharreko herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuak izan daitezen eguneroko jardunean. (Euskararen Aholku Batzordea, 2012, 20. or.)

1.2.1. ESTRATEGIEN ABIAPUNTUA: HERRITARREN BALIO LINGUISTIKOAK IKERTZEA

Kausa sozialak sustatze lanetan, Philip Kotler-ek gomendatu zuenez, lehendabiziko gauza da jakitea zer den baliotsua eta garrantzitsua jendearentzat: kontua ez da erakunde sustatzailea jendeari esatea zer izan beharko litzatekeen garrantzitsua beraientzat, baizik eta (a) egiatan jakitea zer den garrantzitsua jendearentzat eta (b) horretaz jardutea:

[In the non-profit organizations] you have to start out with knowing what the customers really consider value, what is important, before you communicate, rather than telling the things you believe should be important to the customer. (Philip Kotler, 1990, 63. or.)

Berdintsu dio Peter Drucker-ek enpresa munduan: estrategien abiapuntua ikertzea da, ikertzea eta ikertzea. Bezeroa nor den jakiteko, zer baloratzen duen, nola erosten duen, hori guztia jakiteko eta estrategiak prestatzeko ikerketa antolatutak egin behar dira:

Strategies begin with research and research and more research. They require organized attempts to find out who the customer is, what is of value to the customer, how the customer buys. (Peter Drucker, 1990, 75. or.)

Eta antzeko planteamenduak agertzen dira *framing*aren literaturan ere mugimendu sozialen arrakastaz hitz egiteko. Mugimendu sozialaren eta gizarte orokorren *framing* edo markoen (edo diskurtsoen) arteko *lerrokatzea* eta *erresonantzia* gertatu behar dira: kausa edo mugimendu sozial batek arrakasta lortzen du mugimenduak igortzen duen markoa (balioak, ideiak, sinesmenak, ekintzak) herritarren markoekin (interesak, balioak, sinesmenak) norabide berean lerrokatzen denean eta bien artean erresonantzia berri bat sortzen denean (Snow eta Benford, 1988, 198-199. or.); bestela ez du arrakastarik lortzen.

22 Euskararen kasura etorrira, hizkuntza sustatzeko estrategia baten muinean herritarren balio linguistikoei buruzko galderak daude: zer baloratzen dute herritarrek hizkuntza kontuetan? zer bilatzen dute herritarrek euskararen aldeko urratsak egitea edo ez egitea aukeratzen dutenean? (Erize, 2013a, 120. or.) Hori argitze aldera egin da ikerlan hau.

Hori horrela, euskararen gaineko ikuskera eta interpretazioa gizarte baldintza berrietara egokituz, bilatuko da euskararekiko interesa eta atxikimendua euskal gizatalde gehienetara hedatzea. Euskarari buruzko balio-sorta erakargarria osatu beharko litzateke, motibazio mota desberdinez osatua, eta baita zenbait balio filosofikoz ere. Era horretan baino ez da lortuko bertakoak zein guregana iritsi berriak euskarara biltzea.

Esan gabe doa, ulertze-molde berri horiek harrera zabala —ahalik eta zabalena— erdietsiko badute, lanketa horretan gizartearen ahots ezberdinak adi-adi entzun eta aintzat hartzea dela ezinbesteko baldintza. Hori da, hain zuzen ere, Euskara 21 Batzorde-atalak eginkizun hau bete ahal izateko bere egiten duen estrategia. Azken batean, den-denok gara beharrezkoak euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoak aztertu, kontrastatu, berritu eta bateratze bidean jartzea helburu duen prozesuan.

Izan ere, *Euskara 21 – Itun berri baterantz* (Euskararen Aholku Batzordea, 2009) dokumentuak argi eta garbi zehazten zuen eginkizunaren abiapuntua:

Ez baitago «euskararen auzia», euskal herritarren hizkuntzen arteko bizikidetzaren auzia baizik. Ez dezala inork, beraz, langintza horretatik bere burua baztertu. Gizarte eleaniztun baten barnean euskara biziberritzea gizarte osoaren helburu kolektiboa da, eta, beraz, herritar guztiona, zeinahi delarik ere norberaren ideologia edo jarrera politikoa. Hortaz, ikuspegi honetatik, helburu nazionala da. (Euskararen Aholku Batzordea, 2009, 57-58. or.)

Euskara 21 itunak irekitako adostasun eta berrikuntza bideak ildo horretan sakontzen jarraitzea eskatzen du, eta horretara behartzen gaitu.

1.2.2. HAZKUNDERAKO MUGAK: JARRERAK, GAITASUNA ETA ERABILERA


Arrazoi potolo asko aurki genezake euskararen egungo egoera zein azken urteotako bilakaera azaltzeko; zientifikoak zein ideologikoak. Zientziaren babespean bide eginez ere, soziolinguistikaren bide-zidor ugaritan galtzeraino iritsi gitezke. Ez da hori lerro hauetako asmoa, baizik eta funtsa xume bezain sendoa eskaintzea ondoren etorriko den gogoeta eta eztabaida mamitsurako.

Xabier Erizek landutako grafikoa ikusten denez (1. grafikoa), jarrerak sabai funtzioa egiten dute gaitasuna eta horren menpe dagoen erabilera haz daitezten. Baliteke beste testuinguru historikoetan bestelakoa izatea, baina euskararen egungo egoeran planteamendu hori balekoa delakoan gaude. Alegia, interes edo aldeko jarrerarik izan ezean ikasteko (edo hobeto ikasteko) ahaleginik egitea zaila baino zailagoa da. Horrek badu berez datorren segida logikoa: gaitasunik ezean erabilerarik ez.

1.2.3. ERABILERAREN BILAKAERA

Ikerlan soziolinguistikoak gurean sistematikoki errepikatzen hasi zirenetik pasa den denbora-tartea bada oinarri nahikoa hizkuntza baten egoera zein bilakaeraren inguruko balantzea egin ahal izateko.

1. GRAFIKOA. Jarrera - Gaitasuna - Erabilera, EAE (1991-2011)



24

Elaborazioa: Xabier Erize.

Datuen iturria: Eustat, Euskal Herriko Hizkuntza-Adierazleen Sistema eta Inkesta Soziolinguistikoak.


Bilakaera-datuek erakusten duten aldaketa-joera esanguratsuen euskararen erabilerak eremu formaletan egin duen aurrerakada dugu. Horrela, *V. Inkesta Soziolinguistikoak* (ISL) erakusten duenez, EAEko datuen arabera, igo egin da lankideekiko elkarrizketan euskarak duen tokia: %15,4koa zen 1991n eta %24,6koa 2011n. Eta igo egin da, halaber, bestelako eremu formaletan ere: udaletxean (%13,9tik %24,7ra), banketxean (%14,4tik %21,2ra) eta osasun zerbitzutan (%8,3tik %19,8ra). (Eusko Jaurlaritza, 2013)

Bestalde, datuek diotenez, euskararen erabilera, igo egin da lagun artean ere: %16,1koa zen 1991. urtean eta %21,4koa 2011n. Eta, *VI. Kale Neurketa* ikerlanari erreparatuz, berdin gertatu da kalean ere: 1989. urtean %11,5koa zen eta 2011n %16,1koa. (Iurrebaso, 2012)

Azkenik, ISLko datuen arabera, euskararen erabilera ez da igo Euskal Herriko etxeetan: %17,3koa zen 1991. urtean eta %17,2koa 20 urte geroago. (Eusko Jaurlaritza, 2013)

Dena den, azken 20 urteetako bilakaera hamar urteetako bi epealditan banatuta, ikusten da euskararen erabileraren hazkundera, kalean eta eremu formalean aurreko hamar urteetan (1991-2001) baino dezente motelagoa izan dela azken hamar urteetan (2001-2011). Aldiz, hazkundera handiagoa izan da lankideen artean eta ohiko lagunekin. Azkenik, etxeko erabileren hazkundera 1991-2001 bitartean negatiboa izan zen, eta hortik aurrerakoa hutsala.

2. GRAFIKOA. Erabileraren bilakaera erlatiboa, EAE (1991-2011)



* ISL. Kasu hauetan, euskaraz erdaraz beste edo gehiago aritzen direla hartu dugu aintzat. Eremu formaleko datua hiru eremuen batez bestekoa da (banketxea, osasun zentroa eta udal zerbitzuak).

** Kale neurketa. Lehen tarte 1989-2001 da.

Iturriak: Eusko Jaurlaritz, 2013; Iurrebaso, 2012.

Datu horien gainean irakurketa oso ezberdinak egin daitezke, norberak euskararekiko dituen ikuspegi eta interes moten arabera: erabileraren aurrerakada itzeletik, batzuentzat, frustrazio gisakoa den atzerakadaraino, beste batzuentzat, bi muturren artean *ez erre, ez ixo* moduko balorazioak ere lekua izanik.

Hala ere, ados jar gaitzke onartzeko euskara suspertzeko ahaleginak argi-ilunak dituztela, batetik, eta beste hainbat ahalegin berri egin beharko dela oraindik hizkuntza horren biziraupen duina ziurtatzeko, bestetik. Erizek dioena gogoraraziz, erabilera areagotu dadin, lehendabizi hizkuntza horren motibazioaren langa eta, ondoren, gaitasunarena gorantz eramatea beharrezkoa da eta, horrela, erabilera-aren sabaia altzarazi. Horregatik da garrantzitsua, hain zuzen ere, diseinatu beharreko hizkuntza-estrategiaren eta gutxieneko neurriren inguruan gizartearen gehien-go zabalaren asmoa ongi ezagutzea; baita bere babes bilatzea ere.

1.3. Aurrekariak: gizarte eleanitzetako diskurtsoen azterketa, eta euskararen gaineko diskurtsoei buruzko ikerketen egoera

26

Zorionez badira gu gabiltzan bidetik tarte handia egina dutenak, herri-erakundee-
tan zein alor intelektualean, edota konpromiso politikotik zein sozialetik. Era be-
rean, maila juridikoa jorratua da eta oinarri juridiko bat urteetan finkatuz joan da,
bai gure ingurune hurbilean, baita Estatuan zein European ere. Halako aurrekariak
bi multzotan landu ditugu:

- Munduko gizarte eleanitzetako diskurtsoen azterketa.
- Euskararen gaineko diskurtsoei buruzko ikerketen egoera.

1.3.1. MUNDUKO GIZARTE ELEANITZETAKO DISKURTSOEN AZTERKETA

Allan Bell irakasle ezagunak (*Journal of Sociolinguistics* aldizkariaren editorea, bes-
teak beste) esan duenez (Bell, 2014, 7. or.), diskurtso linguistikoen azterketak ze-
rikusia du eleanitzasunaren soziolinguistikarekin, hizkuntza praktika sozial bezala
hartzearekin, alde makroak eta mikroak batera aztertzearekin, eta hizkuntza, gi-
zartea eta politika elkarlotzen dituen ikuspegiarekin. Asko aztertu da gai horien
inguruan munduan zehar azkeneko hamarkadetan, eta mota horretako ikerketa

ugari hizkuntza ahulak mantentzeko eta biziberritzeko nahiagatik egin dira (Bell, 2014, 57-58. or.). Testuinguru horretan kokatzen da Euskararen Gaineko Oinarriko Diskurtsoen ikerketa hau baita ere.

Gizarte eleaniztetan, diskurtso linguistikoak eleaniztasunaren ikuspegi ezkor eta positiboaren artean mugitzen dira (Spolsky, 2011). Bernard Spolsky-ren arabera, ikuspegi ezkorren adibide bat Estatu Batuetako «English only» ideologia dugu, ingelesaren elebakartasuna gainerako ondare-hizkuntzen kalterako bilatzen duena (Spolsky, 2011, 4. or.) (ikus, halaber, Crawford, 2000). Beste aldean, eleaniztasunaren ikuspegi positiboa dugu. Adibide moduan, Spolsky-k Europako eredia aipatzen du, non, hizkuntza ofizialekin batera, bertako gutxiengo linguistikoaren babesa eta kanpoko hizkuntzak ikastea bateratzen omen den. Horren emaitza euskara, katalana, galesa, bretoiera edo frisiera bezalako hizkuntzen hobekuntza genuke: «The improving status of Basque, Catalan, Welsh, Breton, Friesian, and some other languages is an important result of these efforts» (Spolsky, 2011, 4. or.). Dena den, Colin H. Williams-ek, Europako hizkuntzen lorpenak onartzen dituen arren, aipatzen du ere prozesu positibo hau ez dela bilakaera saihestezin baten emaitza, baizik eta barne kontraesan eta gatazkez betea dagoela (Williams, 2013, ix. or.).

Gizarte eleaniztetako diskurtsoen azterketa enpirikoen erreferentzia handirik ez dugu aurkitu. Hau da, zer nolako diskurtsoak dituzten herritarrek euren gizarteko hizkuntzei buruz, zein diren herritarren behar eta nahi linguistikoak, zein neurritan babesten dituzten herritarrek diskurtso horiek eta zein diren horren guztiaren ondorio soziolinguistikoak, horrelako ikerlanik ez dugu aurkitu. Hizkuntzen alderdi subjektiboan gai jakin batzuen (jarrerak, iritziak, bizitasun etnolinguistiko subjektiboa...) azterketak egon badaude, noski, eta horien artean Euskal Herriko, Quebecoko, Galeseko edota Kataluniako inkesta eta azterketa soziolinguistikoak nabarmentzen dira, nahiz eta alderdi subjektiboak ez izan lan horien ikergai nagusia.

Eleaniztasunari buruzko diskurtsoen azterketa maila teorikoan egin da gehienbat, ez ikerketa enpirikoen mailan. «Nola justifikatu hizkuntza txiki edo ahulak babesteko eta biziberritzeko ahaleginak?», galderari erantzun nahian asko idatzi eta eztabaidatu da soziolinguistikan eta gizarte zientzietan, eta, azken finean, zeregin horretarako diskurtso eta ideologia linguistikoak aztertu behar izan dituzte. Horretaz luzatu gabe, ez baita hori lan honen zeregina, hiru adibide ezagun eta esanguratsu aipa daitezke: Pierre Bourdieu (1982/1985), Joshua Fishman (1991, 2001) eta José María Sánchez Carrión «Txepetx» (1987).

1.3.2. HIZKUNTZEKIKO POSITIBOA DEN TEORIA DEMOKRATIKOA (VS. HIZKUNTZEKIKO NEGATIBOA)

Hizkuntzei buruzko diskurtsoetan, galdera bat nabarmentzen ari da gaur egun: nola uztartu hizkuntzen aniztasunaren defentsa eta gizarte demokratikoen teoria? Euskarari buruzko ideien eztabaidetan, kritikoek euskararen bultzatzaileei argudio «primordialistak» edo «esentzialistak» erabiltzea leporatzen diete, eta euskararen aldekoek argudio-bide «konstruktibista» edota demokratikoetara jotzen dute, euskararen eta Euskal Herriaren arteko harreman begi-bistakoak ukatu gabe. Horren guztiaren atzean, hizkuntzekiko positiboa den ikuspegi demokratiko bat lantzearen beharra legoke.

Egia da kezka hori lehenagotik datorrela literaturan. Adibidez, Joshua Fishmanek teoria demokratikoan kokatzen ditu hizkuntzak biziberritzeko ahaleginak: «RLS is firmly grounded in democratic processes» (2001, 463. or.), eta ahalegin horiek bat datoz gizarte demokratiko modernoan oinarri nagusiekin (2001, 452. or.). Baina gehitzen du «gehiengoaren erregela» hutsa ez dela aski gizarte justu bat eraikitzeko (2001, 463. or.). Halaber, hizkuntza nagusiaren monismoa hizkuntza menderatua- ren monismoaz ordezkatu nahi izatea, aniztasunaren eta bizikidetzaren baketsuaren hil-kanpaiak jotzea litzateke: «This spells the death knell for pluralism and peaceful coexistence» (Fishman, 2001, 475. or.).

28

Europar Batasunean ere (Council of Europe, 1992 eta d. g.; Instrumento de ratificación de la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias, 2001) gaia ez da berri-berria; eta, baita ere, asko landu zen, noski, Quebec, Katalunia edo Euskadi moduko hizkuntzen egoerak legez modu positiboan arautzerakoan, prozedura demokratikoak eta teknika juridikoak uztartuta.

Azkenaldiko literaturan formulazio edo ikuspegi berriak agertzen ari dira. Ronald Schmidt-ek (2014) teoria politiko demokratikoaren eta hizkuntza-aniztasunaren arteko harremanak aztertu zituen, eta bere ondorio nagusia da ahalegin bat egin behar dela teoria demokratiko parte-hartzailea eta hizkuntza-aniztasuna uztartzeko, eta ahalegin horrek merezi duela. Colin H. Williams-ek (2007, 2009 eta 2013) kezka nagusi berdina du: hizkuntza gutxiengoen babesa eta sustapena gizarte demokratikoetan. John E. Petrovic-ek (2013 eta 2014), hizkuntza-aniztasunaren defentsan, hizkuntzekiko positiboa den liberalismoa (*language-positive liberalism*) eta hizkuntzekiko negatiboa dena bereizten ditu, ikuspegi positiboa goraipatuz eta negatiboa kritikatu.

Argigarriak dira, halaber, *Language Policy and Political Theory. Building Bridges, Assessing Breaches* (Ricento, Peled eta Ives, ed. 2015) eta *The Cambridge Handbook of Language Policy* (Spolsky, ed. 2012) liburuak.

1.3.3. EUSKARAREN GAINKO DISKURTSOEI BURUZKO IKERKETEN EGOERA

Erreferentziako lan nagusiak bi dira, eta biak Iñaki Martínez de Lunak (2013a eta 2013b) eginak dira:

- «Euskarak duen *Framing* Berri baten premia asetzeko proposamena» (Martínez de Luna, 2013a; 2012. urtean idatzitako artikulua).
- *Euskara EAEn: gaitasuna, erabilera eta iritzia* (Martínez de Luna, 2013b).

«Euskarak duen *Framing* Berri baten premia asetzeko proposamena» (2013a) lanean, alde guztietako diskurtsoen ikuspegi orokorra bilduz, geroztik ezaguna egin den *framing aldarrikatzailea* eta *framing uzkurra* (edo mesfidatia) sailkapena aurkeztu zuen. Eta bi *framing* edo «sektore kontrajarri» horiekiko kontrastean gizar-te zabalaren egoera ez-polarizatua nabarmendu zuen Martínez de Lunak (2013a, 19-20. or.): «Egia da euskal iritzi publikoaren beste zati handi bat bi *framing* mota horien artean kokatzen dela; gizar-tearen multzo zabala —EAEn zabalena dena, se-guru asko—, zeinak pasiboki bada ere ... euskara babesten duen».

Halaber, esanguratsua da nola eztabaidatu zuten ondoko lau autoreek Martínez de Lunaren *framing* berriari buruzko proposamena: Maria Jose Azurmendi (2013), Patxi Baztarrika (2013), Paul Bilbao (2013) eta Xabier Erize (2013b).

Euskara EAEn: gaitasuna, erabilera eta iritzia (Martínez de Luna, 2013b) lanean, Iñaki Martínez de Lunak (2013b, 55-56. or.) euskarari buruzko iritzi joera nagusien beste sailkapen bat aurkeztu zuen:

- Euskaltzaletasuna.
- Mesfidantza.
- Onarpen pasiboa.
- Abantaila soziala.

Bestalde, Bernardo Atxaga idazlearen sailkapena dugu: euskaldun patetikoak, euskaldun sinpatikoak eta antipatikoak, modu ironiko baina mamitsuan eginda.

- Patetikoak: «Patetikoak gara euskaraz bizi garen eta 200.000 inguru omen garen herritar edo hiritar euskaldunak. ... baldintza xehe bat betetzen zutenei eman nien izen hau, eta hori zen egunero ordubete euskaraz hitz egitea. ... [euskararen] arazo honekin kezkatzen garena» (Atxagaren hitzak, hemendik hartuta: Aizpurua, 2002, 132-133. or.).
- Sinpatikoak: euskarekiko atxikimendua adierazten badute ere, ez dute ahaleginik egiten euskaraz bizitzeko.
- Antipatikoak: «Euskaldunekin antipatikoak direnak, euren txokoan bizi dira; eta euskalduntasunaren kontra hitz egiten dutenean, arrazoa dutela ematen du. Belarrietatik kea ateratzen zaie horiei» (Atxagaren hitzak, hemendik hartuta: Eizagirre eta Eizagirre, 2001, 2. or.).

Hurbileko kontzeptuetan, euskara sustatzeari buruzko jarrerren sailkapena dugu: «oso aldekoa», «aldekoa», «ez alde ez aurka», «aurkakoa» eta «oso aurkakoa», *Euskal Herriko hizkuntza-adierazleen sisteman* (Eusko Jaurlaritza, 2015) erabiltzen dena eta *Inkesta Soziolinguistikoaren* edizio batzuetan ere erabili dutena (*V. Inkestan* bakarrik «alde», «ez alde ez aurka» eta «aurka» sailkapen hirukoitza agertu zen).

Hurrengo taulan hizkuntza-aniztasunari edo euskarari buruz jaso ditugun diskurtsoen sailkapenak aurkezten dira laburbilduta:

TAULA. Hizkuntza-aniztasunari edo euskarari buruzko diskurtsoen sailkapenak

Nazioartekoan	Language-Negative	Language-Positive	
Atxaga (1990ko hamarkada)	Antipatikoak	Sinpatikoak	Patetikoak
Martínez de Luna, 2013a	Uzkurra Aldarrikatzailea Euskara babesten duen gehiengo soziala (baina diskurtso bat osatu gabea)		
Martínez de Luna, 2013b	Mesfidatia	Onarpen pasiboa	Euskaltzalea
 Abantaila sozialak		
EGOD: Diskurtso egituratuen fasean	Sustatzeko kontsentsu instituzionala		
	Kritikoa gehiegi egiten delako		Kritikoa gutxiegi egiten delako
EGOD: diskurtsoak	Mesfidatia	Sustatzailea	Aldarrikatzailea
	B a l i o p r a g m a t i k o a r e n a		
	E r r e s p e t u a r e n a		

Hizkuntzekiko ezkortasuna ← → Hizkuntzekiko baikortasuna

Eta zenbateko pisua dute euskal gizartean aipatutako diskurtso edo jarrera horiek? Ikerketa honetako emaitzak aurkeztu baino lehenago aipa ditzagun hemen, erreferentzia moduan, euskararen inguruko jarrerak aztergai izan dituzten zenbait lanek hizpide dituzten gaiak. *Euskal Herriko V. Inkesta Soziolinguistikoaren* arabera, 2011. urtean EAEko herritarren artean, % 24 «oso alde» zeuden, % 38 «alde», % 26 «ez alde ez aurka», % 9 «aurka» eta % 3 «oso aurka». Hona hemen jarreraren portzentajeak taula batean jasota:

Euskara sustatzeari buruzko jarrerak	Inkesta Soziolinguistikoa 2011
Oso alde + alde	% 62
Oso alde	% 24
Alde	% 38
Ez alde ez aurka	% 26
Aurka + oso aurka	% 12
Aurka	% 9
Oso aurka	% 3
Guztira	% 100

Ikuspegi juridiko-ideologikotik oso argigarria da Miguel Izu-ren *El régimen lingüístico en la Comunidad Foral de Navarra* liburua (2013). Bertan, hizkuntzen, eta euskararen, instituzionalizazio prozesu guztian egon diren arrazoibide eta eztabaida juridiko-ideologikoen aurkezpen dokumentatua eta azterketa egiten da hainbat mailatan: zuzenbideko literatura orokorrean (37-84. or.), Europan (85-111. or.), Espainiako erkidegoetan eta EAEn (113-268. or.), eta Nafarroan (269-614. or.).

32 Erdaldunen ikuspegiak Amorrortu, Ortega, Idiazabal eta Barreñak (2009) landu zituzten. Patxi Baztarrikaren *Babeli gorazarre* (2009) liburua alde bateko zein beste-ko autoreekin elkarrizketa zein eztabaida bezala uler daiteke. Nafarroan, euskararen «normalizazioaren» aurkako diskurtsoa Erizek (2001) aztertu zuen; eta Nafarroako euskara eta gaztelaniari buruzko diskurtso historikoak ere Erizek (1997) landu zituen.

Bestalde, inkestak edo neurketak ditugu, jarreraren edo hainbat iritzi edo zatikako ezaugarriren berri ematen dutenak: Inkesta Soziolinguistikoa 1991-2011 bitarteko bost inkestak (Aizpurua, 1995; Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernu eta Euskal Kultur Erakundea, 1997; Eusko Jaurlaritza, 2003, 2008 eta 2013); edo Eusko Jaurlaritzako Lehendakarietzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak (2011) kaleratutako *Euskara: erabilera, jarrerak, politikak* izenburuko inkesta, eta inkesta horren gainean Iñaki Martínez de Lunak (2013b) egindako *Euskara EAEn: gaitasuna, erabilera eta iritzia* lana.

Oro har, hala ere, esan daiteke gaia ez dela agortu aipatutako lanekin eta, edozein kasutan, diskurtso egituratuaren zein ez-egituratuaren gaur egungo egoera aztertzen duen eta metodologia desberdinak bateratzen dituen lan orokor baten beharrea gaudela.

1.3.4. EUSKARAREN GAINKO DISKURTZO EGITURATUAK

Euskararen sustapenari buruzko diskurtso egituratuen bibliografia (Hegoaldekoa landu da, ez Iparraldekoa) aztertu eta gero, hiru multzo nagusi bereiz daitezke:

- Euskara sustatzeko kontsentsuaren diskurtsoa (1979-2012).
- Diskurtso kritikoa, gutxiegi egiten delako.
- Diskurtso kritikoa, gehiegi egiten delako.

Edozein kasutan, aipatzen diren diskurtsoak konstrukto edo tipo petoak edo *garbiak* dira, baina maiz nahasita agertzen dira (puskaka, *framing* desberdinetako zatiak hartuz, etab.: ikus Martínez de Luna, 2013), bai euskararen sustapenaren aldekoen artean bai kritikoen artean, eta baita ildo batekoen eta bestekoen arteko eztabaidetan ere.

1.3.4.1. EUSKARA SUSTATZEKO KONTSENTSUAREN DISKURTSOA (1979-2012)

33

- ▶ Euskadiko Autonomia Erkidegoan euskararen sustapenaren inguruan kontsentsuzko enbor edo kate handi bat garatu da denboran zehar, 1979ko *Estatututik* (Euskal Herriko Autonomia, 1980) eta 1982ko *Euskararen Legetik* (Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, 1982) hasi eta 2012ko *Euskara Sustatzeko Ekintza Planeraino* (Euskararen Aholku Batzordea, 2012).

Bilakaera horretan, *Euskara 21* egitasmoa mugarrizko izan zen planteamenduak eta kontsentsuak berritzailekoan, besteak beste, honako agiri hauetan ikus daitekeenez: *XXI. Mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak. Oinarrizko txostena* (Euskararen Aholku Batzordea, 2008), eta egitasmoaren sintesia jasotzen duen *Itun berritu baterantz* (Euskararen Aholku Batzordea, 2009).

Oinarrizko agiri edo egitasmo horien alde agertu dira Eusko Legebiltzarra, EAJk eta PSEk gidatutako Eusko Jaurlaritzak eta haien Lehendakariak, eta baita Euskararen Aholku Batzordeak ere, erakunde bakoitzari dagokion neurrian.

- ▶ «Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna» (Council of Europe, 1992; Council of Europe, d. g.; Instrumento de ratificación, 2001; *La pro-*

tección de las lenguas minoritarias, 2011) ere kontsentsu instituzionalaren adierazle nagusien artean kokatzen da.

- Zentzu berean kokatzen da Europako Parlamentuaren Alfonsi ebazpena (Parlamento Europeo, 2013).
- ▶ Ardura instituzionalak izan dituzten edo dituzten Patxi López (2012a eta 2012b), Patxi Baztarrika (2009) edo Blanca Urgell (2012) pertsonen testuak (instituzionalak zein pertsonalak) ere multzo honetan sailka daitezke.
- ▶ Nafarroan, formalki EA Eren antzeko bidea egin da: 1982ko «Amejoramiento»ren legea (13/1982 Lege Organikoa) eta 1986ko Euskararen legea (18/1986 Foru Legea), baina, bai legeen edukian bai haien interpretazioan bestelako kontsentsua nagusitu da euskarari buruz, UPN eta PSNren artekoan oinarrituta. Nafarroako indar politiko edo sozial euskaltzaleak kontsentsu horretatik kanpo sentitu dira gehienbat, eta sentipen hori areagotu egin zen legea garatzen zuten 2001eko (203/2001 Foru dekretua) eta 2003ko (29/2003 Foru dekretua) foru dekretuak eman zirenetik, dekretu horiek legearen interpretazio murriztailea egin zutelakoan.

1.3.4.2. DISKURTSO KRITIKOA, GUTXIEGI EGITEN DELAKO

- ▶ Euskararen erabilera normalizatzeko hizkuntza politika errotik berritzea, nahiz eta azkeneko 40-50 urteetako bilakaeraren alde onak onartu, eta Euskal Herria osorik euskalduntzea aldarrikatzen dutenak biltzen ditu diskurtso honek (Mendiguren, 2009, Isasi, 2014, Kontseilua, 2012, edo 2014, esate baterako).
- Gutxienez, Estatutua onartu zen garaitik (1979. urtea) dator ikuspegi hau. Batzuetan diskurtso egituratu moduan agertzen da, beste batzuetan marko edo *framing* moduan (ikus Martínez de Luna, 2013a: *framing* aldarrikatzailea) agertzen da, eta beste batzuetan, diskurtso egituratua eta *framing* inplizitua batera agertzen dira (Isasi, 2014, adibidez).

1.3.4.3. DISKURTSO KRITIKOA, GEHIEGI EGITEN DELAKO

- ▶ Hizkuntza politika euskara gehiegi sustatzeagatik kritikatu dutenak biltzen ditu diskurtso honek (esate baterako: López Basaguren, 2007, Ruiz Soroa, 2009 eta 2010, Ruiz Soroa *et al.* 2009; edo, Nafarroako diskurtsoari buruz, Erize, 2001, edo I.M.M., 2013). Baina esan behar da diskurtso egituratuak egin dituzten ahots hauek ez direla asko nabarmendu 2010-2011tik aurrera EAEn, haien agerpen nagusiak 2010era bitartekoak izan baitziren.
 - Diskurtso kritiko honetatik kontsentsurako proposamenak egin ziren 2007-2009 aldian. Ikus, adibidez: López Basaguren 2007 eta 2009; Ruiz Soroa, 2009; Salbidegoitia, 2009.
 - Euskara gehiegi sustatzea kritikatzin dutenak, eta isla handia dutenak inkesta soziolinguistikoetan (V. Inkesta Soziolinguistikoaren [Eusko Jaur-larritza, 2013] arabera, % 45 inguru ez daude euskara sustatzearen alde Euskal Herri osoan; % 38 Euskal Autonomia Erkidegoan), diskurtso edo marko edo *framing* sozial bezala agertzen dira batez ere gaur egun (ikus Martínez de Luna, 2013a: *framing* uzkurra), ez testu egituratu moduan.
 - Jon Juaristirenak bezalako adierazpenak (Jon Juaristi: «El futuro del euskera me es muy indiferente», 2011), euskararekiko jarrera axolagabea adierazten dutenak, multzo honetan koka litezke.
 - Nafarroan, euskararen «normalizazioaren» aurkako diskurtso bat garatu zen 1997tik eraginkortasun handiarekin (Erize, 2001) eta gaur egun arte iraun du (ikus, adibidez, Martínez de Luna, 2013a), modu formalizatuan batzuetan eta *framing* sozial moduan beste batzuetan.

1.4. Helburua eta hipotesia

Euskararen gaineko diskurtsoen lanketaren premia azpimarratu (1.2 atalean) eta munduan gurean erabili ohi diren funts diskurtsiboak azaldu eta gero (1.3 atalean), unea iritsi zaigu EGOD egitasmoaren azken helburua zein den zehazteko:

Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoak aztertzea eta kontrastatzea; eta, horrekin batera, proposamenak egitea, euskararen gaineko ikuskera gizarte baldintza berrietara egokitzeko eta euskararekiko atxikimendua euskal gizatalde gehienetara hedatzeko asmoz.

Helburu horren atzean badago hipotesi inplizitu bat, neurri handian aldez aurretik egin diren ikerketetan zein saio diskurtsiboetan oinarritua dena. Alegia, egoera eta bilakaera soziolinguistikoen inguruko emaitzak, azken urteetan euskararen inguruan lortutako adostasuna (Euskara 21 eta ESEP, besteak beste) eta gizartean dauden gainerako diskurtsoak aintzat hartuta, EGOD egitasmoaren atzean dagoen hipotesia, zehatz-mehatz, hauxe da:

Euskal gizartean badago diskurtso berri, partekatu eta ongi sustraiturikoa osatzeko aukera.

1.5. Metodologia

Esandako helburua lortzeko, hainbat hurbilpen metodologiko eta lanketa mota uztartu dira, urrats bakoitzean lortutako emaitzak hurrengo urratsean erabiliz, halako kate bat sortuz:

1. Azterketa bibliografikoa: euskararen gaineko diskurtso egituratuen bilketa.
2. Gizarte Foroa (adituak): analisia eta hausnarketa eragiteko, gizarteko ordezkari estrategikoekin (metodologia kualitatiboa).
3. Delphi teknika (adituak): idatzizko analisia eta hausnarketa eragiteko, gizarteko ordezkari estrategikoekin (metodologia kualitatiboa).
4. Eztabaida-taldeak (*focus group*): gizartearen lagin baten bitartez herritarren diskurtsoak biltzeko (metodologia kualitatiboa).
5. Inkesta: gizartearen lagin bati zuzendutako galdesorta egituratu baten bitartez (metodologia kuantitatiboa).

Horiek guztiak zehatz-mehatz azalduko dira hurrengo lerroetan, baina horrekin hasi aurretik ohar garrantzitsu bat: txostenean datuak zein hitzez-hitz jasotako ai-puak kolore desberdinekin berezi dira, iturri zein informatzaile motaren arabera:

- Beltza: Euskararen gaineko diskurtso egituratuak.
- Berdea: Delphi teknika (adituak-gizarteko ordezkari estrategikoak).
- Urdina: Gizarte Foroa (adituak-gizarteko ordezkari estrategikoak).
- Gorria: Eztabaida-taldeak (gizartearen lagin batekin azterketa kualitatiboa).
- Laranja: inkestaren emaitzak.

1.5.1. AZTERKETA BIBLIOGRAFIKOA: EUSKARAREN GAINEKO DISKURTSO EGITURATUAK

Lan honetarako lehenengo datu bilketa euskararen gaineko diskurtso egituratuen bibliografia (Hegoaldekoa landu da, ez Iparraldekoa) aztertuz egin da, 1.3.4 atalean laburbilduta jaso dena. Fase honetako emaitza gordinak «Euskararen gaineko diskurtso egituratuak» izeneko eranskinean (1. eranskina) ikus daitezke.

1.5.2. GIZARTE FOROA (ADITUAK)

Gizarte Foroa adituen hausnarketarako bilgune bezala eratu zen, euskal gizartearen izaera, sentsibiltate eta interes desberdinak —ahal izan diren gehienak— ordezkatuak izatea bilatu zen, eremu sozioekonomikoaren aniztasuna islatuko duten pertsonak barne: enpresarioak zein sindikalistak, kazetariak eta unibertsitateko irakasle edota ikerlariak, euskaldunak zein erdaldunak. Lanketa horrek ikuspuntu ezberdinak edota kontrajarriak askatasun osoz adierazteko eta defendatzeko moduko giroa lortu behar zuen, «euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoak aztertu, kontrastatu, berri eta bateratze bidean jartzeko» helburua erdietsi ahal izateko.

Gizarte Foroaren bi saio egin ziren, 2014ko ekainaren 3an lehena eta 26an bigarrena. Guztira, 56 lagunek hartu zuten parte.

- ▶ **Lehen saioan**, egitasmoaren aurkezpena egin ondoren, partaideak lantalde txikietan bildu ziren eta euskararen inguruan zituzten iritziak emateaz gain, gizartean entzuten zituzten diskurtsoez eta zoru partekatuaren aukeraz eta diskurtso partekatu bat osatzeko elementuez elkarren artean hitz egiteko eskatu zitzairen.

Saio honetan **41** pertsonak hartu zuten parte.

Eztabaida pizteko erabili zen edukia eranskin txosteneko honako dokumentu honetan jasota dago: *Foroaren 1. saiorako aurkezpena (2014.06.03)*.

- ▶ **Bigarren saioan**, aurreko saioan ateratako ideia nagusiak eta Delphi teknikatik jasotako emaitzen laburpena abiapuntutzat hartuta, berriz ere, lantalde txikietan bildu ziren partaideak, eta talde bakoitzaren lana izan zen guztien artean euskararen inguruko 4 ideia adostea.

Saio honetan **47** pertsonak hartu zuten parte.

Eztabaida pizteko erabili zen edukia eranskin txosteneko honako dokumentu honetan jasota dago: *Foroaren 2. saiorako aurkezpena (2014.06.26)*.

38

Lanketa hori egiteko saio bakoitzean 6 lantalde txiki osatu ziren. Talde bakoitzean izaera ezberdinetako adituak biltzen saiatu ginen.

Foroaren emaitza eranskinetako honako dokumentu hauetan ikus daiteke:

- *Foroaren 2. saioaren emaitzen bilketa antolatua (Xabier Erize. 2014.07.16)*.
- *Foroaren emaitza gordinak: 1. saioko taldeetan jasotako emaitzak (2014.06.03)*.
- *Foroaren emaitza gordinak: 2. saioko taldeetan jasotako emaitzak (2014.06.26)*.

1.5.3. DELPHI TEKNIKA (ADITUAK)

Foroan parte hartu zuten adituen iritziak jasotzeaz gain, foroan parte hartu ezin izan zuten euskal gizartean erreferente diren beste hainbat adituri ere euren iritzia

eskatu zitzaien, «euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoak aztertu, kontrastatu, berritu eta bateratze bidean jartzeko» helburuarekin. Pertsona hauei galdetegi bat pasa zitzaien, idatziz, eta euren ekarpenak ere idatziz jaso ziren. Guztira, 63 laguni egin zitzaizkien galderak, eta 42k erantzun zuten.

Partaide hauei ere, euskararen inguruan dituzten iritziak eskatu zitzaizkien, euren ingurua nola ikusten zuten eta zoru partekatuaz eta diskurtso berria osatzeko beharrezko elementuez itaundu zitzaien. Delphian jasotako iritziak biltzen dituen txostena eranskinean jaso dira: *Delphi saioko edukien bilduma txostena (Iñaki Martínez de Luna. 2014.09.02).*

1.5.4. EZTABAIDA-TALDEAK (FOCUS GROUP)

Metodologia kualitatiboko eztabaida-talde edo *focus group* teknika erabili zen. Gizarteko balioetan sakontzeko eta joerak eta etorkizuneko eskaerak aztertzeko gehien erabiltzen den metodologia da. *Focus group* horietan, herritarren iritzi, motibazio eta arrazoietan sakontzea izan da helburua.

Herritarrekin osatuko taldeak egin ziren, talde guztien artean soslai plurala osatuz, gizartean dauden euskararen diskurtso eta —aldeko zein aurkako— motibazioen gainean gogoeta egin zezaten.

Eztabaida-taldea errealitatearen lagin bat osatzeko tresna bezala erabili da. Horretarako, toki jakin batean moderatzaileak proposaturiko gai ezberdinetan sakontzeko zortzi pertsona izan dira, ohikoa izaten den moduan. Teknika honek gai ezberdinei buruz herritarrek duten arazoibidearen funtsezko osagaiak jasotzea ahalbidetu du, arrazoietan eta horien aurrean zehazten diren argudioetan sakonduta.

Zehazki, 7 eztabaida-taldetan gauzatu da, eta bere konfiguraziorako segmentaziozko hurrengo aldagai hauek izan dira kontuan:

- ▶ *Elebidun* edo *Euskaldun* «aktiboak» (EA) edo egunerokoan euskara sarri erabili ohi dutenak, *Elebidun* edo *Euskaldun* «pasiboak» (EP) edo euskararen eguneroko erabilera urria dutenak, eta *Erdaldunak* (ER).

- ▶ Adina: adin-tarte bi erabili dira gazteen diskurtsoa eta nagusien diskurtsoa bereizteko: 18-35 urte, 36-65 urte.
- ▶ Sexua: parekatuak izan dira (% 50 gizonak eta % 50 emakumeak) talde guztiak.
- ▶ Lurralde historikoa: eremu-lana EAeko hiru lurralde historikoetan garatu da, horien artean osagai bereizgarriak jasotzeko asmoarekin.

Zehatz-mehatz, zazpi taldeen eraketa hurrengoa izan da:

- 1: Euskaldun edo Elebidun aktiboak (EA), 18-35 urte (Bilbo).
- 2: Euskaldun edo Elebidun aktiboak (EA), 36-65 urte (Donostia-San Sebastián).
- 3: Euskaldun edo Elebidun pasiboak (EP), 18-35 urte (Vitoria-Gasteiz).
- 4: Euskaldun edo Elebidun pasiboak (EP), 36-65 urte (Bilbo).
- 5: Erdaldunak (ER), 18-35 urte (Bilbo).
- 6: Erdaldunak (ER), 36-65 urte (Donostia-San Sebastián).
- 7: Talde mistoa, profil linguistiko guztiak zein adin guztiak (Bilbo). Aurreko taldeetan parte hartu zutenen artean osatutakoa.

40

Eztabaida-taldeen emaitzak honako txostenen honetan daude: *Ikerketa Kualitativoaren txostena (Kualitate Lantaldea. 2014.12.05)*.

Fase honetan sortutako emaitza gordinak modu bateratuan honako dokumentu honetan ikus daitezke: *Emaitzen bilduma bateratua: Gizarte Foroan, Delphi teknikan eta Eztabaida-taldeetan jasotako emaitzak (2015.02.26)*.

1.5.5. INKESTA

Inkestarekin, herritarren diskurtsoen, balio linguistikoen eta motibazio mota ezberdinen hedapen eta pisu soziala ezagutzea zen helburua. Informazio bilketa 2014ko abenduaren 17an eta 18an egin zen, EAeko lurralde bakoitzerako lagin adierazgarri bati telefono bidez egindako banakako elkarrizketen bidez. 18 urte edo gehiagoko biztanleriaren laginak 2.160 elkarrizketa bildu zituen Euskal Autonomia Erkidego osorako.

Inkesta eredia eta inkestako emaitzak biltzen dituzten txostenak honako eranskin hauetan ikus daitezke:

- *Inkesta eredia: euskaraz eta gaztelaniaz (2014.12.17).*
- *Inkesta kuantitatiboaren emaitzak: jarrerak eta iritziak (2015eko ekaina).*
- *Inkesta kuantitatiboaren emaitzak: aldagai anitzeko analisisa (2015.01.22).*

2.

AZTERKETAREN EMAITZAK

2.1. Egindako bidearen balorazioa

Metodologia atalean deskribatu den moduan, bost iturri nagusi erabili ditugu informazioa jasotzeko, izaeraren arabera bi multzotan bildu daitezkeenak: alde batetik, adituak edo gizarteko espazio klabeetan lanean dihardutenak ditugu, horien iritziak jaso ditugu diskurtso egituratuaren azterketa bibliografiko bidez, delphi teknika erabilia euren ekarpena idatziz jasoz edota beste aditu batzuekin batera lan-foro batean euren iritzia azalduz; bestetik, biztanleria edo herritarren iritziak ditugu, hauek eztabaida-taldean eta inkesta bidez jaso ditugu.

43

Bost iturri horietatik informazio andana jaso da, eta emaitza orokorrak eskaintzeaz gain, diskurtso mota ezberdinak ere bereizi ahal izan ditugu. Horretarako eta hizkuntza-bizipenen ikuspegiari erreparatuz, herritarrekin hiru multzo nagusi osatu dira: erdaldunak, euskaldun pasiboak (euskara gutxitan baliatzen dutenak) eta euskaldun aktiboak (euskara maiz erabiltzen dutenak). Izan ere, pentsatzekoa da izaera horiek baldintzatuko dituztela, neurri handi batean, euskararen inguruan dituzten hautemateak eta bizipenak. Multzoetak informazioa aztertuta, puntu batzuetan adostasun handia dago, bestetan txikiagoa eta, azkenik, iritzi kontrajarriak ere bai.

Egin den bidearen informazioa zazpi azpi-atal kontzeptualen pean eskainiko da jarraian: komunitatearen atxikimendua eta hautematea; lege estatusaren garrantzia; euskalduntze, «elebiduntze» eta «eleanizduntze» progresiboak; ezagutza eta jarretatik, erabilerarako jauzia; hizkuntza politika eztabaidagai; euskara lan mundurako sarrera; eta, azkenik, hizkuntza, bi komunitateen arteko gatazkaren erdigunean.

2.1.1. KOMUNITATEAREN ATXIKIMENDUA ETA HAUTEMATEA

Eztabaida-taldeetan hizpide jarri ziren *Zer da zuentzat euskara?* edo *Niretzat euskara zera da...* tankerako gaiak. Abiapuntu honen bitartez bilatu zen, sentimendu edota barneko iritziei lotutako berezko erantzunik aipatuenak jasotzea. Partaideen esanak —ideiak, sentimenduak eta iritziak— batu ondoren, edukiz beteriko zenbait kontzeptu agertu dira. Horiekin zein inkestako datuekin, antolatu da euskara nagusiki nola hautematen duen euskal gizarteak: atxikimendua, identifikazioa, komunikazioa, bizimodua eta lan-merkatu-rako sarrera.

2.1.1.1. ATXIKIMENDUA

Hizkuntza batek etorkizunik izango badu bere hiztun-komunitatearen babesa eta bulkadarekin izango da, ezinbestez. Hortaz, garrantzitsua da jakitea gizarteak nola hauteman eta irudikatzen duen euskara, eta, halaber, hizkuntza horrezaz zein balorazioa egiten duen.

44

«Para mí el euskera es una lengua, la lengua de los vascos o del País Vasco». (ER, 18-35, Bilbo) / «A mí es algo que me gusta que esté». (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Zaindu behar dala nahi eta nahi ez gure hizkuntza dalako» (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián)³. [Eranskinak 250. or.]

Inkestak, euskararen gainean gizarteak duen asmo orokor baten berri eman digu: EAEko biztanleriak euskarari buruz adierazten duen interesa oso edo nahikoa handia da, oro har, eta nabarmenagoa oraindik elebidunen artean.

Galdera inkestan: «Orokorrean, nolakoa da euskararekiko duzun interesa?». Erantzunik aipatuena: *Oso handia* edo *Nahikoa handia*, biztanleriak: % 69 (elebidun aktiboek: % 97; elebidun pasiboek: % 80; erdaldunek: % 52). [Eranskinak 388. or.]

3. Eztabaida-taldeetatik hartutako aipuetan, letra larriz azaltzen diren hitzek eztabaidatalde mota adierazten dute: EA = Elebidun Aktiboak, EP= Elebidun pasiboak, eta ER= Erdaldunak.

Emaitez erakusten dute EAEko gizartearen bi heren baino gehiago euskara hedatu eta sendotzearen alde dagoela; halaber, aldekotasun hori hiztun mota guztiengan nagusitzen dela.

Galdera inkestan: «Zer gustatuko litzaizuke, euskarak gizartean duen presentzia handitzea, orain bezala mantentzea edo gutxitzea?». Erantzunik aipatuena: *Handitzea*: % 69 (elebidun aktiboek: % 95; elebidun pasiboek: % 75; erdaldunek: % 56). [Eranskinak 388. or.]

2.1.1.2. IDENTIFIKAZIOA

Norbanako zein komunitate identitateei lotuta dauden kontzeptuak askotan agertu dira, nahiz eta batzuetan indar edo sentimendu gehiagorekin nabarmendu diren; adibidez, euskaldunen elementu idiosinkratikoa, euskal herritarren oinarritzko osagai bezala. Beste taldekide batzuek, aurreko ideiaz gain, historia, tradizio edota kulturarekin ere lotu dute. Momentu batzuetan euskara ez jakitearen pena agertu da, batzuetan, eta jakin eta hitz egiteagatik harrotasuna, beste batzuetan. Izan ere, komunitate bereizitu eta bakarra egiten gaitu.

45

«Pixka bat gure identitatea, bereizten gaituena beste kultura edo herri edo besteengandik bereizten gaituena». (EA, Bilbo, 18.-35) / «También es una diferencia, es algo que nos diferencia del resto de pueblos» (EP, 18-35, Vitoria-Gasteiz) / «Niretzat batez ere identitatea da, ez bakarrik nirea, familiarena ere, sentimentuzko zeozer da» (EP, 36-65, Bilbo) / «Ez da inorena, gurea baizik» (EA, 18-35, Bilbo) / «El euskera es un sello de identidad, no es un idioma del País Vasco solo» (ER, Bilbo, 18-35). [Eranskinak 250. or.]

Euskal Herria, kultura, historia, nazioa, harrotasuna, bereizten gaituena, harrotasuna, identidad, cercanía... (espontaneoki hainbat eztabaida-taldetan). [Eranskinak 250. or.]

Irudikapen kolektiboan halakoek duten garrantzia argi gelditu da, modu elaboratuan zein espontaneoan, ideiak hainbatetan errepikatzean. Inkestako emaitzak bat datoz norberaren edo herriaren nortasuna azpimarratzearen garrantziarekin espontaneoki emandako erantzunetan ere.

Galdera inkestan: «Zer datorkizu burura 'euskara' hitza entzutean?» Erantzunik espontaneo aipatuena: «Nire lurra, Euskal Herria», biztanleriak: %22 (elebidun aktiboek: %23; elebidun pasiboek: %25; erdaldunek: %20). [Eranskinak 388. or.]

Historia eta kulturarekin ere lotu da euskara, baita lurra edo sustraiekin ere. Atal honek indar handiagoa hartu du euskaldun aktibo eta euskaldun pasiboen diskurtsoetan, erdaldunen diskurtsoan baino; hala ere, horrek ez du esan nahi erdaldunek ez dutenik halako sentimendurik partekatzen.

«Cuando sales fuera lo ves como un elemento tuyo, un elemento cultural» (ER, Bilbo, 18-35) / «Nuestra cultura» (EP, Vitoria-Gasteiz, 18-35) / «Niretzako da nire hizkuntza eta balio kultural handi bat» (EA, Donostia-San Sebastián, 36-65) / «Es un sumar, y si nos ponemos a chulear, es una de las lenguas más antiguas junto con el hebreo» (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Es que no se sabe de dónde viene, no procede del latín. Según algunos es el idioma más viejo de Europa». (EP, 18-35, Vitoria-Gasteiz) / «A mí me parece una riqueza, como tener montes. Es un lujo» (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

46

Biztanlerian hedatuta dagoen pertzepzio nabarmena da, euskara bertako osagai edo ezaugarri propioztat hartzea; horrek ez du esan nahi denek modu eta eduki bera partekatzen dutenik. Hautemate horretan, pisu berezia du hiztun motak, horren arabera hizkuntza-bizipena eta -lehentasuna oso ezberdinak baitira.

Galdera inkestan: «Zu pertsonalki, zein hizkuntzarekin identifikatzen zara gehien, euskararekin, gaztelaniarekin edo beste hizkuntzaren batekin?» Erantzunak:

- *Euskararekin*: biztanleriak: %24 (eleb. aktiboek: %83; elebidun pasiboek: %19; erdaldunek: %4).
- *Gaztelaniarekin*: biztanleriak: %63 (eleb. aktiboek: %5; eleb. pasiboek: %59; erdaldunek: %89).
- *Biekin, euskararekin eta gaztelaniarekin*: biztanleriak: %11 (eleb. aktiboek: %12; eleb. pasiboek: %19; erdaldunek: %5).
- *Beste hizkuntza batekin*: biztanleriak: %0 (eleb. aktiboek: %0; eleb. pasiboek: %0; erdaldunek: %1). [Eranskinak 388. or.]

2.1.1.3. KOMUNIKAZIOA

Maila sinbolikotik harago, euskara komunikazio-tresna gisa ikusten da, beste eze-
ren gainera. Hala ere, beste hizkuntzekin konparatuz eskala desberdinean koka-
tu da, ez altuago ezta baxuago, ezberdin: ingelesa eta frantsesa (EAEn), batik bat,
atzerriko hizkuntzak, bidaiatzekoak, etorkizunekoak izanik, euskara baino hotza-
goak dira. Euskara *gurea* den hizkuntza ikusten da eta horrek sentimenduzko ku-
tsua gehitzen dio: harrotasuna, aberastasun linguistikoa...

«Ez da beste hizkuntza batzuk bezala, leku txiki batean hitz egiten den hizkuntza
eta hizkuntza bezala hizkuntza berezia, hitz egiten ditugun artean zaharreneta-
rikoa da orduan ikuspuntu linguistikotik interesa daukan zerbait da euskara».
(EA, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

Aberatsa da, eta hori euskalkietan islatzen da. Gizartea ere aberastu egiten da, onu-
ra pertsonalak dakartzalako (bizipenak, esperientziak...) eta beste hizkuntzak ikas-
teko erraztasuna ematen duelako (gizarte eleanitza sortzen lagungarri).

«Para el desarrollo personal» (EP, 18-35, Vitoria-Gasteiz) / «Oso pozik nago eus-
karaz hitz egitearren, erretasuna ematen du beste hizkuntza bat ikasterako or-
duan» (EP, Bilbo, 36-65). [Eranskinak 250. or.]

2.1.1.4. BIZIMODUA

Euskara bizimodua da jendearen parte delako eta beraz, taldekide askok ez dute
euren bizitza euskara barik ulertzen; nortasunetik haratago doan osagaia da.
Euskaldunek (aktibo zein pasiboek) sentitzen dute *euskara barik bere bizitza ez
zen berdina izango*, eta beraien bizitza baldintzatu duen elementutzat deskriba-
tzen dute.

«Niretzako da nire bizitza eta bizimodua» (EA, Donostia-San Sebastián, 36-65)
/ «Euskaraz ez da apendizaiarako tresna, bizipen bat da» (EA, Donostia-San Se-
bastián, 36-65) / «Orain dela 28 urte hasi nintzen euskara ikasten, garai hartan
giroa euskalduna zen eta ni nintzen euskaldun ez zen bakarra eta galduta sen-
titzen nintzen. Horregatik ikastea erabaki nuen eta ordutik hona nire bizimodua
da» (EP, Bilbo, 36-65). [Eranskinak 250. or.]

Euskara borroka ere bada: esfortzua delako, kasu batzuetan berba egiteko lotsa sentitzen delako... Baita hurrengo belaunaldiek euskaraz egin dezaten lortzeko ere, herrigintzan inplikatzeko beharrezkoa delako, beste umeek eskolaz kanpoko aukerak euskaraz izan ditzaten ahaleginduz.

«Niretzat nire buruarekin dudana borroka bat da, baita ingurukoekin ere. Ez da borroka zentzu negatiboan, baizik eta erronka, erronka polit bat» (EP, 36-65, Bilbo) / «Bizitza osoa daramat euskararen borrokarekin» (EP, 36-65, Bilbo) / «Mi hijo está apuntado en judo en euskera, para que por lo menos se le pegue algo allí» (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Nire senar ohia erdalduna zan, kriston esfortzua egin zuen eta nirekin euskaraz egiten zuen eta umeak jaio zirenean erabaki zuen euskara hutsean hitz egingo zuela». (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

2.1.1.5. LAN-MERKATUAREN ANBIBALENTZIA

48

Lan mundura sartzeko baldintza da euskara. Sektore publikoan lan egiteko beharrezkoa izateaz gain, pribatuan ere askotan eskatzen da, eta ideia hori sarri aipatu da.

«Lan mundurako bai edo bai behar da» (EP, 36-65, Bilbo) / «Lana lortzeko erabilgarria izan zen» (EP, 36-65, Bilbo) / «Si sabes euskera te abre muchas puertas, sé que vas a tener muchas más puertas abiertas» (EP, 18-35, Vitoria-Gasteiz). [Eranskinak 250. or.]

Galdera inkestan: «Euskara gero eta beharrezkoagoa da lana eskuratzeko?». Erantzunak: *Gutziz ados* edo *Nahikoa ados*, biztanleriak: % 76 (elebidun aktiboek: % 75; elebidun pasiboek: % 79; erdaldunek: % 75). [Eranskinak 388. or.]

Lanari lotutako oinarri-oinarrizko iritzi horien ondoren agertzen dira interpretazio ezberdinak eta maiz kontrajarriak. Alde batetik, lan munduan euskara aukera bezala ikusten da, eta bestetik traba edo *handicap* berri moduan. Ideia horiek aurrerago azalduko dira, hurrengo puntuan zein 2.1.6 *Euskara lan mundurako sarrera* atalean.

2.1.2. LEGE ESTATUSAREN GARRANTZIA

2.1.2.1. MARKO INSTITUZIONALA

Euskarak, batez ere zenbait lurraldetan, duen lege estatusa erabakigarria da hainbat partaideren iritziz, egun duen egoera ulertzeko:

- ▶ Lehenik eta behin, Konstituzioak, hirugarren artikuluan onartzen du gaztelaniaz gain, Espainiako beste hizkuntzen izaera ofiziala, euren Estatuetan horrela zehazten bada. Artikulu berean, hizkuntzak kultura ondareztat jotzen dira, eta babesa eta begirunea izan behar dutela zehazten da.
- ▶ EAEko Estatutuaren seigarren artikuluan, gaztelaniari bezala, hizkuntza ofizialaren izaera aitortzen zaio euskarari; herritarrek bi hizkuntza ofizialak eza-gutzeko eta erabiltzeko eskubidea dutelarik. Horrekin batera, Azaroaren 24ko 10/1982 *Oinarrizko Legea, Euskararen Erabilpena Arautzekoa*, kontsentsuaren bidean aurrerapauso bat izan zela azpimarratzen da.
- ▶ Hegoaldearen kasuan, garrantzitsua da Estatuak *Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna* sinatu eta berretsi izana. Gutunean hizkuntza-aniztasuna babestea printzipio demokratikotzat jotzen da, eta gaineratzen da hori ez dela hizkuntza nagusia hitz egiten dutenen gaineko neurri diskriminatzailea.

2.1.2.2. ELEBITASUN DESOREKATUA

Dena den, badira batzuk kontsentsu sendoa bideratzeko dagoen lege eta araudien amaraunarekin nahikoa ez dela uste dutenak; ezadostasunak, legeek diotena praktikara eramaterakoan sortzen direlako, eta legeak dioenari ñabardura garrantzitsuak egin ahal zaizkiolako.

Horien iritziz, araudiak dioena dioela, euskara eta gaztelania ez daude maila berean, eta horren ondorioz sortzen dira, hizkuntza dela eta, sortzen diren gatazkak.

«Batzuen aldetik euskara ikasi beharra (euskararen ezagutza unibertsalizatzeaz edo hizkuntza irizpideak ezartzeaz) zalantzan jartzen bada ere, inork ez du gauza bera egiten gaztelaniarekin. Zoru partekatua egon badago, baina noraino hel-tzen da partekatzen duguna? Gurea hizkuntza gutxitua den neurrian, gatazkak sortzen dira zoru komun-teoriko horretatik ekintzetara pasatzean». (Delphi txosten-a). [Eranskinak 214. or.] / «Nork politizatzen du, euskaraz egiteko eskubidea betetzea eskatzen duenak, ala eskubide horri uko egin ez ezik, hizkuntza bera ukatu egiten duenak?» (Delphi txostena). [Eranskinak 215. or.]

«Markaren irudia eta produktua koherenteak izan behar dira. Ados gaude ez ga-rela izan behar hain lotuak identitateari, abertzaletasunari edo kulturari, baina euskara oraindik gutxitua behintzat badago. Eta errealitate horri ere ezin zaio muzin egin». Gizarte Foroan eztabaidatutakoa. [Eranskinak 346. or.]

Esaterako, legeak dio bi hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea dagoela, baina gaztelaniari eta euskarari ematen zaien babes maila ezberdina dela uste dute. Gainera, lege egoera dena delakoa izanda ere, hizkuntzak medio hemen dis-kriminazioa dagoela diote hainbatek.

50

«Legezko estatusaz, erabakiak eta ekintzak hartu behar direnean, lege eta arau-diak ezarritakoa ezberdin irakurtzeko joera dago» / «82ko euskararen legea onartu zeneko markoa, euskararen normalizazioarena alegia, oraindik ere defini-tu eta adostu gabe dago, eta zerbait definitzen edo zehazten hasten den unean, markoa desitxuratu egiten da eta zoru partekatua desagertu egiten da etenga-be». (Delphi txostena). [Eranskinak 215. or.]

«EAEko eredu legal ideal batean, legediak dioen "...guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea" testua ez da guztiz egia. Gaztelania eza-gutzea eskubidea baino gehiago bete beharra da. Euskara ezagutzea, ordea, ka-surik onenean eta hiritar askorentzat nekez berma daitekeen eskubidea baino ez. Era berean, zalantzan jartzen da legedian egiten den diskriminazioa saihes-teko aldarrria: hizkuntza dela medio inor diskrimina ezin daitekeela esatea guztiz baiezta-pen hutsala da: gizarte guztietan diskriminatzen da hizkuntzaren arabe-ra». (Delphi txostena). [Eranskinak 223. or.]

Eta Espainiako konstituzioak ezberdintasun hori mantendu baino ez duela egiten uste dutenak ere badira, euskara nahikoa ez duelako babesten eta gaztelaniari gor-detzen zaiolako legearen pribilegioa. Eta horren aurrean, ahula dela irizten diote diskurtsoez aritzea.

«Espainiar Konstituziotik, gaztelerari gordetzen zaio legearen pribilegioa. Frankismotik erregimen berrira euskararentzat aldaketa gutxi. Komunitate batek pribilegioak atxikitzen ditu beretzat, indarrez, eta besteei ukatuz». (Gizarte Foroa (talde bateko adostasuna)). [Eranskinak 348. or.] / «Espainiako Konstituzioak gaztelania derrigortzen du, eta horren aurrean ahula litzateke diskurtsoen alorrean aritzea» (Gizarte Foroa (saio osoko mezua-ñabardura)). [Eranskinak 353. or.]

2.1.3. EUSKALDUNTZE, «ELEBIDUNTZE» ETA «ELEANIZDUNTZE» PROGRESIBOAK

2.1.3.1. EUSKALDUNTZEA

la inork zalantzan jarri ez duena da, azken hamarkadetan gizartearen «euskalduntze progresiboa» eman dela. Noski, ez da akatsik gabeko bidea izan, gauzak beste modu batetara ere egin zitezkeen. Baina, argi dagoena da aurrerapauso nabarmenak eman direla bide horretan.

«Gizartearen “elebiduntze progresiboa” gertatu da. Egindako bidea ez da perfektua izan, baina aldi berean, lorpen eta oso ongi emandako urrats ugari ere baditu egindako bideak, (ia) ezinezko ziren gauzak errealitate bihurtzeraino». (Delphi txostena). [Eranskinak 212. or.]

Aurrerapausoak handiak eta nabarmenak izan dira, baina oraindik ere, euskalduntze prozesuak denbora gehiago behar duela uste dute aditu zein herritar batzuek, egindako bideak sendotu egin behar duela.

«Ohartarazten da, aldi berean, hizkuntza baten berreskuratze prozesuak denbora eskatzen duela; ezinezkoa dela berehala edo denbora tarte txiki batean gertatzea. Euskarak aurrerapauso handiak eman ditu eta denbora eman behar zaio berez sendotu dadin». (Delphi txostena). [Eranskinak 212. or.]

«Baina galduta egon den hizkuntza da, garai batetik hona normalkuntza prozesu batean sartu dena eta normaltasun prozesua ez da bukatu. Asko dago egiteke, eta gauza zaila da; iritsiko garen bez, ez dakit...» (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

Dena den, ezagutzaren hedapen honek, ahalbidetzen du euskara erabiltzea lehen pentsaezina zen hainbat eremutan. Zentzu horretan, adibidez, unibertsitatean euskararen lekua nabarmen handitu dela azpimarratzen da. Diskurtso mailan ezik, eguneroko aplikazioan ere euskarak adostasun maila handia lortu du unibertsitatean.

«...uste dut euskarak prestigioa duela unibertsitatean. Euskaraz eskaintzen den irakaskuntzak beste erdaratakoak bezalako prestigioa du; irakasleria elebidunak goi mailako ikerketa egiteko inolako arazorik ez duela demostratu du...». / «Unibertsitatean euskarak ibilbide ikusgarria egin du: 1976. urtean Medikuntza Fakultatean eta Zientzia Fakultatean euskaraz eskola bakan batzuk ematen hasi zirenetik hona gauzak asko aldatu dira. 1985. urteko lehen UPV/EHUko estatu-tuek araubidezko aitortza ematen zioten euskarari irakaskuntza eta ikerketa egiteko. Ordutik hona Euskararen Normalizaziorako 2 plangintza eta Eleaniztasun plana onartu dira. Gradu bakan batzuk kenduta, lehen zikloko ikasketa guztiak egin daitezke euskaraz. MUN euskarazko eskaintza oso zabala da ere, graduoko ikasketa ia guztiak euskaraz eskaintzen direlarik. (...) Eta euskalduntze horretan atzerago dabilzan kasuetan ere, zenbait neurri hartzen hasi omen da: Deustun berriz, Eusko Jaurlaritzarekin sinaturiko programa kontratua bitarteko, hainbat gradu elebietan eskaini ahal izan dira azken lau urtetatik hona». (Delphi txostena). [Eranskinak 213. or.]

Halere, nabarmendu izan da, aurrerapausoak ez direla berdin eman euskararen lurralde osoan. Lurralde bakoitzean duen lege estatusak zerikusi handia du horretan. Egoera oso ezberdina da, esaterako, Gipuzkoan eta Iparraldean, nahiz eta positiboki azpimarratzen den Iparraldean ere euskararen aldeko diskurtsoa gero eta zabalduago dagoela.

«Dena den, [Iparraldean] gizartearen balorazioan hobekuntza baten zantzuak ikusten direla aitortzen dute bertako parte-hartzaileek: Aitorpen ofizial oso apala, baina Euskararen aldeko diskurtsoa partekatua da / Orokorrean euskararen aldeko diskurtsoa nabarmenki baikortu da erakunde armatuak borroka erabat utziz geroztik». (Delphi txostena). [Eranskinak 214. or.]

Azkenik, gizarte foroetan, kexu dira partaideetako batzuk euskara ikasteko erraztasun gutxi ematen direlako.

«No te dan facilidades para aprenderlo» (ER, 18-35, Bilbo) / «En este momento no hay muchos incentivos. Hombre el que tenga poder adquisitivo y pueda gastarse

ese dinero en aprender euskera...» (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

2.1.3.2. «ELEBIDUNTZETIK» «ELEANIZDUNTZERA»

Jasotako informazioak argi uzten du gizarteak elebakartasunetik haragoko ikuspegia barneratuta duela, eta dauden bi hizkuntza ofizialen alde egiten duela. Nabarmentzekoa da, halaber, elebitasunaren onarpena hiztun mota guztietan nagusitzen dela.

Galdera inkestan: «Etorkizunean zein hizkuntzatan hitz egin beharko litzateke Euskal Herrian?». Erantzunik aipatuena: *Euskaraz eta erdaraz: %83* (elebidun aktiboek %63; elebidun pasiboek: %87; erdaldunek: %88). [Eranskinak 388. or.]

Gaur egun, elebitasunetik aurrera beste urrats bat egin behar dela uste du gizartearen gehiengoak, eleaniztasunerantz, hain zuzen, bi hizkuntza ofizialei ingelesa ere gehituz. Hegoaldean euskara, gaztelania eta ingelesa batera nahi dituen ikusmoldearen adibide bat adituek esandako hau izan daiteke.

«Gizartean “Euskara beharrezkoa da” pentsaeratik “Hizkuntzak beharrezkoak dira” pentsamoldera aldaketa gertatu da edo gertatzen ari da. Garrantzia ematen zaio euskaraz irakasteari, eta gero eta handiagoa ingelesez irakasteari ere bai». (Delphi txostena). [Eranskinak 221. or.]

Hiru hizkuntzak ez dira kontrajartzen eta hiruei garrantzi bertsua aitortzen zaie. Gainera, eleaniztasuna balioesteko dagoen adostasun zabala da oso, hiztun mota guztien artean. Bi ñabardura aipagarri daude: bata, erdaldunek euskarari atxikitzen dioten garrantzia, elebidunek eskainitako balio altuarekin alderatuz, zertxobait arintzen dela; bestea, gaztelaniarekin, hiztun mota horien arabera, joera iraultzen dela.

Galdera inkestan: «Zenbateko garrantzia du zuretzat egungo haurrek euskara jakiteak?». Erantzunik aipatuena: *Oso edo Nahikoa handia: %93* (elebidun aktiboek: %98; elebidun pasiboek: %95; erdaldunek: %89).

Galdera inkestan: «Eta gaztelania jakiteak?»; Erantzunik aipatuena: *Oso edo Nahikoa handia*: %95 (elebidun aktiboek: %89; elebidun pasiboek: %96; erdaldunek: %98).

Galdera inkestan: «Eta ingelesa jakiteak?». Erantzunik aipatuena: *Oso edo Nahikoa handia*: %96 (elebidun aktiboek: %93; elebidun pasiboek: %98; erdaldunek: %96). [Eranskinak 388. or.]

Eleaniztasunaren aldeko adostasun horrekin, hala ere, arerio berri bat agertzen zaio euskarari —ingelesa—, hizkuntza horretan ere indarra jartzen den neurrian euskara ongi ikastea zaildu daitekeelako.

«Profesionalen eta enpresa giroetan euskara dagoeneko ez da bigarren hizkuntza, ingelesak gero eta leku gehiago kendu diolako». (Delphi txostena). [Eranskinak 220. or.]

«Gaur egun ingelera jartzen da indarra, ez euskarari, eta gazteek ez dute euskara ondo ikasten» (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

Eta unibertsitatea horren lekuko da.

«Unibertsitatean jarreretan ez dago arazorik, baina jarrerak eta praktikak ez datoz beti bat. Edo, ikasle batzuen gaitasuna ez da behar bezain sendoa eskolak euskaraz eman ahal izateko. Ikerkuntzan oso gutxi erabiltzen da euskara, gure arteko elkarrizketetan eta publikatzeko orduan / UPV/EHUko masterrei dagokienez, eskaintza (aurreko mailatan baino) laburragoa da eta hirugarren hizkuntzaren eskaintzarekin euskara ere erabiltzea da erronka». (Delphi txostena). [Eranskinak 219. or.] / «Euskararen erabilera ezberdina da, tokiaren, fakultatearen eta sailaren (eta unearren) arabera. Eta “ezberdina” hitza kalitateari ere badagokio, neurri jakin batean». (Delphi txostena). [Eranskinak 223. or.]

Horregatik, eleaniztasuna modu egokian ulertu eta kudeatzearen premia aipatzen da. Azterketa bibliografikoko diskurtso egituratuetan ere ezin nabarmenago azaldu da ideia bera: eleaniztasuna ezinbestekoa dela, pluraltasun hori elkarbizitzaren markoan ulertuta.

«Gure gizartean bizikide diren hizkuntzen (ingelesa barne) arteko mugak malguago eta bigunagoak izango dira; batez ere, nahiz ez bakarrik, nagusi ditugun

euskara eta gaztelaniaren artekoak, baina baita ingelesarekikoak ere. Gaur baino askoz naturaltasun handiagoz biziko ditugu hizkuntzen arteko banaketa funtzional eta geografikoak (...). Herritarrak hizkuntza ofizialen artean nahi duena aukeratzeko duen askatasuna da, bide horretan, ardatz nagusia» (Euskararen Aholku Batzordea, 2009, 38-39. or.).

Esandako ikuspegia argi agertu da ikerketaren fase desberdinetan, besteak beste adituekin burututako gizarte foroan.

«Bizikidetzak: Elkar ezagutzeko eta ulertzeko uztardurak bilatu. Hautua ez da izan edo ez izan. Desideologizaziotik bizi behar da, egungo gizartean egoera naturala izango baita hizkuntza bat baino gehiago hitz egitea, gizarte konplexu baten aurrean gaude. Hizkuntzen elkarbizitzarako (bizikidetzarako) diskurtsoa eraiki behar da errealitate eleanitzari erantzuteko. Gizarte eleanitza, eta immigrazioarekin are eta hizkuntza anitzagoa. Berdintasunaren aldeko diskurtsoa. Euskara zentruan duen eleaniztasun baten aldeko hautua era progresiboan». (Gizarte Foroa) [Eranskinak 360. or.]

2.1.4. EZAGUTZA ETA JARRERETATIK, ERABILERARAKO JAUZIA

Gizarteko arlo ezberdinetan igartzen da, hortaz, euskarak aurrerapauso nabarmenak eman dituela: unibertsitatean, giro profesionalean, administrazio publikoan... Aurrerapauso horiek nabarmenak dira diskurtso edo jarrera aldetik, baina ez da hain erraza erabilerarako saltoa ematea.

«Lanean, gero eta nabarmenagoa da euskararen erabilera areagotzeko diskurtso naturala eta esfortzua. Aginte-organismoak azken urteotan hartu dituen erabakiei esker, euskara gero eta integratuago dago eguneroko kudeaketan, eta barrura (langileak) zein kanpora (bezeroak) begira, elementu integratzaile gisa ulertzen da. Izan ere, euskararen erabilera bat dator kalitatezko zerbitzua ematearekin. Eguneroko jardunean oztopoak eta gorabeherak sortzen dira, baina irizpideak eta lerro estrategikoak adostuta eta enpresaren funtzionamenduan txertatuta daude / Euskaldunek hizkuntza bata edo bestea erabiltzen dute, berdin-berdin. Nagusitu den planteamendua hau da: “zuk egizu euskaraz eta nik ulertu ezean, galdetu egingo dizut”. Zoru partekatu baten eredu». (Delphi txostena). [Eranskinak 214. or.]

«Enpresa-eremuan argi eta garbi nagusitzen da gaztelaniaren erabilera / Txiki-zkako merkataritza gizartearen isla da. Banaketa-enpresa handiek bere komunikazioan euskara beharra bezala gehitu dute, natural bezala baino gehiago». (Delphi txostena). [Eranskinak 219. or.] / «Administrazio Publikoan elebitasun formalak dago, oraindik ahozko komunikazio informalean erabat lortu ez dena». (Delphi txostena). [Eranskinak 219. or.]

«Euskara koofiziala dela ezin uka, baina harremanetan komunikaziorako tresna bakarra, egokiena, gaztelania da elebakarrentzat». (Delphi txostena). [Eranskinak 224. or.]

Beraz, euskararen ezagutzan aurrerapauso nabarmenak eman direla pentsatzen bada ere, partaideak kezkatzen dituen da ez dela erabiltzen ikasitako neurri berean. Erabileran lortutakoak ez du asebetetzen kontsultatu askoren aurreikuspena, batez ere, horretara bideratu diren ahaleginak aintzat hartuz gero. Horien ustez, euskararekiko dagoen konpromisoa ez da iristen eguneroko bizitzako hainbat esparrutara erabilera zabaltzeko.

56

«Ezagutzak asko egin du gora; aldiz, arazo nagusia euskararen erabilera urria da: solaskidea ezezaguna denean, erabili hizkuntza nagusia badaezpada; solaskidea elebiduna dela jakin arren erdaraz egiten du / Desoreka dago egindako ahaleginen eta erabilerako lorpenen artean / Euskararen erabilera aldarrikapen politiko gisa ulertzen da askotan». (Delphi txostena). [Eranskinak 215. or.]

«Azken urteotan euskararen erabilerak ez du gora egin nahi bestean eta gizartea egiten ari den esfortzuen maila bertsuan». (Delphi txostena). [Eranskinak 222. or.]

«Euskara sustatzeko adostasunean paralelismoa egin daiteke emakumeen eskubideekin: berez bai, gauza politikoki zuzenak esaten ditugu, baina gero bazoaz begiratzen, gazteen artean, erabilera... eta errealitatean ezintasunak askoz ere handiagoak dira. Aldekotasuna bai, baina nahiko azalean geratzen da». (Gizarte Foroa (talde bateko adostasuna)) [Eranskinak 353. or.]

Erabilera urri hori azaltzeko, hainbat arrazoi edo kausa aipatu dira: badago, alde batetik, legezko estatusaren auzia, lurralde ezberdinetan lege babes ezberdina izatearena; baina badira ere, gizabanako elebidunari eragiten dioten bestelako arrazoiak ere, dela estres linguistikoa, dela disonantzia kognitiboa, etab. Beste arrazoietakoa bat ere bada euskal munduaren txikitasuna.

«Maila aplikatiboan zailtasunak daude, eta aro digitalean are gehiago. Informazio saldoa dugu eta gizarte eleanitz honetan euskaraz dagoena bilatu egin behar da. Gainontzean euskaldun epelentzat ikusezinak dira sarri euskal mundu erreala, nahiz birtuala (zuzeu.com, sustatu.com, argia.com, berria.info, hamaika.tv...)». (Delphi txostena). [Eranskinak 216. or.]

2.1.4.1. PIZGARRI MUGATUAK

Hizkuntza ikasia eta erabilia izan dadin motibazioak behar dira. Hizkuntza *handien* kasuan, komunikaziorako dagoen premia gailentzen zaie bestelako motibazio motei, baina euskararen kasuan ez dago premia hori, «denok dakigu erdaraz», eta, horregatik, euskararen erabilerak bestelako pizgarrien premia du; gizartean erabilera sarituko duten bestelako motiboak.

Aurretik azaldu den bezala, euskara lanerako aukera gisa hautematen da, baina esparru horretan ere saritzen dena gaitasuna da, ez erabilera. Izan ere, askotan euskara soilik titulu bat lortzeko ikasten da, lana eskuratzeko erraztasuna izateko modu bezala, baina behin titulua lortuta ez da erabiltzen.

«Gero ikasten du, gainditzen du azterketa eta ya está». (EA, 18-35, Bilbo) / «Euskera de las oposiciones baina horrekin ez dugu ezer lortuko». (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Sí, por sacar plazas. Y luego esa gente no hablará euskera». (ER, 18-35, Bilbo) / «Oraindik lanpostu ona daukan jendeak ez du euskaraz hitz egiten» (EA, 18-35, Bilbo) / «Badago jende asko euskara ikasten duela lanpostu bat lortzeko eta ez nahi duelako». (EA, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

«[Hizkuntza politika] horren neurri batzuek eragin baitute hein handian gizartean nagusiki zabaldu den hizkuntza-pertzepzio desegoki hau: indarrean dagoen euskararekiko gizarte konpromisoa ez da ailegatzen ingurune sozial, ekonomiko eta kulturaletan hizkuntza erabilera bultzatzera, baizik eta ikastera mugatzen omen da». (Delphi txostena). [Eranskinak 218. or.]

2.1.4.2. IRUDI ESTIGMATIZATUA

Eztabaida-taldeen dinamikaren baitan, partaideei euskarari erantsi zaizkion esanahiei buruz galdetu zitzairen: alde positiboak eta negatiboak. Hau da, esanahi horiekin ados egon ala ez, euskarari buruz berba egiten denean hizkuntza horri lotzen zaizkion kontzeptu, ideia, esanahiei eta abarrei buruz galdetu zitzairen: ideia-zaparrada edo *brainstorming* antzeko dinamika sortuz.

Lanketa horren fruituetan, euskarari lotutako alde negatiboen artean hainbat aipamen ezkor, ilun, topiko eta abar agertu ziren. Horietan kontzeptu eta esanahi oso ezberdinak biltzen dira, baina denak tonu beltz berekoak: euskararen erabilerarako traba izan daitezkeenak.

Euskara: mugatua, infantilizatua, herrikoa, casero e incultos, basarritarrei eta analfabetoei lotuta, lotsa, vergüenza, separatismoa, oztopoa, klitxe, estereotipo, atzeratuta gaude, dificultad, esfuerzo, en desuso... (espontaneoki eztabaida-taldeetan bilduak). [Eranskinak 250. or.]

58 Horien artean aurki ditzakegu, esaterako, euskararen prestigio falta, inposatua izaten den pertzepzioa, kutsu politizatua eta, azkenik, elebidun hainbaten jarrera tematia edo gogorra.

INPOSIZIOA: euskararen gaineko sentimendu edo sentsazio ezkorrena, euskara *inposizioarekin* lotzen dutenen aldetik dator dudarik gabe. Batzuen iritziz, euskara zabaltzearen aldeko planteamenduek beldurra eragiten dute bakoitzaren bizitzan izan dezakeen eraginagatik, eta beldur hori erabilia izaten da euskara *inposizioarekin* lotzeko eta euskararen kontrako jarrerak sortzeko.

«Euskara zabaltzearen aldeko planteamenduek beldurra eragiten dute erdara hutsez ari diren askorengan. Eta beldur hori errazki —eta efikaziaz— baliatzen dakiten batzuk jende sektore handixko bat aurkako predisposizioan jartzeko. Euskara gauzaki bat, oso eta erabateko, zatika-ezina eta absolutoa balitz bezala hartzen denean gertatzen da hori. Euskararen ofizialtasuna aldarrikatzen denean esate baterako, mamu beldurgarria ikusten dute askok horretan. Behar-ituak, bortxatuak izan daitezkeelakoan. Inposizioaren mamua zaila da neutralizatzen». (Delphi txostena). [Eranskinak 239. or.]

«Al final el euskera se está poniendo como algo obligatorio y lo que genera es rechazo» (ER, 18-35, Bilbo) / «Horregatik esaten dut, norbaitek ez badauka interesik, ezin duzu behartu» (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Euskera es mucho imposición». (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Etorri baino arinago lagun batzuekin egon naiz eta esan diet hona nentorrela, eta esan didate “esan denok pentsatzen duguna...” beno, denek ez, baina askok inposaketa bezala ikusten dute euskara» (EP, 36-65, Bilbo) / «No tienes que imponer un idioma». (EP, 18-35, Vitoria-Gasteiz) / «Y no como está pasando ahora que si hablas Castellano te ponen un punto rojo y castigado...». (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

Hainbaten iritziz, hizkuntzarekiko mesfidantza piztu du eremu formalean nolabaiteko derrigortasuna sartzeak, eta batzuek euskara inposizio bezala bizi izan dute: eskolan zein lan munduan. Horiek hizkuntza ikasteko izan dituzten zailtasunak medio, batzuetan hizkuntza horrekiko jarrera mesfidatiak eta ezkorrak garatu dituzte. Behin titulua lortuta, euskararekiko lotura ez da positiboa izan —hainbate-tan frustrantea baizik—, eta bazterrean utzi dute.

«La gente que estudió conmigo para sacar el EGA, que lo hacíamos con mucho cariño y muchas ganas, estaban renegando, diciendo barbaridades de lo que era el euskera y tal... yo veía a la gente que estaba muy preparada en ese camino por la necesidad de ese título, pues tenían unos mosqueos con la sociedad y con el euskera...» (EP, 36-65, Bilbo) / «Yo sé de una chica que empezó a estudiar euskera por gusto y como era enfermera la obligaron a sacarse el perfil 2 y acabo siendo para ella el euskera una tortura». (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Creo que la mayoría de la gente que lo está estudiando lo hace por currículum. Por el título». (ER, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

Horren ondorioz, erabat ahaztuta gelditzen da hizkuntza ikasteak ekar lezakeen erabilera eta, hortaz, funtzio komunikatiboa.

«Yo lo que veo es que si tu única o principal motivación es obtener un título, al final una vez obtienes el título te vas a olvidar y no vas a hacer ningún esfuerzo por seguir con ello. Vas a conseguir el objetivo, que era título, y ya está». (ER, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

Diskurtso hori gailentzen da, batez ere, lan munduarekin, eta bereziki herri-administratioko lanpostuekin lotzen denean euskararen derrigortasuna.

«Euskararen aurkako taldekoekin gerta litezke gatazkak Administrazio publikoko lanpostu eta eskakizunekin bereziki, baina baita hezkuntza arloan ere» (Delphi txostena). [Eranskinak 229. or.]

«Aunque a mí me parece bien que lo pidan porque todas las personas tienen derecho a ser atendidas en el idioma que quieran, pero verlo como inserción laboral me parece que puede generar rechazo». (ER, 18-35, Bilbo) / «Askotan zentzu negatibo batean ikusten da, izan ere askoren muga da euskara behar da lan egiteko, askotan euskara ikusten da betebeharrak bezala» (EA, 18-35, Bilbo) / «Y ahora asocias el PNV o BILDU con el euskera porque te lo intentan imponer para trabajar». (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

Dena den, euskararen inposizioaren diskurtsoaren aurrean, elebidunek beste irakurketa bat egiten dute. Batetik, gaur egun «gozatzen» dugun egoera, aurretik egin den *inposizioari* edo derrigor izateari esker lortu dela diote. Beraz, efektu positiboak ikusten dizkiote. Bestetik, benetako *inposaketa* erdaldunek egiten dutena dela esan dute batzuek, gaztelania bakarrik erabiltzearen eta euskararen erabilerarako espazioak murrizten dituztelako. Urteak hemen egon ondoren euskaraz berba ez egiteak, askotan, haserrea eragin du euskaldunen artean.

60

«Badirudi euskara inposatzen dela eta ez dakit zer, eske bueno ez dakit baina ni joaten naiz nire auzotik eta ezinezkoa da euskaraz egitea» (EA, 18-35, Bilbo) / «Oso erreza da guretzat erderaz hitz egitea, ah ez dakizu, lasai, bagaude beste egunean tipa batekin esan zuen “es de mala educación hablar en euskera” eta esan nien “lo que es de mala educación es estar 20 años aquí y no aprender euskera” eske hori egin behar degu bestela beti izango da». (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

POLITIZAZIOA: askotan, euskara joera politiko zehatz batekin lotua izan da: independentzia zaleekin, abertzaleekin... Eta arma politiko bezala erabilia izan da.

«Gaztelaniadunek hautematen badugu azken helburua independentzia eta hizkuntza bakarreko Estatua direla, zerbitzatuta dago gatazka». (Delphi txostena). [Eranskinak 218. or.]

«Se suele vincular el euskera a la independencia y al movimiento abertzale». (ER, 18-35, Bilbo) / «Abertzaleak eta ez abertzaleak, eta hor egon da guda bat eta kalteua izan da euskara, noski». (EA, 18-35, Bilbo) / «El estereotipo del euskera es

el borroka». (EP, 18-35, Vitoria-Gasteiz) / «Todavía hay algunos debates ideológicos que no están cerrados, y siempre ha sido una lucha y el euskera siempre ha sido un arma arrojadiza» (EP, 36-65, Bilbo) / «Podríamos asociarlo también a una ideología política. Y a un aspecto físico también. Una manera de vestir. Si ves a una persona con una manera de vestir puedes asociar que sabe euskera. O con el corte de pelo, etc.». (ER, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

Batzuek uste dute gainera, hori horrela izan dela, zenbait komunikabidek eta alderdi politikok hori sustatu nahi izan dutelako.

«Hizkuntza baten normalkuntza gizarte sektore eta interesen arteko tira-birak eta egonezina sortzeko gai aproposa bada, gatazkaren arriskua areagotzen da auzian dauden hizkuntzetako bati irudi ideologizatu eta alderdikoia atxikitzen bazaio» (Delphi txostena). [Eranskinak 218. or.]

«La mala publicidad que tiene el País Vasco se extrapola a todo. Entonces el euskera se asocia con solo una ideología política y no, son más cosas. Lo que pasa es que tienes que estar aquí, llevar tiempo viviendo aquí (...) Es lo que se da a ver. Por televisión o donde sea». (ER, 18-35, Bilbo) / «Igual PPKoek edo partidu espainolistek bai saltzen dute abertzaletasun estereotipo hori eta gorroto hori euskararekiko». (EA, 18-35 Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

2.1.4.3. HIZKUNTZA BERAREN ZAILTASUN ETA GABEZIAK

Estigmatizazioaren osagarri bezala, hizkuntzaren beraren ustezko zailtasunak eta gabeziek ere pisu nabarmena hartzen dute.

«Los que no han hablado de txikis y están aprendiendo te dicen que es un idioma difícil» (EP, 18-35, Vitoria-Gasteiz) / «Es un idioma difícil, se tarda mucho en aprender» (ER, Bilbo, 18-35) / «Euskararen arazoa oso zaila dela da» (EP, 36-65, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

Nahiz eta hizkuntzak omen dituen zailtasuna eta erabilera txikia gurpizoroan jiraka interpretatzen dituen baten batek.

«Euskara ez da hizkuntzarik zailena. Egiten ez den heinean da zaila ikastea». (Delphi txostena). [Eranskinak 244. or.]

Hizkuntza zuzentasunez erabiltzeko kezka ere badago gizarte giro batzuetan. Baina gehiegizko kezka erabilerarako oztopo bihur daiteke zenbait kasutan.

«Nahiz eta gutxi jakin, baina ondo jakitea» (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Duzun euskara mailaren arabera, hobeto edo okerrago egin dezakezu, baina ez badozu maila altuenean berba egiten, galdu egiten da hizkuntza» (EP, 36-65, Bilbo) / «Nahiago dut berba gutxi entzun baina ondo, erdarakadaz beteriko elkarizketa bat baino» (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

Arrazoen artean euskararen corpusari dagokionez dagoen harmonizazio eta koordinazio falta ere aipatu da eta aro digitalean maila aplikatiboan sor daitezkeen zailtasunak.

«Euskararen alorrean dagoen armonizazio eta koordinazio sendo baten gabeziak ez dio laguntzen euskararen erabilerari. Honen adibide zuzena, terminologiarena da. Euskararen adituak ez garenontzat, terminologia bateratu bat ez izateak ziurtasun eza sortzen digu eta lana ere». (Delphi txostena). [Eranskinak 215. or.]

2.1.4.4. TRABA PSIKOSOZIALAK

Ikasi dutenen artean, erabilerarako beste muga bat ere aipatu da: guztiz menderatzen ez den hizkuntza bat erabiltzeko konfiantza falta edo lotsa, gaizki egitearen edo epaitua izatearen beldurra. Ugariak dira, gainera, mota horretako testigantzak.

«Elebidun garen hiritarrok uste duguna baino askoz gaztelania gehiago darabilgu buruetan egun arrunt batean. Horrek neurodiglosia sakon bat sortzen du». (Delphi txostena). [Eranskinak 216. or.]

«Por falta de confianza. He intentado otra vez recuperar el euskera pero he visto que no estoy igual de ágil que antes y me freno» (ER, 18-35, Bilbo) / «No lo usamos por lo que has comentado, que nos da vergüenza. No tienes confianza porque no controlas el idioma y tienes miedo a meter la pata». (ER; 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

«Beldurra dago bebai txarto hitz egitera eta hori frenatzen du pilo bat gauzak». (EA, 18-35, Bilbo) / «Azkenean gaztelera lehen hizkuntza izanda euskara ikasi dugunok, beldurra izaten eta beldurra kentzen ikasi dugu» (EA, 18-35, Bilbo) / «Bai exigentzia bai, igual askotan euskaldun berriekin beti zaude zuzentzen» (EA, 18-35, Bilbo) / «Que no te miren raro». (ER, 18-35, Bilbo) / «Yo creo que lo más importante es quitar el miedo» (EP, 18-35, Vitoria-Gasteiz) / «Que si te equivocas o lo que sea no pase nada». (ER, 18-35, Bilbo) / «Esa competitividad, porque igual el que está a tu lado habla mejor que tú euskera y entonces tú te cortas». (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Yo creo que se permite hacerlo mal lo único que está en nuestra cabeza la vergüenza. Hay que quitarse esa sensación de vergüenza. Si lo haces mal seguramente no es el otro el que te diga “lo estás haciendo fatal”, posiblemente seas tú el que se está martirizando a sí mismo». (ER, 18-35, Bilbo) / «Estaban hablando entre ellos en euskera y no entendía nada. Al final te da tanta vergüenza intentar hablar que pasas de hacerlo». (ER, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

Euskararen arnaguneetan ere, hots, euskaldunek pisu demografiko handia duten guneetan, erabilerak baditu bere zailtasunak: besteak beste, jendearen erdarara jotzeko joera, batez ere, solaskideetako batek euskara menperatzen ez badu; eta, euskaraz gaizki egitearen beldurra.

«[Arnaguneetan] normaltasunez bizi da euskaraz baina aldeko jarrera pro-aktibo gutxi ikusten da. Alegia erdaldun bat badago normaltasunez erdarara jotzen da. Euskaldun batzuk ohitura badute erdaraz egiteko haien artean. Erdaldunen partetik ez da ikusten ezer berezirik, hori bai euskara haien testuinguruan egon badagoela konturatzen dira; egunerokotasunean euskarak bizitza normala duela ikusten dute. Gatazkarik ez da atzematen euskaldunek barneratzen dutelako gatazka osoa, normaltasunez erdarara pasatzean erdaldun bat presente dagoenean. Erdaldunari euskararenganako pausu bat egiteko eskatuko baliokete agian nabariagoa eta agerikoa litzateke gatazka. Jarreraren aldetik oraindik oso zabalduta dirudi euskaldunen artean “euskara gaizki egiten dut” bezalakoak, alegia gaizki hitz egiteko sentsazioa eta eredu ona ez dela haiena pentsatzeko joera». (Delphi txostena). [Eranskinak 220. or.]

2.1.4.5. KONTSUMO KULTURALAREN MUGAK

Beste adibide bat kulturgintzakoa dugu. Bertan euskarazko sorkuntza oso aberatsa da, baina desoreka nabarmena da kontsumoarekin. Askotan programatu ere ez dira egiten euskal produktuak ikuslerik izango ez duenaren beldur.

«Gatazka baino, frustrazio puntu bat, agian. Kultur sorkuntzaren eta kontsumoaren arteko talka edo desoreka. Nolabaiteko mikro mundua sumatzen dut kulturgintzan, eta are gehiago literaturan. Kalitatezko sorkuntza dago, anitza, baina ez da ezagutzen. Kanpoko eraginak jasotzen dira eta horrek gure sorkuntza aberasten du, baina guk egindakoak eragiten al du kanpoan? Gainera, zenbait sektore elebakarretan oraindik euskaraz sortzen den kultura folkloreakin nahasten da, ondorioz, euskaraz sortzen den oro bigarren mailakoa da / Kultur programatzaileen artean nolabaiteko beldurra dago oraindik, euskarazko ekimenak eskainiz gero hartzailerik ez dela izango, gutxi joango direla... Aurreiritzi gehiegi eta ausardia gutxiegi». (Delphi txostena). [Eranskinak 219. or.]

2.1.5. HIZKUNTZA POLITIKA EZTABAIDAGAI

Hizkuntza gutxitu bat ofiziala egin eta gero, berez dator hizkuntza politika bat adostu eta indarrean jartzea. Politika horrek, arrakastatsu gertatuko bada, gizartearekin bat egin behar du. Alegia, maila instituzionalean landutako konpromisoa gizarteratu egin behar da. Baina, euskararen inguruko hizkuntza politika batzuk oso eztabaidatuak suertatzen dira, eta ez dute erabateko babesik lortzen herritarren artean.

Aurretik aipatu bezala, badira euskara-politikaren inguruan kontrajarritako hainbat diskurtso, bereziki, gehiegi egin dela uste dutenen eta gutxiegi egin dela uste dutenen artean.

«Gatazkarik ba al dago? Elebidunon artean uste zabala da gatazkarako arrazoi ugari daudela, etengabeko gatazkan egoteko, eta eskubideen diskurtsoari lotuko bagina, elebidunen eta elebakarren arreo gatazka areagotu egingo litzateke. Inor ez dago konforme, egindakoa oso gutxi edo gehiegi dela esaten dutelako. Halere ez da muturrera eramaten, bakean bizi ahal izateko». (Delphi txostena). [Eranskinak 215. or.]

Egiten denaren sakontasunaren gaineko zalantzek badute ikuspegi ekonomikoa ere. Izan ere, baliabide publikoak horretara bideratzea lekutan dago giro batzuetan *inbertsio* gisa ulertua izatetik. Krisiak aurkako sentsibilitate hori areagotu du, *gastuak* beste lehentasun batzuk dituela baieztatuz.

«Garai zail hauetan, dirua euskararen kontuetan xahutzea pena handia dela, eta ea merezi duen». (Delphi txostena). [Eranskinak 224. or.]

«Batzuk nekatu samar, Euskal Herria ez delako euskaldun oraindik; eta beste hainbat kexati eta haserre puntu batekin, azkarregi ari garelako eta alferrikako indarrak eta sosak xahutzen ari garelako». (Delphi txostena). [Eranskinak 216. or.]

Eta ez da bakarrik gehiegi edo gutxiegi egitearen kontua, eztabaida ematen da egiten den hori zein abiaduratan egin behar den, edo lor daitekeenaren eta lorgarria ez denaren artean ere.

«Hor kokatzen da gero gizarte mailako eztabaida, elebiduntze hori egiteko modua zein den, zer den «azkar» joatea, zer «mantso», zer den lorgarria, noizko izan litekeen, eta abar». (Delphi txostena). [Eranskinak 229. or.]

«Erakunde barruan denetik dago: laguntzeko prest daudenak eta bakean uzteko sentiarazten dutenak. Araba euskalduna aldarrikatzen dutenak eta «Háblame en cristiano» diotenak. Batzuek, azkarregi goazela eta, beste batzuek, oso poliki goazela adierazten dute. Hizkuntza Politika egitea egokia dela baina batez ere eta ia soilik hezkuntzan, horrekin euskara biziko da eta. Baina, badira ere orain arte egindakoari so eginez, argi eta garbi azpimarratzen dutenak eskolan ikasi dutenarekin bakarrik ez dela lortzen ezer, itxura bakarrik». (Delphi txostena). [Eranskinak 224. or.]

Halere, sakontasun edo azkartasun kontua izan, inkestako datuek erakutsi dute herriar gehienek babesten dutela, hainbat sektoretan euskararen presentzia orain baino handiagoa izatea.

Galdera inkestan: «Aipatuko dizkizudan eremu hauetako bakoitzean euskararen presentzia areagotzeko, uste duzu instituzioek lan egin behar dutela orain baino askoz gehiago, pixka bat gehiago, orain adina, orain baino pixka bat gutxiago edo orain baino askoz gutxiago?». Erantzunik aipatuena: *Orain baino askoz gehiago edo pixka bat gehiago.*

- *Lantokietan*, biztanleriak: % 59 (elebidun aktiboek: % 89; elebidun pasiboek: % 64; erdaldunek: % 44).
- *Osasun zentroetan*, biztanleriak: % 59 (elebidun aktiboek: % 90; elebidun pasiboek: % 65; erdaldunek: % 42).
- *Aisialdiko ekintzetan*, biztanleriak: % 55 (elebidun aktiboek: % 94; elebidun pasiboek: % 63; erdaldunek: % 41).
- *Hedabide eta Interneten*, biztanleriak: % 52 (elebidun aktiboek: % 83; elebidun pasiboek: % 62; erdaldunek: % 35).
- *Merkataritzan: denda eta tabernetan*, biztanleriak: % 55 (elebidun aktiboek: % 88; elebidun pasiboek: % 63; erdaldunek: % 38). Puntu honetan, erdaldunek hobetsi duten erantzuna ez da izan *Orain baino askoz gehiago* edo *pixka bat gehiago*, baizik eta *Orain adina*: % 44. [Eranskinak 388. or.]

Azken buruan, botere publikoen interbentzioa onartua dagoela dirudi, orain arte bezala ez ezik, are neurri handiagoan ere bai.

2.1.6. EUSKARA LAN MUNDURAKO SARRERA

Litekeena da, euskararen alde hartutako neurrien artetik eztabaidatuena lan munduarena izatea. Euskara lan mundurako —lana bilatzeko edota lanpostuan ikastera derrigortuta— tresna dela esatean gehiengo zabala (bai eztabaida-taldeetan, bai inkestan) bat datorrela esana dugu. Gehitu dugu ere horrek haserrea pizten duela zenbait herritarrengan. Izan ere, batzuek —batez ere erdaldunek, baina ez bakarrik— derrigortasun hori inposizio eta diskriminaziotzat hartzen dute.

«Administrazioan hainbat langile sartu direla euskarari esker, eta ez jakiteagatik diskriminatuta geratu dira besteak». (Delphi txostena). [Eranskinak 224. or.]

«Beharrezkoa den hizkuntzan bilakatu da» (EP, 36-65, Bilbo) / «Beharra da, ez nahia» (EP, 36-65, Bilbo) / «En el euskera está la criba» (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

Zalantza da diskriminazio sentimendua zinezko bizipenetan sustraituta dagoen ala maila diskurtsiboko irudikapena ote den. Izan ere, elebiduna izan edo erdalduna izan, biztanleriaren gehiengoak aitortzen du ez ohi duela diskriminaziorik paira-

tzen. Hala ere, euskaldun aktiboen artean proportzio aipagarria da, euskara egunerokoan erabiltzen saiatzearen ondorioz, diskriminatuta sentitu dena. Erdaldunak, aldiz, gutxiago dira euskara ez jakiteagatik sentimendu hori izan dutenak.

Galdera inkestan: Hizkuntza dela eta, inoiz sentitu zara diskriminatuta? Euskara erabili nahi izateagatik *Askotan* edo *noizean behin, biztanleriak*: %11 (elebidun aktiboek: %42; elebidun pasiboek: %13). [Eranskinak 388. or.]

Galdera inkestan: Hizkuntza dela eta, inoiz sentitu zara diskriminatuta? Euskaraz ez jakiteagatik *Askotan* edo *noizean behin, biztanleen*: %11 (erdaldunek: %20). [Eranskinak 388. or.]

Gainera, herritarren gehiengoak eta, zehatzago, hiztun-profil guztietakoek onartu dute lanpostu batzuetarako euskara eskatu egin behar dela, euskaldunen eskubi-dea bermatu ahal izateko.

Galdera inkestan: «Zenbait lanpostutarako euskara jakitea exijitu beharko litzateke». Erantzunik aipatuena: *Guztiz ados* edo *Nahikoa ados*, biztanleriak: %71 (elebidun aktiboek: %92; elebidun pasiboek: %78; erdaldunek: %58). [Eranskinak 388. or.]

Galdera inkestan: «Saltoki, enpresa eta administrazioan bezeroen nahia errespetatu beharko litzateke euskaraz zein gaztelaniaz artatuak (atendituak) izateko». Erantzunik aipatuena: *Guztiz ados* edo *Nahikoa ados*, biztanleriak: %90 (elebidun aktiboek: %91; elebidun pasiboek: %93; erdaldunek: %89). [Eranskinak 388. or.]

2.1.7. HIZKUNTZA, BI KOMUNITATEEN ARTEKO GATAZKAREN ERDIGUNEAN

Arrazoiak batzuk edo besteak izan, gizartean euskara maiz erabili izan da eztabaida edo gatazkarako aitzakia bezala: bi komunitateen arteko gatazkaren erdian, eta aurreko puntuan aipatu dugun moduan, eztabaida politikoaren erdian ere bai.

Batzuen ustez, gatazkaren arrisku hori mesfidantzak elikatua izan da, eta horrek kalte handia egin dio hizkuntzari. Mesfidantza arestian aipatu diren hiru ideiatan gauzatua izan ohi dela dio partaideetako batek: euskara inposatua dela, ikasteko zaila dela eta ez dela erabiltzen.

«Gaur egun euskararen normalizazioari sekulako kaltea egiten dioten hiru marko oso indartsu daude, eta, zoritxarrez, euskaltzaleok ere askotan errepikatu eta indartzen ditugu: inposizioaren markoa, euskara zaila da markoa eta euskara ez da erabiltzen markoa». (Delphi txostena). [Eranskinak 244. or.]

Euskararen normalizazioan dihardutenek erabiltzen dituzten diskurtsoen aurrean (elkarbizitza, justizia, eskubideak eta nortasuna bezalako kontzeptu abstraktuekin), mesfidantza mota horiek pragmatikoagoak eta objektiboagoak dirudite, eta horregatik lortzen dute oihartzun handiagoa. Eta horiei aurre egitea zailagoa dela diote.

«Orain arte elkarbizitza, justizia/eskubideak edota nortasuna bezalako kontzeptuetan oinarritu ditugu gure markoak, funtsean balio kolektibo eta emozionaletan. Aldiz, gure aurka erabiltzen dituzten hiru horiek ez dira hain abstraktuak, pertsonalagoak dira eta arrazionalagoak edo pragmatikoagoak». (Delphi txostena). [Eranskinak 244. or.]

Aditu batzuen iritziz, hala ere, normala da hiztun komunitateen arteko gatazka sortzea, batzuen eta besteen eskubideak aldarrikatzen direnean. Eta gatazka horiek, hauen ustez, ez dute gainera irtenbide erraza izaten.

68

«Hizkuntza gutxitu bat ofizialtzat hartzeak hiztunentzako dakartzan eskubideek hizkuntza-komunitateen arteko gatazka sor dezakete, zeinak ez dira bideratzeko errazak izaten. Ia-ia ezinbestekoa da hizkuntza eskubideetan oinarritutako legeria izanik, Framing Aldarrikatzailea eta Framing Uzkurra izatea gurean eta ur horietan igeri eginez aurrera jarraitu behar da». (Delphi txostena). [Eranskinak 222. or.]

Baina gatazka hori normaltasunez bizi dutenak ere badira.

«Esku sartzeko publikoa beharrezkoa denean joera kontraesankorrak agertzen dira arlo guztietan (migrazioa, genero berdintasuna...), beraz, hizkuntza gatazka ere badagoela ez da ezkutatu behar, baina dramatizazioa kenduz, ez da arazo bakarra eta beste kontuetan izaten den ardura eta kemena erakutsi behar dute agintariek gai honetan ere» (Delphi txostena). [Eranskinak 222. or.]

Dirudienez, gainera, euskara gatazkarekin lotzearen irudi hori aldatzen ari da, batez ere, herritarrekin egindako eztabaida-taldeetan ikusten denez. Agian, politika munduan gehiago erabiltzen da euskara gatazka tresna bezala, baina herritar arrunten artean hori ez da horrenbeste ematen.

«Yo creo que la sociedad somos bastante más normales que los políticos». (ER 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Si pero yo creo que ya está superado» (ER 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Los dirigentes del PP de este país hablan en euskera. Para mí solo lograr eso ya es un logro. Y que además lo utilizan. Hace unos años eso era súper opuesto. Independientemente de tu ideología política hablas o no hablas euskera. También conocemos a gente macro abertzale que la puede cagar con el euskera porque no lo sabe bien del todo. Yo creo que ha habido un avance extraordinario en la lengua como para tener esos dos ejemplos». (ER 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]


2.2. Euskararen inguruko diskurtsoak, gizartean

EAEko herritarren diskurtsoen, balio linguistikoen eta motibazio mota ezberdinen hedapen eta pisu soziala ezagutzeko asmoz, 33 galdera egin zaizkio biztanleriaren lagin adierazgarri bati. Horrela, esaldien esanahien aurrean herritarrek dituzten jarrerak zein iritziak —aldekoak, kontrakoak edo indiferenteak— bilatu dira kasu batzuetan, eta uste batzuei aitortzen dieten garrantzi maila ezagutzea, bestetan.

Ondoren, jasotako emaitzak estatistikoki landu dira, faktore-analisia baliatuz. Horrek aukera bat zabaldu digu: gizarteak jarrera, iritzi eta uste horien inguruan emandako erantzunek nolako erlazio estatistikoa duten elkarrekin ezagutzea. Harreman hori oinarri, hasierako 33 esaldi edo galderak bost faktoretara ekarri dira estatistikoki. Alegia, euskarari buruz inkestatuek adierazitako ideia, sentimendu edo usteen arteko loturen arabera, erantzunak bost multzo diskurtsibo edo faktoretan bildu dira. Ondoren, bost faktore horien esanahia inferitu da, multzo bakoitzeko esaldiek jasotzen dituzten ideien arabera. Horrela bataiatu ditugu bost multzo edo diskurtsoak: *errespetuarena*, *balio pragmatikoarena*, *sustatzailea*, *aldarrikatzailea* eta *mesfidatia* [Ikus eranskinetan: *aldagai anitzeko analisia 456. or.*].

2.2.1. DISKURTSOEN GIZARTE ONARPENA

Ondoko grafikoan ikus daitezke bost faktoreek EAEko gizartean lortu dituzten onarpen maila ezberdinak: *Oso ados*, *Nahikoa ados*, *Ez oso ez gutxi*, *Adostasun txikia* edo *Batere ados ez*.



70

Segidan azalduko dira diskurtso bakoitzak lortu duen babesa eta zein den diskurtso bakoitzean kokatu diren herritarrengan nagusitzen den soslaia. Hala ere, horren aurretik gogorarazi behar dugu —gorago esan bezala— diskurtso hauek ez direla baztertzaileak elkarren artean. Diskurtsoak ideia ezberdinez osatuak daude, eta pertsona berak diskurtso ezberdinetako ideiak babes ditzake, batzuetan kontraesankorrek diruditen arren. Hots, diskurtso aldarrikatzaileko ideiekin ados dagoen pertsona, sustatzaileko ideiekin ere ados egon daiteke, eta horrela gertatu da gurean ere.

Bestalde, diskurtso mota bakoitza babesten duten pertsonen profilen (adin, jatorri, bizi diren gune soziolinguistiko, esker/eskuin ardatzeko kokapen, ikasketa maila, abertzaletasun/espainiaritasun ardatzeko kokapen eta abarren) azterketa landu dugu. Horrela eginez, diskurtsoak gizartean nola banatzen diren zehatzago eza-gutzera iritsi gara: zein sektore edo kolektibok babesten duen diskurtso mota bat edo bestea edo zein herritarrengan ahulagoak diren, adibidez.

Esandako lanketa horien emaitzak, diskurtsoz-diskurtso eskainiko dira hurrengo ataletan.

2.2.2. ERRESPETUAREN DISKURTSOA

Errespetuaren diskurtsoa da gizartearen aldetik onarpen mailarik handiena jaso duena, horretan kokatu direnek gehiengo absolutua (% 97) osatuz. Alegia, bertan biltzen diren ideiak ia biztanleria osoak egiten du bere. Inortxok ere ez du diskurtso hau gaitsetzi —*gutxi* edo *oso gutxi* baloratuz—, eta %1 baino ez da erdibidean gelditu *ez asko, ez gutxi* erantzunez. Hauek dira faktore-analisiak diskurtso honetan elkartu dituen ideiak:

- Euskaldunen eta erdaldunen arteko errespetua bultzatu behar da (*oso* edo *nahikoa ados* % 93).
- Bakoitzak du eskubidea zein hizkuntza nahiago duen aukeratzeko, beste aukera ere errespetatuz (% 93).
- Saltoki, enpresa eta administrazioan bezeroen nahia errespetatu beharko litzateke euskaraz zein gaztelaniaz artatuak izateko (% 90).
- Guztiok, euskaraz ez dakitenek ere, harro sentitu beharko genuke hemen, eta ez beste inon, euskara dugulako (% 84).
- Euskaldunek ulertu behar dute pertsona askok ezin dutela euskara ikasi (% 80).
- Ahaleginak egin behar dira euskara eta gaztelania maila berean egon daitezzen, ez bata bestearen gainetik (% 75).

2.2.2.1. ERRESPETUAREN DISKURTSOAREN ESANAHIAN SAKONDUZ

Estatistikoki erabat nabarmendu den *errespetuaren diskurtso* hau, agerikoa izan da han-hemenka bildutako bestelako informazioan ere. Gako-idea da errespetuarena, eta gizartearen zati handi batek bide horretatik jotzen bide du.

Beste batzuek: «El principio de libertad de opción lingüística debe mantenerse como la base de todo el sistema. Sobre ello fue posible el consenso de 1982 y sin ello no es posible consenso alguno. Libertad de lengua, básicamente, también en la escuela». (Diskurtso egituratuak: 3). [Eranskinak 37. or.]

«Diskurtso berri bat eraiki dezakegu bizikidetzan oinarritua, integratzailea, bai pertsonen artean eta baita hizkuntzen artean ere. Komunitate politiko bat osatzen ari gara eta hor euskarak toki egokia eduki behar du» (Adituen Foroan gehien nabarmendu zen ideia). [Eranskinak 343. or.]

«Ez gaude hizkuntza arteko gatazka egoera batean» / «Dagoeneko diskurtso integratzaile berria ari da hedatzen, eta atxikitako pisu ideologikoa arintzen ari zaio euskarari» / «Bi muturretako diskurtsoen artean badago gunee isila, diskretua eta zabala: euskara sustatzearen ez alde eta ez kontra ageri direnak; euskararen ikuspegi politikorik edo alderdikorik ez duten herritarrik». (Delphi txostena). [Eranskinak 213. or.]

Errespetuaren joera horretan gizarteak zentzudun jokatzeko duen ustea aipatzen da sarri, batzuetan arduradun publikoek adierazten dutenaren aurretik.

«Mutur bakoitzeko iritziak jarri dira nabarmen... Kanean entzuten duzun gehiena ez da alde batean edo bestean jartzen... Jende gehiena alde dago egiten denarekin...». Gizarte Foroa (talde bateko adostasuna) [Eranskinak 340. or.] / «Kaleko jendea ez dago hain polarizatua mutur linguistikoen artean». Gizarte Foroa (saio osotik mezua-ñabardura) [Eranskinak 343. or.]

«Herritarrik argiak dira eta hobesten duen hizkuntza erabiltzen du, betiere solaskidearekiko errespetua tarteko» (Delphi txostena). [Eranskinak 213. or.]

Eztabaida-taldeetako herritarren artean ere adostasun handia dago aitortzean errespetuaren bidean azken urteotan eman diren aurrerapausoak.

«Hori ia bukatu da edo bukatu zan edo lo que sea, eta ez da hainbeste lotu behar politikarekin». (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Si pero yo creo que ya está superado» (ER 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Yo es que cada vez veo menos diferencias, es decir, que se va normalizando todo... en ciertos entornos sí que habrá diferencias pero cada vez menos». (ER 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

Baina, pertsona adituen zein herritarren ustetan, errespetuaren bide horretan badaude oraindik gainditu beharreko trabak, askotan interes ideologikoen mesedetan suspertuta.

«Hizkuntza kontuetan ezin gara inor besteen gainetik sentitu, ez euskal hiztunak erdal hiztunen gainetik, ez alderantziz, baina ezta euskal hiztun abertzaleak ez abertzaleen gainetik, eta abar. Tolerantzia ariketa bikainak egiteko aukera paregabeak ematen dizkigu hizkuntzen zelaia». (Delphi txostena). [Eranskinak 230. or.]


«Bai baina batzuk ez dute nahi gainditu... interesatzen zaio eztabaida hori mantentzea eta gatazka hori mantentzea». (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Azkenean euskara gorrotatzearena eta horrelako gauzak, holako egoerengatik sortzen dira. Nire ustez, bi eremu borrokatzen ari dira. [...] Azkenean batzuk aukeratzen dute gure ideia hartzea, baina beste askok influentzia pila bat hartzen dituzte, eta influentzia horiek beren ideologia moldatzeko esaten dizkiote. Eta nire ustez hori da agian gorroto hori sustatzen duen azpiko zerbait; hori izango litzateke arrazoi bat, komunikabideak azken finean». (EA,18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

2.2.2.2. ERRESPECTUAREN DISKURTSOAREN BANAKETA⁴

Errespetuaren diskurtsoaren onarpena hain da nagusi gizartean, non kolektibo ezberdinen arteko diferentziak ia ohartezinak diren. Zerbait aipatzekotan, euskaldunen proportzioa oso altua edo altuena duten udalerrietako kasua —4. gune soziolinguistikoa—, non onarpen maila, ia erabatekoa izanik ere (%90), zertxobait ahultzen den.

4. Faktore edo diskurtsoen profilak aztertzeke talde hauek osatu ditugu, inkestak bildutako informazioa baliatuta: adina (18-29, 30-45, 46-64, ≥65), hizkuntza gaitasuna (elebiduna,


4. GRAFIKOA. Errespetuarena *



74

elebidun hartzailea, erdalduna), hiztun tipologia (elebidun aktiboa, elebidun pasiboa, erdalduna), diskriminazio sentrazioa (euskaraz egiteagatik diskriminatua ala ez; euskara ez jakiteagatik diskriminatua ala ez), identitatea (euskal herritarra batez ere, euskal herritarra bezain espainiarra, espainiarra batez ere), euskal abertzalea edo nazionalista (euskal abertzalea, ez euskal abertzalea), ezker eskuin eskala (ezkertiarra, zentrokoa, eskuindarra), ikasketak (1. mailakoak, 2. mailakoak, goi mailakoak), zein hizkuntzarekin identifikatzen den gehien (identifikazioa euskararekin, gaztelaniarekin, biek), euskararekiko interesa (handia, ertaina, txikia), jatorria (bertakoa, familia bertakoa; bertakoa, familia mistoa; bertakoa, familia etorkina; etorkina, euskararen lurraldetik kanpoko), guneko soziolinguistikoa (1. gunea, 2. gunea, 3. gunea, 4. gunea).

4. GRAFIKOA. Errespetuarena*



* Grafikoan agertzen diren datuak Oso ados eta Nahikoa adosen batuketa dira.

Ondorioa oso argi dago: *errespetuaren diskurtsoak* onarpen unibertsala —edo ia unibertsala— du gure gizartean, hizkuntzaren gaineko bestelako ikuspegien aurretik.

2.2.3. BALIO PRAGMATIKOAREN DISKURTSOA

Euskarari *balio pragmatikoa* aitortzen dioten ideiak ere onarpen maila handia du gizartean, %85 multzo horretako esaldiekin gehienbat *oso* edo *nahikoa ados* da-goelako. Dena den, diskurtso honekin adostasun *gutxi* edo *oso gutxi* adierazten duen multzoa (%9) ere badela aipatu behar da, batez ere *errespetuaren diskurtsoan* halakorik ez zegoela gogoratzen badugu. Gainera, diskurtso honen aurrean erdibidean gelditzen direnak —*ez asko, ez gutxi* baloratuz— beste %4 dira. Alegia, badaude gizartean zalantzak edo desadostasunak euskarak duen Balio Sozialaren inguruan, nahiz eta horien guztien multzoa ez izan handia (%13).

Hona hemen, faktore-analisiak diskurtso hau osatzeko hartu dituen esaldiak:

76

- Gaur egun, euskaraz jakiteak aukera gehiago ematen dizkio pertsona bati (*oso* edo *nahikoa ados* %86).
- Euskara jakiteak laguntzen du hemengo gizartean eta kulturaren integratuago egoten (%79).
- Euskara gero eta beharrezkoagoa da lana eskuratzeko (%76).
- Gaur egun, euskaraz jakiteak prestigio gehiago ematen dio pertsona bati (%47).

2.2.3.1. BALIO PRAGMATIKOAREN DISKURTSOAREN ESANAHIAN SAKONDUZ

Balio pragmatikoaren inguruko ikuspegi orokorra hedatzen ari omen da, jasotako iritzi batzuen arabera.

«Gero eta zabalagoa da herritarren artean euskara erabiltzeko dagoen konbenzimentua» / «Euskara ondo kokatuta dago Internet eta teknologia berriak integratzeko». (Delphi txostena). [Eranskinak 212. or.]

Euskarari balio pragmatikoa aitortzen zaio bereziki hizkuntza horrek hedapen handia duen lurraldeetan.

«Euskarak gainontzeko lurraldeetan baino askoz baldintza aldekoagoak dituzenez, espero zitezkeen euskarak jasotzen duen gizarte onarpen zabala: Gipuzkoan, oro har, euskarak lortu du erreferentzialtasun minimo bat eta erdaldunek antzeman dezakete zerbait galtzen ari direla euskara ez jakitearren. Euskaltzaletasuna nagusi izaki, euskarak estatus bat lortua du». (Delphi txostena). [Eranskinak 214. or.]

Hala ere, errekonozimendu hori zabaltzen da jardun-gune eta egoera batzuetara, egunerokotasunaren eskutik, hala nola ikasketetan eta lan munduan.

«Unibertsitatean gertatu den aldaketa aipagai dute batzuk, euskararen hedapenean zein hartutako neurri zehatzetan: ...uste dut euskarak prestigioa duela unibertsitatean. Euskaraz eskeintzen den irakaskuntzak beste erdaretakoak bezalako prestigioa du; irakaslego elebidunak goi mailako ikerketa egiteko inolako arazorik ez duela demostratu du...» / «Diskurtso mailan ezik, eguneroko aplikazioan ere euskarak adostasun maila handia lortu du unibertsitatean». (Delphi txostena). [Eranskinak 213. or.]

«Enpresen arloan beste diskurtso bat nagusitzen ari da: bezeroen hizkuntzan egitea, zerbitzuari begira, enpresa hobetzeari begira, ez uzkurra ez aldarrikatzaileria. Gehiena funtzionala. Hor guretzat badago argumentu sorta potente bat. Eta hori gizarteari trasladatu behar zaio». Gizarte Foroa (talde bateko adostasuna). [Eranskinak 342. or.]


«Para el desarrollo profesional» (EP, 18-35, Vitoria-Gasteiz) / «Ni oraintxe bertan jarriko banintz euskaltegi baten ba EGA ateratzeko, ikasiko nuke ‘por la inserción laboral’ eta horrelako gauzengatik» (EA, Donostia-San Sebastián, 36-65). [Eranskinak 250. or.]

Askotan, euskararen alde ez da norberagatik egiten, hurrengo belaunaldietako eredu edo lagungarri izateko baizik.


«Si me apunto al euskaltegi no será para sacarme el título sino para hablarlo con mi hija» (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Para poder ayudar con los deberes» (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

2.2.3.2. BALIO PRAGMATIKOAREN DISKURTSOAREN BANAKETA

Gizartean diskurtso honek erdiesten duen batez besteko onarpena % 85koa izanik, hortik gora nabarmentzen diren onarpen maila altuenak (%90) *euskal herritar*, *euskal abertzale* eta *eskuineko* ideologiarekin bat egiten duten pertsonenak dira. Jarraian datoz 3. *gune soziolinguistikoko* udaletako bizilagunak (%89), eta %88ko portzentajearekin hurrengo guztiak: *euskararekin zein gaztelaniarekin* identifikatzen direnak, *euskara ez jakiteagatik diskriminatuak sentitu diren erdaldunak*, *euskararekiko interesa handia* adierazi dutenak, *ezkertiar* sentitzen direnak, eta *euskaraz gutxitan egin ohi duten elebidun pasiboak*.



5. GRAFIKOA. Balio pragmatikoarena*



* Grafikoan agertzen diren datuak *Oso ados* eta *Nahikoa ados*en batuketa dira.

Diskurtso honetako onarpen mailarik apalenean —baina, betiere onarpen zabalarekin— aurki ditzakegu *euskararekiko interes txikia* adierazten dutenak (% 74), *espainiar* sentitzen direnak (% 75) eta *familia etorkineko bertan jaiotakoak* (% 80), batez ere.

Hortaz, hauxe ondorioztatu daiteke: euskarari, arestian nabarmendu diren balio identitarioa zein kulturala ez ezik, gaur egun balio pragmatikoa ere atxikitzen zaio gizartearen gehiengo zabalean.

2.2.4. DISKURTSO SUSTATZAILEA

Diskurtso *sustatzaileak* gertu-gertutik jarraitzen dio *balio pragmatikoaren diskurtsoari*. Biztanleriaren % 82 *oso* edo *nahikoa ados* daude multzo horretako esaldiekin, eta horien inguruko zalantzak (% 9) eta desadostasunak (% 5) % 14 dira guztira:

- Garrantzia du euskaldunek nahi duten lekuetan euskara erabiltzeko aukera izateak (*oso edo nahikoa ados* % 87).
- Euskara ez dakitenek ere euskararen normalizazioa babestu beharko lukete (% 87).
- Guztion hizkuntza eskubideak errespetatuko dituen akordio bat lortzearen garrantzia (*oso edo nahikoa garrantzitsua* % 86).
- Garrantzitsua litzateke Euskadiko biztanle gehienek euskara ikastea (% 83).
- Erdaldunek, euskaraz ez ulertu arren, onartu behar dute euskaldunek beraien artean euskaraz egitea (% 71).
- Euskara jakitea ezinbestekoa da herri honetako kide osoa sentitu ahal izateko (% 45).
- Hemen euskaldunen eskubideak urratu egiten dira (% 29).

Esaldien edukiei erreparatuz, bi ideia nabarmentzen dira. Lehen ideia da, *errespetuaren diskurtsoarekin* bat datorrela diskurtso *sustatzailea* hiztunen eskubideak errespetatu behar direla esatean. Bigarren ideia: *errespetuaren diskurtso*tik bereizgarri garbia da, eskubide horiek, batez ere, euskararen aldeko ikuspegitik hautematea. Hortaz, *errespetuaren diskurtsoan* bezala, honetan ere akordio zein elkarbizitzari leku nabarmena egiten zaie, baina aldi berean azpimarratzen da, bide horretan euskara ardatz hartuta, batez ere erdaldunek ahalegindu behar dutela.

2.2.4.1. DISKURTSO SUSTATZAILEAREN ESANAHIAN SAKONDUZ

Zenbakietatik harago, ikuspegi juridikotik begiratuta aintzat hartu behar da Europan nagusi den ikuspegiak, hizkuntza gutxitua zaindu beharra dagoela ipar hartuta, oinarri sendoa ematen diola diskurtso sustatzaileari. Izan ere, horrela dio *Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna*-k⁵ Espainiak onartua ez ezik, berretsia ere baduenak⁶.

«La protección y el fomento de las lenguas regionales o minoritarias (...) representa una contribución importante a la construcción de una Europa basada en los principios de la democracia y de la diversidad cultural» / «La adopción de medidas especiales en favor de las lenguas regionales o minoritarias (...) no se considerará un acto de discriminación con los hablantes de las lenguas más extendidas». (Diskurtso egituratuak). [Eranskinak 24. or.]

Halako ideia inspirazio iturri nagusietako bat izan da EAEko araudi linguistikorako. Zehatzago, legeak horrela dio.

«Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera, eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea» / «Las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco son el euskera y el castellano» / «Que nadie sea discriminado por razón de lengua en la Comunidad Autónoma del País Vasco». (Diskurtso egituratuak). [Eranskinak 20. or.]

Autore batek: «La ley ha seguido alimentando durante estos treinta años el acuerdo básico que subyace a las reflexiones sobre el euskera, y esa es una de las virtudes innegables de aquel texto breve pero profundo». (Diskurtso egituratuak). [Eranskinak 27. or.]

Eta oinarri horiek oihartzuna izan dute pentsamendu intelektualean ere, argi utzita, betiere, norbanakoaren askatasunarekin eta elkarrekiko errespetuarekin uztartuta joan behar duela hizkuntzaren defentsa horrek.

5. «Por la expresión “lenguas regionales o minoritarias”, se entenderán las lenguas: i) habladas tradicionalmente en un territorio de un Estado por nacionales de ese Estado que constituyen un grupo numéricamente inferior al resto de la población del Estado, y ii) diferentes de la(s) lengua(s) oficial(es) del Estado; no incluye los dialectos de la(s) lengua(s) oficial(es) del Estado ni las lenguas de los inmigrantes».
6. (BOE, 222, 2001eko irailaren 15ekoa). Bestalde, UNESCOk ere berdintsu dio.

Beste batzuek: «Los esfuerzos sociales que ha generado la política lingüística de recuperación del euskera pueden entenderse, si este entendimiento se efectúa desde la libertad personal, como algo positivo y apreciable. La libertad personal no rechaza una tarea común de recuperación lingüística. El plantearla desde la libertad es la única posibilidad de que sea fructífera a largo plazo». (Diskurtso egituratuak: 3). [Eranskinak 37. or.]

«Euskalduntze prozesua denon lana da, euskaraz dakitenena eta ez dakitena ere bai. Dakigunok ez dakitenei gure aldera ekartzen ikasi beharra daukagu, atakatuta sentitu ez daitezen eta hizkuntza guk bezala maitatzen ikasteko eta, poliki-poliki, euskara gure hizkuntza nagusi bezala txertatu ahal izateko. Euskarari duen garrantzia eman behar diogu baina lehen erdararekin egin zutena egin gabe, inposatu gabe alegia». (Delphi txostena). [Eranskinak 230. or.]

Legediaren, hizkuntza politikaren eta hizkuntza-planen ondorioz, gizartean bertan ere urrats batzuk ari dira egiten diskurtso sustatzailearen norabidean.

«Diskurtso berri bat eraiki dezakegu bizikidetzan oinarritua, integratzailea, bai pertsonen artean eta baita hizkuntzen artean ere. Komunitate politiko bat osatzen ari gara eta hor euskarak toki egokia eduki behar du». (Gizarte Foroa). [Eranskinak 343. or.]

«a. Hau aurrera eramateko: i. Diskurtso inplizituak hobetsi. ii. Hizkuntza politika eraginkorrak iii. Gizartean eta inguru politikoan eragin». (Gizarte Foroan adostutako ideia). [Eranskinak 360. or.]


«Euskaldunak erabil dezake euskara solaskideak ere badakielako; gaitutia da erabiltzeko ezintasuna eta zoru partekatuak agertzen ari dira: lan bilera elebidunak, lan-dokumentuak, aisialdiko harremanak...» / «Txikizkako merkataritza gero eta euskaldunagoa da eta euskaraz bizi nahi duenak, poliki-poliki euskara gero eta txertatuagoa du gizartean» (Delphi txostena). [Eranskinak 212. or.]

2.2.4.2. DISKURTSO SUSTATZAILEAREN BANAKETA


Sustatzailearen planteamenduak duen onarpen mailarik altuenak ezaugarri hauek dituztenengan agertu dira: *udalerrri euskaldunenetakoak* —4. gune soziolingüistikokoak— (% 97), *euskal abertzaleak* (% 96), euskaraz sarri egiten duten *elebidun*

aktiboak (%95), euskaraz egin nahi izanagatik *diskriminatuak sentitu diren elebidunak* (%95), *euskararekin identifikatzen direnak* (%95), *batez ere euskal herritar sentitzen direnak* (%94), ideologikoki *ezkerrean kokatzen direnak* (%94), eta *euskararekiko interes handia dutenak* (%90).

6. GRAFIKOA. Sustatzailea*



6. GRAFIKOA. Sustatzailea*



* Grafikoan agertzen diren datuak *Oso ados* eta *Nahikoa ados*en batuketa dira.

Aldiz, onarpen mailarik apalena halako pertsonengan topatu da: *batez ere espainiar* sentitzen direnak (% 60) eta *euskararekin interes txikia* adierazi dutenengan (% 63). Koska bat gorago daude *euskararekin interes ertaina* dutenak (% 70), euskaraz ez jakiteagatik *diskriminatuak sentitu diren erdaldunak* (% 73), *erdaldunak* direnak (% 75), *etorkinak* (% 76) eta *gaztelaniarekin* identifikatzen direnak (% 76).

2.2.5. DISKURTSO ALDARRIKATZAILEA

Aurreko diskurtsoek gizartean eskuratzen duten onarpen zabalarekin alderatuta, diskurtso mota honek maila koxkor bat jaisten du eta batez besteko onarpena, oraindik gehiengoak babesten duen arren, % 61era baino ez da iristen.

Hauk dira, *aldarrikatzailea* izeneko diskurtsoa osatu duten esaldiak:

- Ezinbestekoa da euskararen sustapenean diru publikoa gastatzea (*oso edo nahikoa ados % 75*)
- Zenbait lanpostutarako euskara jakitea exijitu beharko litzateke (% 71).
- Etorkizunean euskarak presentzia handiagoa izatearen nahia (*Euskaraz bakarrik edo orain baino gehiago % 68*).⁷
- Euskararen presentzia areagotzeko lan egin behar da osasun zentroetan (% 59).
- Euskararen presentzia areagotzeko lan egin behar da lantokietan (% 59).
- Euskararen presentzia areagotzeko lan egin behar da aisialdiko ekintzetan (% 55).
- Euskararen presentzia areagotzeko lan egin behar da merkataritzan (% 55).
- Euskararen presentzia areagotzeko lan egin behar da hedabideetan (% 52).

7. Bi galdera erabiliz egindako birkodetze baten emaitza da esaldi hau: alde batetik, galdetu zaie ea «euskarak gizartean duen presentzia handitzea, orain bezala mantentzea edo gutxitzea gustatuko litzaieken»; eta bestetik, haien ustez «etorkizunean zein hizkuntzatan hitz egin beharko litzatekeen Euskal Herrian».

Bistan denez, diskurtso *aldarrikatzailean* euskara bultzatzeko neurriak hartzearen aldeko jarrera nagusitzen da, horretarako derrigortasun puntu bat aplikatzea eta baliabide publikoak inbertitzea ongi ikusiz. Hau da, diskurtso honek diskurtso *sustatzailearekin* partekatu lezake euskara suspertzearen aldeko jarrera, baina maila operatiboan beste hautu bat egiten du helburu horretara iristeko.

2.2.5.1. DISKURTSO ALDARRIKATZAILEAREN ESANAHIAN SAKONDUZ

*Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna-k*⁸ aurreikusten dituen neurriek diskurtso mota honekin bat egiten dute —jasangarritasunaren printzipioa oinarri hartuta— egoera gutxituan dagoen beste edozein elementu —gizatalde, landare edo animalia espeziea, adibidez— suspertzeko politika eta planetan ohikoa den bezala.

86

«Medidas para el fomento del empleo de las lenguas regionales o minoritarias en la vida pública, de aplicación en diversos ámbitos: Enseñanza; Justicia; Autoridades administrativas y servicios públicos; Medios de comunicación; Actividades y servicios culturales; Vida económica y social; Intercambios transfronterizos». (Diskurtso egituratuak). [Eranskinak 24. or.]

Legezko estatusaren erreferentziak ere diskurtso honetan koka litezke, euskararen ezinbestekotasuna hizpide duten aldetik.

«La lengua propia del País Vasco es el euskera» / «[Euskara] berezkoa, lehentasunezkoa eta ezagutu beharrekoa [da]». (Diskurtso egituratuak). [Eranskinak 22. or.]

Azken buruan, eskubide edo lehentasunen arteko talka agertzen denean, aukeratzearen eta euskalduntzearen artekoa, bigarrenaren alde egiten da, ildo horretaz jaso diren iritzietan.

«Hezkuntza sisteman, “aukeratzeko eskubide” horren ondorioz, ghettoak egin ditugu eskoletan. Aukeratzeko eskubidea ezin da inoiz kokatu ikasleek euskara eza-gutzeko duten eskubidearen gainetik». (Delphi txostena). [Eranskinak 219. or.]

8. BOE, 222, 2001eko irailaren 15ekoa.

Sendo dagoen guneetan, euskarak biziraupen duina izateko behar dituen neurri suspertzaileek zailtasunak topatzeak haserrea eragiten du.


«Euskararen arnasmune diren geografia horiek salbuespena dira euskaraz bizi nahi dugun herritar gehienontzat. Ingurune hauetan kezkarako motiborik handiena da euskara suspertzeko asmoak topatzen dituen zailtasunak: testuinguru euskaldunean euskararen normalizazioan oztupo diren neurri edota gertakarien aurrean ezinegona eta haserrea erraz pizten da». (Delphi txostena). [Eranskinak 220. or.]

2.2.5.2. DISKURTSO ALDARRIKATZAILEAREN BANAKETA

Diskurtso honek gizartean lortzen duen batez besteko onarpenetik (% 61) oso gaitetik kokatzen da onarpen handiena duen gizarte sektore bat. Diskurtso honekin horren identifikazio handia dutenengan honako ezaugarri hauek nabarmentzen dira: *udalerrri euskaldunenetako* —4. gune soziolinguistikoa— bizilagunak, *euskararekin identifikatzea*, euskaraz sarri egiten duten *elebidun aktiboak*, euskaraz egin nahi izanagatik *diskriminatuak sentitu diren elebidunak* (% 93, % 93, % 91 eta % 91, hurrenez hurren), batez ere; ondoren datoz *euskal abertzaleak*, *elebidunak*, *batez ere euskal herritarrek* (% 87, % 87 eta % 84, hurrenez hurren).

Onarpen mailari dagokionez, diskurtso honetan aurkitu den aldaketarik handiena da, aurreko diskurtsoekin ez bezala, badaudela oso onarpen maila apala adierazi duten pertsonak, zeinek ezaugarri jakin batzuk dituzten. Horren ondorioz, pentsa liteke diskurtso honekiko gaitzespen —edo, gutxienez, gaitzespen kutsu— giroa gailentzen dela horiengan. Onarpen oso apal hori erakusten duten pertsonak soilai honetakoak dira: *batez ere espainiar sentimendudunak* (% 20 onarpen proportzioa), *euskararekin interes txikia adierazi dutenak* (% 26), euskaraz ez jakiteagatik *diskriminatuak sentitu diren erdaldunak* (% 36). Koska bat gorago onarpenean, baina erditik behera oraindik, beste hauek daude: *euskal herritar bezain espainiar sentitzen direnak* (% 41), *euskararekin interes ertaina dutenak* (% 42), *familia etorkineko bertan jaiotakoak* (% 43), *erdaldunak* (% 45), *etorkinak* (% 46), *gaztelaniarekin identifikatzen direnak* (% 46), eta, azkenik, *euskal abertzale sentitzen ez direnak* (% 47).


7. GRAFIKOA. Aldarrikatzailea*



■ Oso ados
■ Nahikoa ados

Grafikoa hurrengo orrian jarraitzen da

7. GRAFIKOA. Aldarrikatzailea*



* Grafikoan agertzen diren datuak *Oso ados* eta *Nahikoa ados*en batuketa dira.

Hortaz, diskurtso *sustatzaileak* eta *aldarrikatzaileak* gizartean lortzen duten batez besteko onarpen mailen artean (% 82 eta % 61, hurrenez hurren) alde handia dago. Hala ere, diskurtso biak gehien babesten dutenen sektoreen soslaiek antza handia dute. Eta, beste muturrean, diskurtso *sustatzailea* gutxien babesten dutenek eta *aldarrikatzailea* gaitsezten dutenek hainbat ezaugarri soziolinguistiko partekatzen

dituzte. Lehenago esan bezala, bi diskurtsoen oinarri sozialean aurkitu den alderik handiena da euskararen defentsa egiteko batzuek eta besteek lehenesten dutena: euskararen gaineko *bizikidetza* ala hizkuntza politikaren *neurriak*.

2.2.6. DISKURTSO MESFIDATIA

Ez litzateke oso egokia izango diskurtso *mesfidatiak* onarpen soziala lortzen duela esatea, gehiengo handi batek bizkarra ematen baitio: % 77k onarpen *gutxi* edo *oso gutxi* erakusten du-eta.

Hemen dira *diskurtso mesfidatia* osatu duten esaldiak eta lortu duten onarpen maila:

- Euskara ikastea esfortzu handiegia da, trukean lortzen den onurarako (*oso edo nahikoa ados* % 31).
- Euskararen aldeko neurriek erdaldunak diskriminatzen dituzte (% 26).
- Hobe da jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino (% 25).
- Euskara ez da egokia komunikazio behar berrietarako, lan munduan, teknologia berrietan, etab. (% 22).
- Euskara erabiltzea zama bat da enpresentzat eta merkataritzarentzat (% 18).
- Zentzugabea da euskararen alde hainbesteko ahalegina egitea (% 13).
- Euskara abertzaleen kontua da, ez herritar guztiona (% 11).
- Euskara galtzea niri ez litzaidake inportako (% 4).

Diskurtso honetatik begiratuta ez zaio alde onik aurkitzen euskarari, ezta abantaila sozialik ere. Denak dira mugak, zailtasunak, trabak, sektarismo zein diskriminazio sentimenduak eta hizkuntza horrekiko interes falta.

2.2.6.1. DISKURTSO MESFIDATIAREN ESANAHIAN SAKONDUZ

Diskurtso honen sorburuak ugariak dira. Kasu batzuetan, euskararen inguruan norberak edo hurbileko baten batek izandako bizipenak hautemate ezkorren sorburu izan omen dira.

«Norberaren eta familiako interesak, euskararen aurretik jartzea: seme-alabak, gertukoak... lanpostu bat lortzerik izan ez duenean euskaraz behar besteko mailarik ez duelako» / «Euskararen alde eta kontra egiteko abiapuntuak, arrazonamendu edo kontu diskurtsiboetan baino gehiago daude bizipenetan edo bibentzietan oinarrituta. Horri gero janzkera diskurtsiboa emateko ahalegina izaten da, eta nagusitzen direnak topiko hutsak dira: errepikatutako estereotipo eta prejuizioak». (Delphi txostena). [Eranskinak 217. or.]

Bestetan, *balio pragmatikoaren diskurtsoaren* planteamendua erabat ukatuz, *diskurtso mesfidatiaren* oinarrian daude, adibidez, erabateko interes falta euskararen bilakaeraz, euskarak balio propiorik ote duenaren inguruko zalantzak, balio orokor faltaren konbentzimendua...

«El futuro del euskera me es muy indiferente». (Diskurtso egituratuak). [Eranskinak 18. or.]

«Leku askotan zalantzan dago euskarak balio propiorik ote duen» / «Euskara zama edo galga gisa ikusten da gizarteko zenbait sektoretan, pasa beharreko tramite bat eta ibilbide edo zirkuitu laburretan baino balio ez duena. Edo, euskarari balioen bat aitortzen bazaio ere, ez da unibertetsala izaten, eremu jakin batzuetara mugatua baizik: euskara administrazioko eta irakaskuntzako hizkuntza bihurtu da, eta hori euskararen erabilera natural batera jotzeko oztopoa izan daiteke». (Delphi txostena). [Eranskinak 217. or.]

Aurrekoari lotuta, euskararen irudia, oro har, ezkorra da diskurtso honetan eta jite zabaleko arrazoiak tarteko. Aipatuena, euskarari erantsi zaion kutsu politizatua da, nabarmenago eremu politikoan herritarrengan baino. Horrekin batera, bestelako gizarte funtziotan paira dezakeen pisu falta ere aipatzen da.

«Euskara erruduntzea, ezker abertzalearekin atxikitzen zaion loturagatik». (Delphi txostena). [Eranskinak 215. or.] / «Euskararen patrimonializazioa, sigla politiko batzuen aldetik». / «Kutsu politizatua du, neurri batean, euskarak eta azkeneko

urteotan gatazka politikoaren erdian aurkitu da, batzuetan / Alderdikeriaren arabeko interesek, askotan erabiltzaileengandik urruti, kutsatu dute euskara». (Delphi txostena). [Eranskinak 218. or.] / «Euskara euskal nazionalismoarekin lotzea». (Delphi txostena). [Eranskinak 221. or.] / «Politika inguruneak sortarazten duen giro gatazkatsua, ez dago kalean (are gutxiago beste kezka larriagoak daudenean)». (Delphi txostena). [Eranskinak 222. or.]

«Euskara, gaur egun honako hitzekin lotzen da: identitatea, kultura, hezkuntza, abertzaletasuna... Eta horrela, zaila. Nahiago nuke industriarekin, lan munduarekin edo osasun sailarekin lotuta balego». (Gizarte Foroa) [Eranskinak 348. or.]

Aurreko ideiatik gertu izanagatik, neurriren batean ezberdinu daiteke parte hartzaile bakan batek aipatu duen formulaizioa; alegia, euskararen aldeko portaera militanteei aurre egiteko asmoz nahita elikatzen edo hauspotzen dela *diskurtso mesfidatia*.

«Gatazka intrantsigenteen eskutik sortzen dira, euskaraz bakarrik funtzionatu nahi edo aldibereko itzulpena denerako eskatzen dutelako». (Delphi txostena). [Eranskinak 216. or.] / «Euskara ia ez besterik erabiltzea, tankera jakineko gizarte aldarrikapenetan, eskaera horien jomuga euskara beren egin beharko luketen enpresak, erakundeak eta pertsonak izanik. Argudio ezberdina dela diogu, politikaz gaindi eremu sozialean ere koka daitekeelako, batetik, eta bere indarra beste ideia honetan zentratzen delako, bestetik: euskara bere egin beharko luketen horiek, euskaraz erasotzak (sentitzen) direlako». (Delphi txostena). [Eranskinak 218. or.]

Diskurtso mesfidatian bete-betea sartzan den balorazioa mota da derrigortasuna edo inposizioa, gizarte sektore batzuetan presentzia sendoa duena.

«[Hezkuntzan] derrigorrez ikasteko beharra. / Herri-administrazioko zenbaite-tara aurkezteko jakin beharra edo puntuaketan abantaila handia izatea». (Delphi txostena). [Eranskinak 221. or.] / «Euskarara diru gehiegi bideratzen dela uste dutenak. Oro har, euskara abertzaleen kapritxo edo bereizgarri gisa jotzen dute eta “de facto” “ezezagutzarako eskubidea” aldarrikatzen dute, askatasuna aitzaki. Euskararen aurrean jarrera defentsiboa eta uzkurra adierazten dituzten arbuio edo gaitzespenak, hizkuntza politikaren bidez ezarri diren zenbait neurritan omen du abiapuntu: EAEko lurralde guztiak parametro berdinetan tratatzea; euskara lanarekin nahastea, batez ere egungo egoera ekonomikoan; herri-administrazioko hizkuntza-eskakizunak errealtatera ez egokitzea». (Delphi txostena). [Eranskinak 216. or.]

«Creo que por el bien del euskera es malo imponerlo porque la gente hace lo contrario» (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «A mí lo único que me fastidia es me obliguen» (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

Bestalde, faktore-segida honetan lekua egiten ari den azkeneko aipamenak, aurrekontu publikoak ditu jomuga; alegia, krisi une honetan baliabide publikoak nola erabiltzen diren, eta hizkuntza politikan horrenbeste gastatu behar ote den.

«Eskandaluzkoa iruditzen zait euskararen alde horrenbeste diru bideratzea».

«Krisi ekonomikoaren ondorioz, eta bereziki hedabideek zabaldu dituzten diskurtsoak ikusita, gaur egun diskurtso ekonomiko kritikoagoa izan daiteke, hizkuntzen politiken aurka, garestiak direlakoan. Diskurtso horren arabera, ekonomia-aren ikuspuntutik lehentasuna duten beste sektore batzuetan sartu beharko litzateke dirua». (Delphi txostena). [Eranskinak 218. or.]

Ikuspegi horietatik guztietatik begiratuta, ez da harritzekoa diskurtso honetan euskarak batere prestigiorik ez izatea, batez ere ingurune ez oso euskaldunetan.

«Euskararen prestigio falta, euskaraz ikasteko motibo praktikorik eza eta, etxeko transmisiorik ezean, euskararekiko lotura afektiboa ere galdua» / «Euskaldun ez direnentzat nekez izango da erakargarria egunero bere geroa jokatzeko ari den hizkuntza bat, hiztunak baino gehiago heroiak eskatzen dituen» / «Ingurune ez euskaldunetako gazteentzat euskara ez da 'cool' eta derrigorrezko ikasgai batenkin baino ez dute lotzen, modernotasuna ingelesarekin lotzen da batez ere». (Delphi txostena). [Eranskinak 217. or.]

Bada gako garrantzitsu bat *diskurtso mesfidatiaren* hedapen soziala kuantifikatzeko: *politikoki ez-zuzena* bezala ulertua izatea egungo gizartean eta, hortaz, horrekin bat egiten dutenek zailtasunak izatea jendaurrean diskurtso horren alde agertzeko.


«Euskararen kontrako diskurtsoa gizartean politikoki zuzena ez den arren, azken urteotan nabarmenagoa da kontrako egonezin bat zenbait harremanetan». (Delphi txostena). [Eranskinak 217. or.]

Beraz, litekeena da zilegitasun sozialik ezak eragina izatea, diskurtso honek izan duen babes txikian, eta bere gizarte onarpeneko datuetan.


2.2.6.2. DISKURTSO MESFIDIAREN BANAKETA

Gizartearen batez besteari erreparatuz, proportzio apala osatzen dute munta horretako planteamenduak *oso* edo *nahikoa onartzen* dituztenak: %14 baino ez. Hiru perfil agertzen dira batez besteko balio hori bikoiztu eta heren bat osatzeraino iristen direnen artean: euskararekiko *interes txikikoak* (%34), *batez ere espainiarrak* sentimendukoak (%33) eta euskaraz ez jakiteagatik *diskriminatuak sentitu diren erdaldunak* (%30). Gainontzeko ezaugarri guztietan oraindik onarpen txikiagoa dago diskurtso honen inguruan.

8. GRAFIKOA. Mesfidatia*



8. GRAFIKOA. Mesfidatia *

* Grafikoan agertzen diren datuak *Oso ados* eta *Nahikoa ados*en batuketara dira.

Azpimarratzekoa da *diskurtso mesfidatiaren* onarpen mailarik altuena duten hiru soslai horiek direla, hain zuzen ere, diskurtso aldarrikatzailean onarpen txikiena duten berberak. Ukaezinezko logika bat dago horren atzean: bi diskurtso horiek osatzen dute ardatz diskurtsibo bereko bi muturrak. Alegia, euskararen defendatzaile sutsuenak dira diskurtso aldarrikatzaileko erpinean daudenak eta, aldiz, hizkuntza horrekiko joera uzkurrenekoak dira *diskurtso mesfidatiaren* puntuazio gorenetan daudenak. Ardatz diskurtsibo bereko aurkia eta ifrentzua.

2.3. Aurrera begirako proposamenak

2.3.1 ZORU PARTEKATU BATETARAKO AUKERAK?

Lan honekin hasi ginenean, aurreikusitako hipotesia izan zen badagoela gehiengo zabal batek partekatzen duen zoru bat, nondik euskararen normalizaziorako bidean aurrera egin dezakegun. Horren adibide, egindako lan-foroan adituek adostutako ideiak ditugu, hurrengo taulan bildu ditugunak.

96

Gizarte Foroko lantalde txikietan adostutako ideiak	
1.	Bizikidetzeta: Elkar ezagutzeko eta ulertzeko uztardurak bilatuz. Hautua ez da izan edo ez izan. Desideologizaziotik bizi behar da, egungo gizartean egoera naturala izango baita hizkuntza bat baino gehiago hitz egitea, gizarte konplexu baten aurrean gaude. <ul style="list-style-type: none"> a. Hau aurrera eramateko: <ul style="list-style-type: none"> i. Diskurtso inplizituak hobetsi. ii. Hizkuntza politika eraginkorrak. iii. Gizartean eta inguru politikoan eragin.
2.	Hizkuntzen elkarbizitzarako (bizikidetzarako) diskurtsoa eraiki behar da errealitate eleanitzari erantzuteko. Gizarte eleanitza eta immigrazioarekin are eta hizkuntza anitzagoa.
3.	Berdintasunaren aldeko diskurtsoa.
4.	Euskara zentruan duen eleaniztasun baten aldeko hautua era progresiboan.

Gizarte Foroko lantalde txikietan adostutako ideiak	
5.	Gazteak eta euskarari balio berriak atxiki: Gazteek gizartea interpretatzeko eredu, ikuskera desberdina dute. Testuinguru berri bat eraiki behar da euskarari balio berriak atxikiz: <ol style="list-style-type: none"> Zoriontsuak izateko bidea. Plazerra ematen duena. Modernitate kontzeptuari lotuz. Gizarte eredu progresista bati atxikiz. Funtzionalitatearekin lotuz.
6.	Ezagutza zabalagoa duten belaunaldi berriek euskaraz egingo dute, hala egiteak balio bat eta zentzu bat duela sumatzen duten egoera edo lekuetan.
7.	Hizkuntza politika konplexurik gabe.
8.	Hizkuntza hobetsiaren errespetua eta garapena elebidun hartzaileak sortzen diren neurrian.
9.	Euskararen ezagutza orokortzen lagundu behar du diskurtsoak.
10.	Ezagutzaren aldeko diskurtsoa.
11.	Euskararen aldeko diskurtsoek, estrategiek eta neurriek uztartuta joan behar dute, ezagutza eta erabilera areagotzeko.
12.	Euskararen baloreak eta euskal komunitatea balioan jarri behar dira, «zentralitatea» lortu, erdigunean jarri.
13.	Euskal diasistemaren hiztunen oinarrizko diskurtsoen lanketa.
14.	Lege babes handiagoa behar da, eta diskurtso berriak ere bai. Diskurtso bat ez, diskurtso berriak (pluralean) behar dira. Baina biak behar dira, legeak eta diskurtsoak, biak.
15.	Jarreretan eragiteko emozioa, bizipenak eta bizipozak transmititu behar dira, baina baita praktikotasuna, pragmatismoa. Euskara ezin da asoziatu hizkuntzak berak baino atxikimendu gutxiago duten elementuekin.
16.	Hizkuntza erabilgarria, multifuntzionala, espresiboa, gozagarria, zorrotza, biziagoa, erakargarria, komunikatiboa behar dugu. Eta ez du zertan beti zuzena izan behar.
17.	Liderazgo motibatzaile/eraldatzaille baten garrantzia.
18.	Euskararen komunitate aktiboan parte hartzeari prestigioa ematea edo erakargarri egitea lortu behar dugu.
19.	Diskurtsoan ezinbestekoa da lortu denaren inguruko kontzientzia eta harrotasuna garatzea.

Iturria: Foroaren 2. saioaren emaitzen bilketa antolatua. Xabier Erizeren bilketa, moderatzaileek egindakoa abiapuntu hartuta [2014.07.16]. Lantalde bakoitzak adostutako ideia zehatzak «Foroaren emaitza gordinak. 2. saioko taldeetan jasotako emaitzak [2014.06.26]» eranskinean daude.

Hizkuntza-komunitate eta iritzi ezberdinetako pertsonen artean partekatu daitekeen zoru horretatik abiatuta diskurtso berritua eraikitzearen beharra aipatu dute partehartzaile batzuk, euskara gizarteko elementu integratzaile bihurtuko duena. Sentsibilitate ezberdinen arteko adostasun puntuak bilatu behar dira, eta horien gaineko kontsentsu ahalik eta zabalena landu. Elkarbizitzarako edo bizikidetzarako diskurtso bat, azken batean.

«Diskurtso berria eraiki behar da, euskara gizarte elementu integratzaile bihurtuz» / «Adostasun puntuak badaude. Kasu batzuetan apur bat aurrerago joan daiteke, baina alde zuzenetik adostasun ahalik eta zabalena bilatuta izan behar du» / «Gure euskarak kontsentsu zabal baten premia du, oraingoa baino zabalagoa, erabatekoa izatera iritsiko dena, non sentsibilitate guzti-guztiak eroso sentituko diren». (Delphi txostena). [Eranskinak 231. or.]

«Hizkuntzen elkarbizitzarako (bizikidetzarako) diskurtsoa eraiki behar da errealitate eleanitzari erantzuteko. Gizarte eleanitza eta immigrazioarekin are eta hizkuntza anitzagoa». / «Euskal diasistemaren hiztunen oinarritzko diskurtsoen lanketa». (Gizarte Foroan adostutako ideiak). [Eranskinak 362. or.]

Horretarako errealitatearen ezagutzatik abiatu beharra dagoela ere aipatu da. Jen-deak zer pentsatzen duen ezagutu behar da, zein harreman duten euskararekin eta nola bizi duten harreman hori. Eta hortik abiatu behar da diskurtso berritu hori eraikitzen edota antzeman den zoru partekatuari bidea ematen.

Euskararen inguruko diskurtsoak, askotan, ideologia edo pentsamolde baten araberako zuzentasunari lotuago egon dira, errealitatearen benetako ezaugarriei baino. Planteamendu topikoetan gelditzen dira, gaia ezeroso izan daitekeen muturre-raino eraman gabe —era kontzientean izan ala ez—. Jokabide mota horiez jabetuta, planteamendu zintzoa, onestua, eskatzen da, diskurtso eta iritzi ezberdinak badirela onartuko dituen. Gainera, egindakoari errekonozimendua aitortu behar zaio, baina gaizki egindakoak onartuta eta lortu ez diren helburuak azaldu ere egin behar dira. Horrela baino ez da posible izango egoerari benetan egoki erantzuten dizkioten neurriak hartzea.

«Euskararen inguruan ageri diren arazoan identifikaziotik abiatu beharko litza-teke eta haiei aurre egiteko neurri edo bitartekoetan lortu kontsentsua: a) Nola planteatu aurreikusten den/diren arazo nagusiei aurre egiteko neurri berri ados-

tuak; b) Neurri (politiko) zehatzagoak diseinatu ahal izateko». / «Maila diskurt-sibotik maila aplikatibora pasatzeko zer egin behar den? Lehenik garbi hitz egin, esaten denari zentzu bat eta bakarra emanaz, guztiok jakin dezagun zertaz ari garen. Ez du balio esateak ez dela derrigortzen, baina gero bai halako araudi, dekretu eta abar ateratzeak ikusteko jendeak nola arnasten duen, eta arazoak edo kexak planteatzen badira diskurtsoa modulatzeko hasteko, nahiz eta gauzek eduki ditzaketen interpretazio desberdinak. Hori gertatzen denean, esanahia adierazi behar da». / «Onartu egin behar da framing uzkurrean kokatzen direnen diskurtsoa eta hori hor dagoela jakinik jokatu (hau da, soka ez gehiegi tenkatu); horregatik, diskurtso maximalista doitu beharra dago». / «Gauzak diren bezala azaltzeko eskaera, aplikagarria da orokorrean zein sektorialki; adibidez, hezkuntza munduan: argi azaldu zertan oinarritu den hiztun elebidunen hazkundea, eskolan, eta nolako mugak dituen eskolaren eraginak». (Delphi txostena). [Eranskinak 238. or.]

«Diskurtsoan ezinbestekoa da lortu denaren inguruko kontzientzia eta harrotasuna garatzea». (Gizarte Foroan adostutako ideia). [Eranskinak 362. or.]

Dena den, zalantzak ere sortu dira, diskurtso partekatu bat izatea, euskararen aurrerabidean eraginkorra izango ote denaren inguruan. Nahikoa ote da jarrerak eta pentsamenduak aldatzea egoera bideratzeko? Batzuen ustez pausu garrantzitsua litzateke hori...

99

«Niri bai, iruditzen zait jarrera aldaketa inportantea dela, jarrera eta pentsamendu aldaketak behar ditugula». (Gizarte Foroan eztabaidatutakoa). [Eranskinak 362. or.]

Baina, beste batzuentzat, diskurtsoaren lanketa ez da nahikoa. Azken batean, praktikan egiten dena da garrantzitsua horien ustetan. Diskurtsoetan baino, jarrenen aldaketan sinesten dute. Horien ustez, euskara erabiliz irabazten da besteen errespetua. Modu horretan, euskaraz hitz egiten ez dakitenek zerbait galtzen ari direnaren sentsazioa izan dezakete, eta hizkuntza horretara gerturatzeko ahalegina egin.

«Zalantza bat: diskurtso berri batekin konponduko ditugu euskararen arazo guztiak? Pentsatzea jarrera hobetzetik etorriko dela eraginkortasuna..., nik uste dut oker gabiltzala, ez badira benetako estrategia eraginkorrak planteatzen». (Gizarte Foroan eztabaidatutakoa). [Eranskinak 362. or.]

«Agian ez da arrazionalitatean oinarritutako diskurtsoa behar duguna. Diskurtsoetan ez, praktikan dago indarra: Euskaraz ari garenok praktikaren bidez irabazi beharra dugu besteen errespetua. Diseinu bat egin behar da arlo guztietan, euskararen presentzia gehitzeko, erdaldunei nabarrarazteko zerbait galtzen ari direla, ebidentzian jarri zerbaiten eskas dutela euskarari bizkar emanaz bizi direnek». (Delphi txostena). [Eranskinak 235. or.]

«Adibide interesgarri bat: gaelikoa versus galesa. Lehenak prestigio sinboliko handia du baina heriotzarako bidean dago erabileraren borroka galdu duelako, eta bigarrena ordea gora egiten erabileraren aldetik, balio sinbolikoa baino haratago komunikaziorako lanabes delarik. Gure erronka galeserantz lerratzea eta gaelikotik urruntzea da» (Delphi txostena). [Eranskinak 243. or.]

«Eztabaida egon behar da baina nik uste dut garrantzitsuagoa dala hitz egitea eta gu euskaraz hitz egiten hasten garen heinean gero eta gehiago eta azkenean lortuko dugu leku gehiagotan euskara erabiltzea». (EA, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

Beste batzuek, gainera, ez dute hain garbi ikusten zoru partekatu hori egon bada-
goenik, batez ere, hainbat lurralderen kasuan.

100

«Arabian zoru partekatua eskasa da, eta ez nago seguru partekatua den: legedia kontuan hartzen dutena, bai, baina haratago joan nahian legedia ere zalantzan jartzen has litezke hainbat eta hainbat. Ez nuke esango gure hurbileko gizartean partekatua dagoenik ezer asko, ezta euskararen koofizialtasuna ere. Ez behintzat gizarte osoaren aldetik». (Delphi txostena). [Eranskinak 221. or.]

«Euskara gipuzkoarren eta bizkaitarren kontua dela esaten dute hainbat arabarrek, beraien etxetan euskara ez dela INOIZ hitz egin eta Araban bestelako estatusa izan beharko lukeela». (Delphi txostena). [Eranskinak 224. or.]

Zalantzan jartzen da zoru partekatua dagoenik ere teoriatik praktikara pasatze-
rakoan. Politikoki zuzena izan daiteke euskararen normaltasunaren alde agertzea;
askotan, ordea, azaleko aldeotasuna baino ez dela uste dute batzuek. Finean, gau-
za konkretuak eskatzen direnean edo egin behar direnean, sumatzen omen da al-
deotasuna ez dela horrenbestekoa.

«Jendea politikoki zuzena agertzen da euskara sustatzearen alde dagoela esaten duenean, baina funtsean ez du hainbeste sinesten horretan». (Gizarte Foroa (saio osoko mezua-ñabardura)). [Eranskinak 353. or.]

«Ondo ezberdindu behar dira jarrera aitortuak eta ekintzei lotutako jarrerak. Aztertzeke garaian eta eragiteko garaian. Orokorrean bidali duzuen dokumentuan aitortutako jarrerak baino ez dira agertzen. Modu horretan kontsensua dirudiena batzuetan bakarrik oso azaleko kontsensua izan liteke. Alegia, gaurko gizartean euskararen kontrako jarrera aitortuak kopuru altuan jasotzea zaila dirudi. Hori bai, jarrera aitortuak mailakatzen badira inkestatuarentzat lehentasunekoak zer den jakin dezakegu eta modu horretan konturatu ea hizkuntzaren aldeko jarrera azalekoa den edo ez». (Delphi txostena). [Eranskinak 238. or.]

Teorikoki egoera onartua izateak, baina praktikan jarrera ezberdinak egoteak, zenbait esparrutan bi hiztun komunitate ezberdin eta banatuak sortzea dakar hainbaten ustez: unibertsitearen munduan esaterako. Modu horretan, euskaldunak bere munduan bizi dira, eta euskara jakin edo erabiltzen ez dutenak beste mundu batean, elkarrenganako inolako eraginik gabe.

«Euskararen erabilera naturaltasunez gauzatzen da, gatazkarik ez dago eta. Jarrerak ordea gatazka ezak lanbrotzen ditu. Oro har, hizkuntza bietako postuak sortu izanak zera ekarri du, ikasleen beharrianak atenditzen dira, eta erdara hutsean diharduten irakasleengan ez dago inongo eraginik. Bi esparru daude, bi ibilbide paralelo: euskararen inguruko problematika euskal irakasleena, euskara-dekanotzena, euskara errektoreordetzarena da, ez komunitate osoarenak. Disoziazio bat dago, eta diskurtso ofiziala gora behera, zatitze bat gertatu da». (Delphi txostena). [Eranskinak 223. or.]

Horregatik, batzuen iritziz, diskurtsoaren adostasunak soilik euskaldunen artekoa behar du izan. Zaila izango baita, hizkuntza bakarra darabiltenekin adostasunetara iristea.

«Hizkuntza bakarrarekin bizi direnen erabateko adostasunaren zain bagaude jai daukagu. Euskaldunon arteko adostasun sendoa bilatuz gero errazagoa izango da sabai partekatua definitzea. Hortik aurrera, plan bat definitu eta aplikazio erritmoan adostasun minimoak bilatu behar dira, baina beti aurrerapausoak eskainiz, txikiak badira ere». (Delphi txostena). [Eranskinak 239. or.]

Beste batzuek ere, mugatu egiten dute zoru partekatua. Aurreko atalean aipatutako diskurtso *euskaltzale* eta *mesfidatien* ardatz *continuumean*, zoru partekatu hori pertsona *euskaltzaleetatik* pertsona *epeletara* soilik irits daitekeela uste dute, eta ez mesfidatietaraino. Arrazoia da *epel* horiek ere hartzen dutela euskara Euskal Herriko hizkuntzatzat, zaindu beharreko zerbait bezala.

«Euskaltzale eta epelen artean bada zoru partekatu moduko bat. Euskal herriko hizkuntza euskara dela eta artez edo moldez zaindu beharreko zerbait». (Delphi txostena). [Eranskinak 231. or.]

Argi dagoena da, partaideetako batek nabarmendu duenez, aurrera egin nahi bada, hainbat dimentsio landu behar direla. Egin beharreko aldaketak, neurri batean edo bestean, gizarte osoan eragina izango dutelako. Hortaz, diseinatu beharreko estrategia-multzoa poliedrikoa, aurpegi askokoa izango da, eta hurbilpen holistikoa erabili beharko da: legedia, hizkuntza politika, komunitatea, diskurtsoa, komunikazioa eta abar. Neurriak diseinatzea eta aplikatzea soilik ez da nahikoa izango, arrakastarik ez dutelako izango komunitatearen babesik eta aupadarik gabe.

«...beharrezkoa da helburuez hitz egitea, aldaketa sozialaz hitz egitea eta, horren ondoren, errealitatearen interpretazio-eskemei edota framingari buruz. Horrekin batera posizionamenduaz ere hitz egin beharko dugu, xede-taldeez, kanalez, etab. Estrategia osoa eraiki behar da, horretarako, osotasunean landu behar da gaia. Horrela egin ezean, eta estrategia berria osatzeko behar diren atal gutzietatik bakarra modu isolatuan landuz gero, akatserako arriskua legoke. Ezinezkoa izango da, euskararen normalizazioak suposatzen duen aldaketa sozial garrantzitsua ondoko hiru elementuak aintzat hartzen ez badira: a) Normalizazio-prozesuaren dimentsio politikoan, hizkuntza politika dugu elementurik azpimarragarriena, baina hizkuntza politikarekin soilik ezinezkoa da hizkuntza bat normalizatzea; b) Hizkuntza politika eragingarri hori eskatu eta babestuko duen herri ekimen edo dinamika sozial zabala; c) Aurreko biei zentzua emango dien komunikazio-estrategia sendo eta iraunkorra». (Delphi txostena). [Eranskinak 237. or.]

2.3.2. DISKURTSO BERRITU BATERAKO GAKO IDEIAK

Diskurtso komun hori, hainbat ideia gakotan oinarritu beharko litzateke dinamika ezberdinetan parte hartu dutenen iritziz.

2.3.2.1. ANIZTASUNA BALIOESTEA

Gaur egun, Europan garatzen ari da hizkuntza txikien defentsa egiten duen diskurtsoa, eta bide horretatik balorea eman behar zaio euskarari ere. Ez da soilik euskara defendatu behar dela, hizkuntzak dira babestu behar direna, hizkuntzen pluralitatea aberastasunarekin lotu behar delako. Joko politikoa tarteko, hori egitea beti erraza ez den arren.

«Gizartean “Euskara beharrezkoa da” pentsaeratik “Hizkuntzak beharrezkoak dira” pentsamoldera aldaketa gertatu da edo gertatzen ari da. Garrantzia ematen zaio euskaraz irakasteari, eta gero eta handiagoa ingelesez irakasteari ere bai». / «Europan hizkuntzen pluralitatea aberastasunarekin identifikatzea bada zerbait, baina joko politikoa halakoetan esandakoa murrizten du ondoren». (Delphi txostena). [Eranskinak 221. or.]

«Aniztasunaren balioa. Euskararen alde, indiferente edo kontra egonda ere, gure elebitasuna gizartearen ondasun kulturala da, denok zaindu beharrekoa, eta aukera liberako erabiltzaileen eskubidea bezala babestu behar da, eskaintza hori zenbat eta handiagoa eskubidea ere handiagoa». (Delphi txostena). [Eranskinak 248. or.]

2.3.2.2. HIZKUNTZA ESKUBIDEEN ERRESPETUA

Gizartearen lagin bati egindako inkestetan elebidunen zein erdaldunen multzoak bat etorri dira euskara herritarren eskubidea denaren ideiarekin. Badago hor beraz, diskurtso partekatu horretarako lehengaia izan daitekeen puntuetako bat.

«Pero como derecho que es debería de haber alguna persona que me pueda atender en euskera». (ER, 36-64, Donostia-San Sebastián) / «Eskubidea da eta ez betebeharra, hori da burutik kendu behar duguna, hezkuntza-eskubidea den moduko eskubidea da». (EA, 18-35, Bilbo) / «Eta gainera bizi garela leku batean non bi hizkuntza ofizial dauden eta bi hizkuntza ofizialak badira ikasteko eskubidea dekogu». (EA, 18-35, Bilbo) / «El euskera es un derecho de los vascohablantes primero porque si tú vas al ambulatorio y te vas a expresar mejor en euskera, pues tienen todo el derecho del mundo a poder expresarse y que le entiendan».

(ER, 36-64, Donostia-San Sebastián) / «Tienen su derecho, eso es porque al final hay personas que se expresan mejor en euskera que en castellano» (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

Horrekin batera, elebakartasunaren diskurtsoa gainditua dagoenaren ideia nagusitu da hainbat parte hartzailearen artean. Euskararen normalizarioaren alde lan egiteak ez du jadanik esan nahi beste hizkuntzen aurka jo edo beste hizkuntzak ukatu behar direnik. Gaztelania eta frantsesa ere badira euskaldunon hizkuntzak, eta ingelesak ere gero eta garrantzia handiagoa du eta ikastea beharrezkoagoa da.

«Elebakartasunaren borroka erabat gaindituta dago, eta ez da euskara eta gaztelaniaren arteko liskarren ondorioz gertatu, mundu-ikuskera askoz zabalago bat gaineratu egin zaigulako baizik. Nagusitasunaz baino, indarren posizio orekatuaz eztabaidatu egin behar dugu». (Delphi txostena). [Eranskinak 228. or.]

«Euskadin euskara eta gaztelania ofizialkideak direnez gero, bi hizkuntza-komunitateen harremana antolatzea dagokie erakunde publikoei, hots, komunitate horien eskubide eta betebeharrak, itxaropenak eta beldurrak aintzat hartuz, politika egitea». (Delphi txostena). [Eranskinak 228. or.]

«Berdintasunaren aldeko diskurtsoa» (Gizarte Foroan adostutako ideiak) [Eranskinak 362. or.]

Hortaz, egoera eleanitz batean, zer nolako harremana izan behar duen euskarak gainerako hizkuntzekin? Argi dago, alde batetik, askorentzat gaztelania eta frantsesa ere bertako hizkuntzak direla, beraz garrantzitsua da haientzat, eta erabili nahi dute; eta bestetik, ingelesa ezagutzea ere gero eta beharrekoagoa jotzen dela, orokorrean. Hiru hizkuntzak aintzat hartuta, beraz, lan egin behar da, baina betiere euskara zentroan mantenduz eta hizkuntza gutxitu baten normalkuntza prozesuaz ari garela presente izanik.

«Azter dezagun nolako harremana izango duen euskarak berekin batera garatzen ari diren gainerako hizkuntza-komunitateekin. Zein da aurreikusten dugun euskal hitzunaren hizkuntza-esperientzia? Nolako funtzio-oreka izango du menderatuko dituen hizkuntzen artean? Zer behar dugu funtzio-oreka hori garatu ahal izango duela bermatzeko? Ezagutza? Erabilera-esparru eta bitartekoak? Masa kritikoa?» (Delphi txostena). [Eranskinak 228. or.]

«Hizkuntzak —euskara, ingelesa— beharrezkoak dira» pentsamoldearen inguruan badaude ikuspuntu ezberdinak eta, Hezkuntzari dagokionez, diskurtsoa sendotu beharra dago, ikerketa-lanen eta hausnarketaren laguntzarekin». (Delphi txostena). [Eranskinak 242. or.]

«Lehenengoak (elkarbizitza, justizia/eskubideak eta nortasuna) baztertu gabe, bestelako markoak ere baliatu behar ditugu, esaterako, “euskaraz bizi nahi dut” ideia indartu dezaketen aldaera ezberdinak baliatuz. Euskaldunak bere hizkuntza eskubideak aldarrikatzen dituenean, euskaraz bizi nahi duela aldarrikatzen duenean, egoera gutxiagotuan, zapalduan dagoela kontuan izan behar dugu, beraz, ezin da pentsatu euskararen aurka dagoen horren beste muturrean dagoenik». (Delphi txostena). [Eranskinak 244. or.]

«Mundu globalizatuan kokatuta, errealitate horren dinamikak eta baldintzak aintzat hartuz, hala nola ingelesak gizartean duen presentzia, enpresetako eleaniztasun premia, internet, hizkuntza-komunitate gutxituen arteo elkarlana eta sarea». (Delphi txostena). [Eranskinak 248. or.]

Argi izan behar da baita ere iraun-bizitzari dagokionez hizkuntza guztiak ez daudela egoera berean, eta gutxitua dagoen hizkuntza baten aldeko politika eta neurriak ez direla ulertu behar indartsua den hizkuntzarekiko diskriminazio bezala, bi hizkuntzak egoera berera eramateko ezinbesteko baldintza bezala baizik.

105

«Iraun-bizitzari dagokionez, hizkuntza ofizial biak ez daude baldintza beretan. Gutxiengoaren aldeko politikak ez dira gehiengoarekiko diskriminazio bezala ulertu behar, bi multzo ezberdinen arteko berdintasun egoera orekatura eramateko ezinbesteko baldintza baizik». (Delphi txostena). [Eranskinak 248. or.]

2.3.2.3. HIZTUNEN ELKARRENGANAKO ERRESPECTUA

Euskara erabiltzen dutenen eta ez dutenen arteko harremanean, bizikidetzeta eta errespetua nagusitu behar dira. Horretarako, batzuen ustez, norbanakoak egiten dituen hautuak errespetatu behar dira: hizkuntza batean edo bestean egiteko hautua, edo hizkuntza bat edo beste erabiltzekoa espazioen eta beharren arabera. Beterie, hizkuntza aitzakia bezala erabilia, inoren eskubideak urratu gabe.

«Bizikidetzaren ardatz eta helburu izan daiteke, jende eleanitzeko gizartean. Aukera egitea, bestea onartzea. Jendeak onartu behar du besteak beste hizkuntza bat nahiago izatea; edo hizkuntza bat edo bestea funtzio batzuetarako edo bestee-tarako erabiltzea». (Gizarte Foroa (talde bateko adostasuna). [Eranskinak 362. or.]

«Yo creo que hay que superar todo eso para tirar para delante. Todo más normal, ni todo para nosotros ni todo para ellos». (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

«Etorkizuneko bizikidetzaren berdintasun eta askatasun oinarri batzuen gainean eraikitzea. Inoren eskubideak urratu gabe, hizkuntzaren aitzakia erabiliz; e) Hizkuntzek komunikaziorako tresnak izan behar dutela aldarrikatuz». (Delphi txostena). [Eranskinak 231. or.]

«Inposizio eta diskriminazioaren diskurtsoari, errespetuaren diskurtsoetik erantzun behar zaio. Argumentu batzuk eskubideak baino maila pertsonalago batera iristen dira; alegia, elkarbizitzari estuki lotuta dauden errespetua eta erantzukizuna» (Delphi txostena). [Eranskinak 232. or.]

Garrantzitsua izango da zentzu honetan, sentsibilitate ezberdinen arteko konfrontazioa saihestea eta elkarren arteko errespetua bultzatzea.

106

«Sentsibilitate ezberdinen arteko konfrontazioa saihestea eta elkarrekiko errespetua bultzatzea, bai euskaltzaleen artean, baita euskararekin indiferente edo urruti daudenekin ere». (Delphi txostena). [Eranskinak 248. or.]

Eztabaida-taldeetan, berriz, hiztun komunitateen arteko *zubiak eraiki behar direla* aipatu da. Elebidunek, ikasten ari direnen azalean jarritz, eta errespetua eta laguntza eskainiz. Eta erdaldunak, ikasteko ahalegina eginez.

«Euskaldun zaharrek eta euskaldun berrien artean dagoen barrera. Batzuetan euskaldun zaharrak ez doguz euskaldun berriak ondo hartzen ez doguz admitiduten eta igual hortik hasi apurtuten eta danak gara euskaldunek». (EA, 18-35, Bilbo) / «He pensado en centros cívicos o así como punto de encuentro para gente que no sabe o quiere aprenderlo y que vayan voluntarios para hablar. Porque al final una lengua como mejor aprendes es hablando» (EP, 18-35, Vitoria-Gasteiz). [Eranskinak 250. or.]

«Si tuviera la percepción de que alguien no me va a juzgar por hablar en euskera, tiraría para adelante» (ER, 18-35, Bilbo) / «Que te intenten ayudar, que si no sabes alguna palabra te intentes ayudar» (ER, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

Erdaldun zein euskaldun berriek ikasi eta berba egiteko borondatea erakutsi behar dute, lotsa kendu, espazioak ireki eta euskaraz hitz egiteko aukerak biderkatu. Batzuk berba egiteko eta praktikan jartzeko esfortzua egin behar dute, beste euskaldunek berriz euskara maila eta exigentzia moldatu, euskaraz berba egiteko giro erakargarriagoak sortuz, «zubiak sortuz».

«Ahora canto en un coro y me hablan todo en euskera; bueno pues lo he aceptado y se me ha hecho la oreja» (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Favorecer el acceso a los que no sabemos, pues engancharnos» (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Yo lo que quiero es que me enseñen cómo tengo que hacer para ir a una tienda y pedir algo» (ER, 18-35, Bilbo) / «Lo más importante es quitar el miedo y hacer hincapié en la cultura» (EP, 18-35, Vitoria-Gasteiz). [Eranskinak 250. or.]

2.3.2.4. EUSKARARI DUEN BALIOA AITORTZEA

Euskara gizarte osoaren altxorra bezala errekonozitu beharraz aritu dira batzuk. Eta, horrekin batera, euskarari hizkuntza bezala duen balioa eman behar zaio, alegia, komunikaziorako duen balioa errekonozituko dion diskurtsoa behar dugu. Euskara erdigunean kokatuko duen diskurtsoa landu behar da.

«Ekimen berriak bideratzeko, diskurtso berria sortu behar da, zeinaren arabera bertan bizi garen denontzat balio duen hizkuntzak, eta denok erabiltzen dugun pertenezia sentimenduen eta ideologiaren ginetik». (Delphi txostena). [Eranskinak 231. or.] / Ikusi behar dute euskara zerbait praktikoa, beharrezkoa eta aberatsa dela, besteekin beste era batera komunikatzeko baliagarria dena. Errespetua irabazi lehendabizi, agian noizbait etorriko da emulazioa. / Beti egongo da kontrako jendea, beti, eta gogor jo dezakete, baina horren aurrean lan zintzoa eta txukuna egitea besterik ez zaigu gelditzen». (Delphi txostena). [Eranskinak 235-236. or.]

«Ezagutza zabalagoa duten belaunaldi berriek euskaraz egingo dute, hala egiteak balio bat eta zentzu bat duela sumatzen duten egoera edo lekuetan». (Gizarte Foroan adostutako ideia) / «Euskararen baloreak eta euskal komunitatea balioan jarri behar dira, “zentralitatea” lortu, erdigunean jarri». (Gizarte Foroan adostutako ideia). [Eranskinak 360. or.]

«Aceptación como uso comunicativo no como uso político». (ER, 18-35, Bilbo) / «Hacer mucha publicidad en euskera, poner muchos carteles. Que vayas por muchas partes y lo necesites para la vida cotidiana». (ER, 18-35, Bilbo) / «Nik ez dut onartzen abertzalea zarelako euskara Zure altxor bakarra dala. Euskara da euskara Hitz egiten duen guztiena». (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

Euskara guzior hizkuntza dela erakutsi behar da, hitz egiten dakitenena zein ez dakitenena.

«Pedagogía gizarteari azaltzeko euskara gure altxor bat dela, azken finean da gure... gainera ez dela bakarrik euskara ze nire ustez da izaera bat, kultura bat,» (EA, 18-35, Bilbo) / «Es que yo creo que cuanto más lo utilizas, más bonito es» (EP, 36-65, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

Gainera, komunikazioaz gain, euskarak beste funtzio batzuk ere bete ditzake. Adibidez, integratzeko tresna izan daiteke euskara, gizartearen ikuspegi osoa ezagutzen laguntzen du eta ateak zabal ditzake horrek, etab.

108

«Euskal gizartean integratzeko tresna izan daiteke» (EA, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

«Etorkinak euskarara ekartzeko politika berezitu bat ere beharko genuke, euskara integrazioarako tresna aparta delako eta abantaila hori zukutu behar dugu etorkinekin elkarlanean». (Delphi txostena). [Eranskinak 243. or.] / «Euskara abantaila da. Izan ere, komunitate batek erabiltzen dituen hizkuntzak ezagutzeak eta erabiltzeak, gizarte horretako ikuspegi osoa edukitzen laguntzen dute eta hainbat ate zabaltzen ditu». (Delphi txostena). [Eranskinak 248. or.]

2.3.2.5. OINARRIZKO IDEIA: EUSKARAREN EZAGUTZAN ETA ERABILERAN AURRERA EGITEA

Nabarmendu nahi izan dute batzuek, diskurtso berritu hori lantzeko garaian argi izan behar dela zein den iparra. Eta hauen ustetan, euskararen ezagutzan eta erabileran aurrera egitea izan behar da oinarrizko adostasuneko ideia.

«Euskararen ezagutza orokortzen lagundu behar du diskurtsoak». / «Ezagutzaren aldeko diskurtsoa». / «Euskararen aldeko diskurtsoek, estrategiek eta neurriek uztartuta joan behar dute, ezagutza eta erabilera areagotzeko». (Gizarte Foroan adostutako ideiak). [Eranskinak 362. or.]

«Bai behar dela bultzatzen instituzioetatik bai behar direla euskara positiboko politikak baina funtsezkoa uste dut jarrera dela». (EA, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

Batzuen ustez, ezagutzan aurrera egitea ezinbestekoa da benetan guztion hizkuntza eskubideak errespetatu nahi baditugu.

«Hizkuntza eskubideak errespetatzea eta hiztun guztiek aukera berdinak izan ditzaten bilatzea, hori posible egiteko bi hizkuntza ofizialak denek ulertzea bilatuz». (Delphi txostena). [Eranskinak 248. or.]

Gainera, egungo egoera aintzat hartuta, etorkizun hurbilean ezagutza nahikoa orokortua izan daiteke, beraz, egin beharreko lana izango da ezagutza orokortu hori erabilera bihurtzeko politikak garatzea.

«2030/2040 urteetan biztanleria aktibo ia osoa izango da euskara irakasgai gisa edo euskaraz ikasi izana eta, hortaz, nahikotasun maila izango du. Hizkuntzaren ezagutza orokortu hori eremu guztietan erabilera bihurtzeko politika zein estrategia egokiak garatzen hasi beharko litzateke». (Delphi txostena). [Eranskinak 229. or.]

«Erabileraren garrantzia azpimarratzea, ez badugu erabiltzen, baztertu egiten dugulako. Adostasuna eta elkarrekiko errespetua normalkuntzarako traba bihur ez daitezen zainduz, euskararen zabaltzeari, erabiltzeari eta eguneroko bizitzako sustapenaren aldeko motibazioari laguntzen dieten eremuak sortzea». / «Gizarte dinamika orokor baten bitartez, euskararen ezagutza eta erabilera —nork bere neurrian eta errespetutik abiatuz— bultzatzen jarraitzea». (Delphi txostena). [Eranskinak 248. or.]

Badago gainera, esperantzarako tarterik, zenbait eremutan erabilerak gora egin duela irizten diotelako batzuk. Gainera uste da, euskarak aukerak badituela esparru berrietan aurrera egiteko, Interneten esaterako.

«Euskara erabiltzen den heinean inguruan ere bere eragina du eta ingurukoek ere euskara erabiltzen dute, batez ere ahozko komunikazioetan. Idatzizko sormena,

oraindik ere, gaztelaniazkoa da. Emailetan, aldiz, gero eta gehiago erabiltzen da euskara. Bileran haundietan gaztelania da nagusi, txikietan berriz euskara gero eta gehiago erabiltzen da. Diskurtsoaren aldetik, diskurtso positibo batek euskararen aldeko jarrera aktiboak berez sortu ditu». (Delphi txostena). [Eranskinak 223. or.]

«Hala ere, areagotu egin da erabilera, eremu formaletan eta ez-formaletan (...) Erabilerari dagokionez, batzuk militanteagoak gazteen artean; beste batzuk errazago jo dezakete gaztelaniara». (Delphi txostena). [Eranskinak 222. or.]

2.3.3. INERTZIA ETA JOKAERA ZAHARREN AURREAN, DISKURTSO ETA JARRERA BERRITUAK

Horretarako, badira gainditu beharreko zenbait inertzia eta iraganeko jokaera.

2.3.3.1. DISKURTSOAREN DESPOLITIZAZIOA

Urteetan euskara politikarekin lotua izan da: alde batetik, bakarrik abertzaleen kontua balitz bezala; eta bestetik, euskararen aurkako diskurtsoaren parte izan da ideia hori. Euskara eztabaida politikoetatik urrundu eta beste balore batzuekin lotzea ezinbestekotzat jo da. Ideia honek lekua bereganatu du, batez ere, herritarren artean, euskaldunak zein erdaldunak izan.

«Que se dejen del euskera político y que lo hagan como algo cultural, que es nuestra, de la tierra». (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Ideología, política... mientras no rompamos eso y no lo mezclamos para hacerlo algo natural, no conseguiremos que el euskera sea lo que tiene que ser, algo rico, algo cultural y rico». (EP, 36-65, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

«Euskara, alderdien arteko erabilera politikotik urrunduz eta norberaren jarrera-adierazle gisa soilik ez hartuz, eguneroko bizitzaren arlo guztietan erabilia izateko komunikazioko osagai normal gisa aurkeztea». (Delphi txostena). [Eranskinak 248. or.]

2.3.3.2. LIMURTZEAREN BIDEA LANDU

Batzuetan, euskararen normalizazioaren aldeko neurriek beldurra eragiten dutela ere aipatu da, batez ere, euskara ez dakitenen artean, euren bizitzan izan dezakeen eraginagatik. Hala ere, batzuk uste dute, euskarak aurrera egin dezan, beharrekoa dela zenbait espaziotan euskara derrigorrezkoa izatea.

«Hezkuntzan hasteko euskara inposatua izan behar da». (EA, 18-35, Bilbo) / «Lo tienen que imponer un poco». (ER, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

«Eztabaida egon da gizarte foroan euskara derrigorrezkoa izan behar ote duen. Derrigorrezkoa ez agian indarrez edo lege aldetik, bai ordea inplizituki, moralki derrigorrezkoa izatea». (Gizarte Foroa, adostu ez den ideia). [Eranskinak 190. or.]

Inposizioaren diskurtso horren parean, diskurtso berritua proposatu behar dela irizten diote askok: pertsuasioan eta sentsibilitatean oinarritua izango dena. Euskara erabiltzeak dakartzan abantailak lehen lerrora ekarriz eta euskara erabiltzearen baliorentsia nabarmenduz.

«Prozesua presioaren bitartez bizkortzen saiatzea sortzen du arbuizatzea. Kasu horretan politikak beste estrategia har dezala proposatzen da: Euskarak lilura, limurtzea, eta ez inposatzea behar ditu». (Delphi txostena). [Eranskinak 229. or.] / «Euskararen erabilerarantz bultzatzea edo limurtzea landu behar izango litzateke, eta erabilerarako inposatzearen hautematea baztertzea». (Delphi txostena). [Eranskinak 244. or.]

«Enpresaren eta merkataritzaren eremuak oso heterogeneoak dira, lurraldearen arabera. Erabilera bultzatzeko, aginte eta kudeaketa mailako arduradunen sentsibilitatea erabakigarria izan daiteke. Sentsibilitate hori, lege-ezarpenetik ez, baizik eta pertsuasiotik jorra liteke: a) Enpresa mailan, euskara erabiltzeak dakartzan abantailez sentsibilizazioa eta jarrerak areagotzea; b) Kontsumitzailearentzat agerikoak izan daitezen euskararen erabilera bultzatzeko hartzen diren neurriak; c) Itzal handiko pertsonen lekukotasuna baliatzea». (Delphi txostena). [Eranskinak 236. or.]

«Sabiendo que es una necesidad para trabajar, quizás lo que haya que hacer sea valorarlo como algo que enriquece» (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

«Hizkuntza politikaren urrats guztiak errespetutik emanez, kontsentsua bilatuz eta pertsuasioren bidetik joz». (Delphi txostena). [Eranskinak 248. or.]

Beharrezkoa izango da ere, diskurtso erakargarria erabiltzea euskaraz ez dakitenengan ikas dezaten grina sortarazteko.

«“Norberaren askatasuna” aldarrikatzen duten horiek erakarri behar ditugu gura, eta horretarako diskurtso atseginak behar ditugu, baztertu gabe» / «Erdaldunak gerturatzeko moduan egin behar dugu. Euskara ez dakiena ezin da lasai bizi, uxatu barik zerbait falta zaiola sentitu beharko luke». (Delphi txostena). [Eranskinak 246. or.]

2.3.3.3. EUSKARA BESTELAKO BIZIPENEKIN LOTU, EREMU FORMALETIK HARATAGO

Gaur egun, askok euskara eremu formalarekin lotzen dute: hezkuntza, lan mundua, etab. Arazoa da euskara eremu horietan bakarrik agertzea. Adibidez, umeez askok eremu jakinekin lotzen dute euskara; eta beraz, ez da natural irteten zaien hizkuntza, soilik eskola inguruan edo mundu akademikoan erabiltzen den hizkuntzarekin erlazionatzen dute.

112

«Ikastolatik ateratzen bazara eta beste eremu batera joaten baldin bazara arraroa egiten dela» (EA, 18-35, Bilbo) / «Infantilizazioa zeren igual txikitzen erakusten euskaraz eremu guztietan eta gero nerabea zarenean aspektu desberdinetan eman heldu itxura eta nik uste dut hizkuntza gako bat dela» (EA, 18-35, Bilbo) / «Con el uso cotidiano, no el académico y laboral que parece que solo lo tenemos que hablar en la ikastola y tenerlo para el trabajo pero no hablarlo». (ER, 18-35, Bilbo) / «Mi hijo de 17 años, está en bachiller y tenía que hacer un trabajo de historia. Y estaba haciendo el trabajo en euskera y hablando en castellano». (EP, 36-65, Bilbo) / «Cuando se tienen que dirigir a un profesor o así, sí que lo hacen pero porque saben que es obligatorio. si tienen que elegir entre ellos, se comunican la mayoría de ellos en castellano». (EP, 18-35, Vitoria-Gasteiz). [Eranskinak 250. or.]

Baina, euskara eremu formalek haratago, bestelako bizipenekin lotzea garrantzitsua da, eguneroko bizitzan erabilia izan dadin nahi bada: aisialdiarekin, familiarekin, kulturarekin, etab. Intereseko gaia izan dadin, eta intereseko gaiekin lotua egon dadin lortu behar da.

«Niretzat euskara bizipenekin joan behar da lotuta. Zer dira bizipenak? Ba estropadak dira bizipenak, kuriositatea sartzen zaizu eta hau eta kultura eta nola esaten dan... eta arrauna eta ez dakit zer... bizipenekin hizkuntza bat, kultura bat adierazten duzunean orduan jendea erakarri egiten dezu». (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «El interés puede provocar acercamiento» (ER, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

«Ez bere nahia delako eta hori nire ustez aldatu beharko litzateke eta beharra izan beharrean ba motibatzea nahia izatea». (EA, 18-35, Bilbo) / «Sabiendo que es una necesidad para trabajar, quizás lo que haya que hacer sea valorarlo como algo que enriquece» (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Ez da bakarrik euskara ikasteko izan behar, horrelako gauzak egiteko izan behar da euskara eta berearekin datorkion beste gauza batzuk, kultura, historia... eta bizi behar da». (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

«Que debe ser como elemento de ocio y cultural. [...] que está interesado en el valor social que puede tener» (EA, 18-35, Bilbo) / «La emoción de la cultura ligada al euskera». (ER, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

«Gazte erdaltzaleei erakutsi behar zaie eskolan ikasi dutena ez dela irakasgai hutsa eta hemen euskarak baduela balio bat» (Delphi txostena). [Eranskinak 241-242. or.]

Euskara maizegi ez da dibertigarriak diren ekintzekin lotzen, horregatik, ekintzak erakargarriak izateaz gain, euskarak akademiatik ihes egin behar du. Euskara egunerokotasunean egon behar da.

«12 urtetik zora ez daukate edukirik euskaraz, eta daukaten bakarra da euskarakoa obligatzen diolako irakurtzera liburu bat, eta da euskal kulturaz ez dakite ezer... eta hori ez da beraientzat atraktiboa, naiz eta oso aberatsa izan». (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Conseguir que sea divertido» (ER, 18-35, Bilbo) / «Hay que hacer que el euskera se use en otro tipo de actividad: deporte, yoga... Lo que atrae es la actividad y encima tienes el punto extra de que hablas en euskera» (ER, 18-35, Bilbo) / «Que se pueda hacer una mezcla entre enseñar y divertir» (ER, 18-35, Bilbo) / «Si estás a gusto y aprendes a hacer ganchillo y aprendes euskera, no me importaría» (ER, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

«Ikasteko derrigortasunari, interesa eta kutsu atsegina ere gehitzea». (Delphi txostena). [Eranskinak 241. or.]

Askok euskara bizi dute ikasi behar den zerbait bezala, obligazioz. Baina erabiltzea nahi bada bestelako gauzekin lotzea beharrekoa da. Euskara ikastea gehiago lotu beharko litzateke barne prozesu batekin, barne gogoekin eta interesarekin, eta baita komunikatzeko beharrezkoa ikusten delako.

«El no vernos en la obligación de estudiar euskera únicamente para tener un título. No por un papel que nos diga que sabemos euskera sino que porque nosotros luego lo veamos como una forma de expresarnos por ahí. Como algo más cultural y no tan académico». (ER, 18-35, Bilbo) / «Necesidad versus imposición, porque es tan estrecho. Me obligas a estudiar esto para conseguir un trabajo y por otro lado, lo que quieres, y yo a mi cabeza le pido o sea crear esa necesidad dentro de mí». (EP, 36-65, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

«Yo creo que desde el momento que se cambie la percepción del euskera como una imposición por la idea de que es un idioma para comunicar es cuando se podrá facilitar la entrada del euskera a la vida normal». (ER, 18-35, Bilbo) / «Pentsatzen dut orain euskara dela jendeak pentsatzen du euskara inposatzen hari dela, orduan nire ustez, ezberdindu behar da inposatzea eta nahia. (...) gurasoak inposatu beharreen edo instituzioak inposatu beharreen, gurasoen nahia izan behar dala, bere umeak, bere alabak, bere... bestela pentsatzen dut inposatzen ari direla eta horregatik ba hori efektu negatiboa bezala dala» (EA, 18-35, Bilbo) / «Beharra sortu behar da, ez inposaketa... hau da, hiria herrietan egiten den bezala egiteko belaunaldi asko beharko dira...» (EP, 36-65, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

2.3.3.4. EUSKARA BALIO POSITIBOekin LOTU

Euskarak irudi zaharkitua erakutsi du, ondorioz prestigioa galdu du eta iraganeko kontuekin lotua izan da. Beste hainbatetan ere, euskaraz lan egiten duen jendea *ghetto* baten parte bezala ikusi da. Eta irudi horrekin hautsi egin beharra dago. Estrategia berria —antzinakoak ahaztu barik— sustagarri berriak sortzean datza, kontzeptu edo ideia ideologikoetatik urrun.

«Teknologia egunero aldatzen doa, gizartea bebai, komunikabide guztiak bebai... baina euskara ez. Orduan klaro, gelditzen da hor antzinako gauza bat bezala» (EA, 18-35, Bilbo) / «Niretzako ere euskararen kontra egon den arlo bat izan da

prestigioa, egon da baserritarrei lotuta, analfabetoei lotura» (EA, 18-35, Bilbo) / «Ba gaur egungo gauzekin edo ez dakit ze... garai batekoa moztu baina ez moztu ahaztuta baizik eta hizkuntza dala gauza bat eta kultura eta guzti hori beste bat». (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Que sea más urbano. Que salga del pueblo». (ER, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

«Kultura arloan ari garen honetan behar beharrezkoa da balioa ematea hizkuntza berari, alegia, aberatsagoa da bi hizkuntza izatea bakarra baino, mezu positiboa helarazi behar da. Euskaldun izateak aberatsagoa egingo zaitu. Beldurrak uxatzeko beharra dago, euskalduntzea ez da ghetto baten parte izatea. Oztopoak baino gehiago, ikusgarritasun falta da kulturgintzan dagoen arazo nagusia». (Delphi txostena). [Eranskinak 242. or.]

Egunerokoa, freskoa, modernoa. Euskararekin lotzen diren kontzeptuak berritu behar dira. Euskara balio positiboekin lotu behar da, alaitasunarekin, plazerrarekin, etab. Hizkuntza bizia behar du izan, kalekoa. Euskara ez da artifiziala, naturala eta dibertigarria da, eta horrela erakusten duten ekintzak sustatu behar dira.

«Gauzak aldatu behar dira... eztatik, freskotasuna» (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Al cambio de percepción». (ER, 18-35, Bilbo) / «Egunerokotasunean datorren gauza berri guztiekin» (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Con el uso cotidiano, no el académico y laboral que parece que solo lo tenemos que hablar en la ikastola y tenerlo para el trabajo pero no hablarlo». (ER, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

«Gazteak eta euskarari balio berriak atxiki: Gazteek gizartea interpretatzeko eredu, ikuskera desberdina dute. Testuinguru berri bat eraiki behar da euskarari balio berriak atxikiz: a. Zoriontsuak izateko bidea. b. Plazerra ematen duena. c. Modernitate kontzeptuari lotuz. d. Gizarte eredu progresista bati atxikiz. e. Funtzionalitatearekin lotuz». (Gizarte Foroan adostutako ideia). [Eranskinak 360. or.]

«Hizkuntza erabilgarria, multifuntzionala, espresiboa, gozagarria, zorrotza, bizia-goa, erakargarria, komunikatiboa behar dugu. Eta ez du zertan beti zuzena izan behar». (Gizarte Foroa). [Eranskinak 360. or.] / «Jarreretan eragiteko emozioa, bizipenak eta bizipozak transmititu behar dira, baina baita praktikotasuna, pragmatismoa. Euskara ezin da asoziatu hizkuntza berak baino atxikimendu gutxiago duten elementuekin». (Gizarte Foroan adostutako ideiak). [Eranskinak 364. or.]

«Naturaltasuna behar da» (EP, 36-65, Bilbo) / «Conseguir que sea divertido» (ER, 18-35, Bilbo) / «Ondarrun dagoen ambiente bera, denok euskalduntzearen beha-

rra herriaren parte izateko, hirira ekarri beharko genuke» (EP,36-65, Bilbo) / «Que se pueda hacer una mezcla entre enseñar y divertir» (ER, 18-35, Bilbo) / «Que no sea forzado, que sea algo natural» (ER, 18-35, Bilbo) / «Ez dut ulertzen zergatik euskaraz aurkitu dezakegun aisialdia oso instituzionalizatua dagoen: euskara gauza publikoetan bakarrik dago eta aisialdia bakarrik eremu pribatuetan». (EA, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

«Euskararen aldeko argumentuei forma berria ematean dago gakoa, ikuspegi positiboa eta eraikitzailea. Errespetu eta ardura kontzeptuen inguruan adostasuna bilatzeko / Euskararen ezagutza zein erabilera esker onekoa izatea, eta ez zerbait inposatua». (Delphi txostena). [Eranskinak 245. or.] / «Emozioak eta baikortasuna euskararekin lotzea». (Delphi txostena). [Eranskinak 249. or.]

Modu horretan, euskara erabiltzeko motibazioa handituko da, batez ere, gazteen artean: euskara erraza eta gustagarria eginez, erakargarria.

«Funtsezkoa da motibazioa lantzea gazteen artean eta kontuan hartzea ze faktorek eragiten duten motibazioan: identitatea, ezerosotasuna (zuzen hitz egiten ez duteneko konbentzimendua), edo konpromiso emozionalik eza. Azken faktore honek zuzenean garamatza honetara: euskara erraz eta gustagarri egin behar zaie haur eta nerabeei». (Delphi txostena). [Eranskinak 236. or.]

2.3.3.5. EUSKARAREN IRUDIA MODERNIZATU

Gainera, euskarak marka berria behar duela aipatu dute beste batzuek, beharrezkoa ikusten dute da beste irudi bat ematea euskarari, modernoagoa: gaur egungo komunikazio moldeei, produktu berriei eta sektore anitzagoei lotuagoa egongo dena. Hori guztia, noski, hizkuntza gutxitu batez hitz egiten ari garela ahaztu gabe.

«Euskara, gaur egun honako hitzekin lotzen da: identitatea, kultura, hezkuntza, abertzaletasuna... Eta horrela, zaila. Nahiago nuke industriarekin, lan munduarekin edo osasun sailarekin lotuta balego». (Gizarte Foroa). [Eranskinak 348. or.]

Irudi berri hori lantzeko, bitarteko batzuk ere proposatu dira. Adibidez, teknologia berriak eskaintzen dutena erabiltzea: jada erabiltzen da, baina gehiago erabil daiteke. Eta noski, garrantzitsua da egiten den orok oihartzuna izatea gizartean.

«Euskarak izan dituen baliabideen barruan, eta arlo desberdinetan eta esparru desberdinetan kriston lana egin duen jendea dagoela jakinda (arlotzuetan: idatzizkoan, teknologia berrietan), baliabide hauek ez dute izan beharreko lekua eduki». (EA, 18-35, Bilbo) / «Nire ustez euskara aurrera doa, izan ere hainbat teknologia aipatu dituzu: google-en badaukazu euskarazko aukera, mugikorretan bebai, wikipedian... hainbat gauzatan». (EA, 18-35, Bilbo) / «Gaur egun gainera teknologia berriekin dena dekozu eskura». (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

«Pista handi bat eman digute teknologia berriekin eta etorkizunarekin, azken finean euskara modernizatzea da» (EP, 36-65, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

Bitarteko hori, eta beste batzuk erabilita, euskara modako kontuekin lotu behar dela adierazi dute asko: «moderno» denarekin.

«Aldaketa teknologiko guztiekin, tendentzi berri guztiekin, ba ez dakit Ingalaterran modan jartzen bada ez dakit zer, ba euskararen ere presentzia hori egon behar harko litzateke. Hizkuntza izan behar duela gaur egunerako garaikide hizkuntza, ez antropologiarako». (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Y de cómo recibirlo. Que tenga valores más apetecibles». (ER, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

«Gazteei eman moderno dena, erakargarria, euskaraz, eta kontsumituko dute». (Gizarte Foroa (talde bateko adostasuna)). [Eranskinak 360. or.]

«Euskara modernotasunarekin lotu, moderno, erraza, erabilgarria». (Gizarte Foroa (talde bateko adostasuna)). [Eranskinak 360. or.]

Produktu berriak, edo produktu gehiago eskaini behar dira euskaraz: aktualagoak. Bai liburugintzan, zein antzerkian, ikus-entzunezkoetan...

«Eta liburuetan adibidez egin beharreko zerbait da ze bestela egongo gera horrela eta hemendik 10 urtera egongo gara hemen eta esango dugu, orain dela 10 urte argitaratu ziren 100 liburu itzulita eta aurten beste 100 ba ezin liteke... liburuak eta dokumentuak eta gauzak euskaratu behar dira» (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

«En el teatro, conciertos, versos, cuentacuentos...» (EP, 18-35, Vitoria-Gasteiz) / «Pues igual si es un teatro para "txikis" que se les haga participes». (EP, 18-35, Vitoria-Gasteiz) / «Pero el hecho de ir mezclando cosas motiva para aprender.

Algún teatro» (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Pero teatro sencillo». (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Edo euskaraz dauden pelikulak bakarrik dira umeentzako, olentzero...» (EA, 18-35, Bilbo) / «Ez dut ulertzen zergatik ez dauden aldizkariak euskaraz, egunkariak euskaraz, ez daukat zinemara joateko aukera euskaraz ikusteko, ez dut ulertzen zergatik aisialdia euskara dago oso instituzionalizatua, bakarrik dago gauza publikoetan eta aisialdia dago bakarrik eremu pribatuetan». (EA, 18-35, Bilbo) / «Que doblen películas en euskera». (ER, 18-35, Bilbo) / «La oferta televisiva es muy corta». (ER, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

Eta baita, nola ez, ikasketekin lotutako hainbat esparrutan...

«Unibertsitatean euskaraz ikastea ezinezkoa da askotan, ez dinot gradu batera begira baina bai master bat begira zoazenean ez dago posibilitate hori, ez da libururik existitzen» (EA, 18-35, Bilbo) / «Marketing-eko gradua egiteko ez daude libururik, ematen dizute apunteak erdaraz, igual ematen dizuna ba irakaslea euskalduna da baina klaro zuk ikasten duzu erdaldun dauden apunteengatik orduan zure euskara gradua ez da hain euskara gradua, da erdi eta erdi». (EA, 18-35, Bilbo) / «Egon behar dira baliabide materialak, egon behar dira espazioak, egon behar dira materiala unibertsitatean euskaraz ikasteko... baina gero behar da tratamendua garrantzitsua da, ze tratamendu ematen zaion euskara ikasteko modu horri». (EA, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

2.3.3.6. EUSKARAREN ZUZENTASUNAREN EXIJENTZIAK OREKATU

Euskaldun berriek euskara erabiltzeko lotsa edo beldur sentimendua askotan azaleratu dute. Hau da ikusten duten oztoporik handiena euskaraz berba egiten hasteko. Gainera, euskaldunek ere ezagutzen duten egoera da, eta euskararen osasunerako egoera hau ez da egokia ikusten.

Euskararen zuzentasunaz exigentzia maila malguagoa izan behar dela uste da, euskaldun berriekin behintzat. Gainera, esan den bezala, euskara balore positiboagoekin eta dibertigarriagoekin lotzera jotzen bada, hainbatetan hori zuzentasunaren kontrakoa suerta daiteke. Batzuen ustez, zuzentasunaren bila joan aurretik, erabilera sustatu behar da, eta horretarako beharrezkoa izango da aipatutako malgutasuna.

«Euskaraz zaudenean euskaraz egin behar da eta erdaraz zaudenean ba erdaraz, baina bueno nahasketa normala da» (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián) «Azkenean erosotuta sentitu behar dute» (EA, 18-35, Bilbo) / «Si no somos tan exigentes a la hora de corregir igual se pasa el miedo a equivocarte. Igual sería el futuro para el euskera». (EP, 18-35, Vitoria-Gasteiz) / «Izakera malguagoa badugu euskaldun berri bat entzuteko eta onartzeko bera nola hitz egiten duen, ba gero eta jende gehiago hasiko da euskaraz hitz egiten nahiz eta gaizki hitz egin». (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Euskaldunak onartuko bagenu euskaldun berri batek hitz egiten duenean onartuko bagenio jendea beldur gutxiagorekin hitz egingo zuen». (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Al final si estás en un entorno en el que tampoco saben, tú te sueltas más. No tienes el miedo a cometer el fallo. Porque todos estáis igual». (EP, 18-35, Vitoria-Gasteiz). [Eranskinak 250. or.]

Baina, bestalde, euskaldun batzuk euskarak kalitatea galduko ote duen beldur dira. Horregatik ez datoz bat exijentzia malgutzearekin. Hauek, hizkuntzaren kalitateari arretaz begiratu behar zaiola uste dute.

«Gero eta malguagoa izan exijentzia, gero eta gehiago joko dute erdarara». (EA, 18-35, Bilbo) / «Kaletik eta ikusten dituzu dauden kartelak nola dauden itzulita eta hori da lotsagarria... orduan hor bai egon behar dela exijentzia bat» (EA, 18-35, Bilbo) / «Bere erabilera ez bada ona ze punturarte esango duzu “bale nahiko izango da”» (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Exijentzia maila malgutzea horrelako gauzetan gero eta gutxiago exigitzen badezu hizkuntza geldituko da azkenean... “ni nago etxea” ezin liteke... gauza batzuk mantendu behar dira». (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

2.3.3.7. ALDEKO ALDARRIA EGOKITU ETA MALGUTU

Euskararen aldeko aldarria egiteko moduan ere asmatu beharra dago. Iraganean erabilitako zenbait formula hertsu, malgotu behar dira aurkakotasuna sortu nahi ez bada.

«Euskararekiko aldekotasuna lortzeko, kontuz ibili behar gara, kontrako jarre-
rak ez sortzeko. «Estatu bat, Nazio bat, Hizkuntza bat» eta halakoek min egin
diezaiekete aldeko jarrera izan lezaketen pertsona batzuei. Beharrezkoa da mal-
gutasuna, minik egin gabe gurera erakartzeko euskaldun ez direnak». (Delphi
txostena). [Eranskinak 236. or.]

Beste baten iritziz, malgutu egin behar da euskara leku guztietan eta denetarako erabili behar denaren diskurtsoa. Egon daitezke espazio eta funtzio batzuk non euskara erabil daitezkeen edo erabiltzea errazagoa den, eta agian beste batzuetan ez, hori onartu eta espazio horietan indarra jarri beharko genuke. Jendeari askatasuna eman behar zaio nahi duen tokitan eta nahi duen moduan erabiltzeko, eta ez proposamen itxi eta borobildurik eman. Galdera irekien planteamendua egiten du partaideetako batek.

«Horretarako antidotoa pentsatu eta aplikatu behar da, adibidez, funtzioen eta erabilera moldeen desagregazioa, desglosea. Alde batera utzita planteamendu absolutista beldur-emaileak. Disoziazioa kontzeptu kablea izan beharko litzateke. Dena ala ezer ez planteatu beharrean, jakin tarteko posibilitateak, konkrezio batzuk... Ustez euskararen mesedetan egiten diren planteamendu askotxo kaltegarriak gertatzen dira praktikan, batipat oreka soziolinguistikoa euskara egoera ahulean dagoen tokietan. Askoz ere egokiago —mesedegarriago— litzateke izaki bat oso eta zati-ezintzat hartu beharrean, hizkuntzaren erabilera komunikatiboak desglosatzea, bereiztea, egiazki balia daitezkeen funtzioak definitzea eta lehenestea, graduatzea eta horiek bakarrik proposatzea eta inplantatzen saiatzea. Iturria: (...) Hortik aurrera, nolako mezuak zabaldu beharko ote genituen, uste dut diskurtso borobildurik ez, ez erantzun itxi eta elaboratuak; baizik galderak airean botatzea ikusten dut erarik iradokigarriena: zenbat balio ote du euskarak? Ez al da gauza ederra?... jarrera itxietan gogoeten edo zalantzen zirrikitia irekitzera bideratuak. Erantzuna bila ezazu zure baitan. Galderen erreperitorioa astiro pentsatu eta landu behar genuke». (Delphi txostena). [Eranskinak 239. or.]

Gazteekin adibidez: egun gazteek hizkuntzarekiko lotura beste modu batean bizi dute, askeago dira, eta egoera bakoitzean nahi duten edo hobe datorkien hizkuntza erabiltzen dute. Euskaraz egitera behartzeak kontrako jarrera ekartzen duenez, diskurtsoa lasaitu egin beharko litzateke alde horretatik.

«Gaur egungo gazteek badakite euskaraz, baina 'ez ezazu lata eman!' esaten dizute. Aukera dute, eta batzuetan euskaraz, beste batzuetan erdaraz, beste batzuetan ingelesez... Intziditza, ez da mesedegarria». (Gizarte Foroa (talde bateko adostasuna)). [Eranskinak 348. or.]

«Hace falta actitud, si vamos a un sitio porque queremos nosotros puede funcionar». (ER, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

Kultura munduan ere, jendeak euskara baliatzea nahi bada, behartutako kuotetatik haratago joan beharra dago.

«Kulturaren erabilerak gehikuntza graduala eta garapen jasangarria izan ditzan dagoen mehatxuetako bat da nahitaezko kuoten exigentzia (programazio kulturallean, liburutegietako fondoetan), eta ez lukete bermatuko euskaldunek horiek baliatzea». (Delphi txostena). [Eranskinak 229. or.]

«Euskarazko ekoizpen kulturalaren bizitasuna forjatzen da gure baliabide guztiak buru argiz erabiliz globalizatutako ingurunean, kuota babesgarririk gabe». (Delphi txostena). [Eranskinak 242. or.]

2.3.4. AURRERA EGITEKO BITARTEKOAK

Hau guztia aurrera eramateko garrantzitsua izango da hizkuntza politika berri bat, eta komunikazio eraginkor baten aldeko apustua egitea.

121

2.3.4.1. LEGEAK BERRIKUSI ETA EGUNERATU

Gorago aipatu dugun bezala, batez ere EAEn, euskarak duen lege estatusari balioa ematen zaio. Baina, hori horrela izanagatik ere, batzuen ustez momentua da euskararen inguruko legeak berrikusteko, eta horiek egungo egoerara egokitzeko.

«Gizarteak nabarmen aldatu du azken 40 urteotan eta errealitate berriak izan behar du kontsentsurako abiapuntua. EAEko Autonomia Estatutua eta 10/182 Normalkuntzarako Legea oso baliotsuak izan ziren une hartan, baina gaur egun zaharkituta daude eta bestelako osagai berriekin baliatu beharko dira diskurtso berria osatzerakoan. Beste horrenbeste gertatzen zaio 1992. urtean Europako Kontseiluak osatu zuen Erregio edo Gutxiengoen Europako Hizkuntzen Ituna izeneko dokumentuari». (Delphi txostena). [Eranskinak 226. or.]

Esaterako, legea oraindik iristen ez den esparruetara ere zabaldu beharko litzateke.

«Zerbitzu-hizkuntza izango bada, lege-bermeak oraindik bete ez dituen esparruetarako ekintza-lerro argiak ezarri, epe, baliabide eta helburu jakinekoak». (Delphi txostena). [Eranskinak 227. or.]

«Lege babes handiagoa behar da, eta diskurtso berriak ere bai. Diskurtso bat ez, diskurtso berriak (pluralean) behar dira. Baina biak behar dira, legeak eta diskurtsoak, biak». (Gizarte Foroan adostutako ideia). [Eranskinak 357. or.]

«Arautzea, beharrezkoa egitea... Hortik jo behar da. Botere harremanez ari gara. Erakargarritasuna, desideologizazioa, boluntarismoa, horiek ez dute funtzionatzen. Katalunia. Arautzeak funtzionatuko luke». (Gizarte Foroa (adostu ez den ideia)). [Eranskinak 357. or.]

Eta, garrantzitsua litzateke, lege berri batek hizkuntzen arteko lehia ekiditea, modu horretan hizkuntzaren inguruan dagoen gatazka arinduko litzatekeelarik.

«Tentsioak berme legalen inguruan sortutako korapiloak dira. Maila horretan oso nabaria da bi framing-en arteko talka, funtsean legeak urritasunaren paradigmatari erantzuten diolako: ofizialkide izateko bi hizkuntzek oreka sendo bat behar dute, eta egoera horretatik oso urruti gaudenez gero, galtzeko duenak atzera egiten du, eta irabazteko duenak, berriz, gehiago nahi du, eta bizkorrago, gainera. Beraz, tentsioak ebitaezinak dira. Baina, tentsioak gutzit saihesterik ez badago ere, lege-abiapuntu egoki batek gatazkarako grina arinduko luke zerbait». (Delphi txostena). [Eranskinak 227. or.]

122

Horretarako, legearen erredakzio irekiago bat eskatzen dutenak ere badira, errealitateak hurbilago egongo dena, eta erdarak ere aintzat hartuko dituenak, bertako hizkuntza gisa.

«Testu estatutarioaren erredakzio irekiago eta errealitatearen araberakoagoak gauzak erraztuko lituzke: “Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza” dela esaten da, Gaztelania kanpokoak; Gaztelania ere berezkozat joko beharko luke. Gaineratu liteke, bai, “Euskarari, endemikoa eta egoera gutxituan egonik babes berezia emango zaiola”, baina gaztelaniaren bertakotasuna ukatu gabe. Euskara eta gaztelania euskaldunen berezko hizkuntzak dira eta pauso egokia litzateke gaztelania hizkuntza kanpotar bezala eta gaztelaniadunak arazo bezala harzeari uztea». (Delphi txostena). [Eranskinak 227. or.]

Euskara Europako edozein hizkuntza ofizialen mailan ezartzea eskatzen dutenak ere badira.

«Hizkuntza nazionalekin lerrokatzea, Europako nazioen hizkuntza ofizialaren estatusa edukitzea buruan eta ez “babestu beharreko hizkuntza”». (Delphi txostena). [Eranskinak 227. or.]

Beste batzuk, ordea, uste dute euskarak duen lege errekonozimendua nahikoa dela, baina hizkuntza politikak martxan jartzeko garaian irmoak eta ausartak izatea dela kontua.

«Zailtasun eta oztoporik handienak lege-bermearen esparrutik etorriko dira eta, horretan, irmotasuna adierazi behar dute erakunde publikoek / Lege-bermea ezinbestekoa da oinarrizko ofizialtasuna erdiesteko, eta horretan hizkuntza politika malguak baina era berean irmoak behar dira oraindik. Ez genioke horri beldurrik izan behar eta gutxieneko zoruaren oinarri-oinarria derrigorrezkoa da, beraz / Adostasuna eta ausardia behar dira». (Delphi txostena). [Eranskinak 227. or.]

Dena den, zalantzan ere jarri da benetan legearen bidetik jo behar ote den. Zentzu horretan, lan foroan desadostasunak agertu ziren. Batzuen ustetan kaltegarria izango litzateke lege berriak egiten hastea.

«Askotan egoerak esango digu euskara erabili, edo ez erabili, edo dena delakoa. Beste hainbat egoeratan gutariko bakoitzak erabakitzen du nola komunikatu. Eta hori arautzea, gaitza izateaz aparte, ez dut uste egokia denik». (Gizarte foroa). [Eranskinak 357. or.]

«Berdintasunaren legeak arautzea». Gizarte Foroan adostu ez den ideia / «Derrigortasunaren inguruko eztabaida egon da: a. Ezagutu beharraren derrigortasuna. b. Graduazioa». (Gizarte Foroan adostu ez den ideia). [Eranskinak 358. or.]

Beste batzuek, berriz, beharrekoa ikusten dute bide horretatik jotzea, eta arautzearen eta legeen bidetik jotzea. Horiek gatazkak sor baditzakete ere, ezinbestekoak direla uste dute, aldi berean, malguak eta irmoak izan ahal izateko.

«Arautzea, beharrezkoa egitea... Hortik jo behar da. Botere harremanez ari gara. Erakargarritasuna, desideologizazioa, boluntarismoa, horiek ez dute funtzionatzen. Katalunia. Arautzeak funtzionatuko luke». (Gizarte foroa). [Eranskinak 357. or.]

«Hizkuntza gutxitu bat ofizialtzat hartzeak hiztunentzako dakartzan eskubideek, gatazkak sor ditzakete eta ez dira bidera errazak. Baina, lege-bermea ezinbeste-

koa da euskarak gizarte eleanitzean zer paper jokatu duen finkatzeko. Hor-taz, zailtasun eta oztoporik handienak lege-bermearen esparrutik etorriko dira: hizkuntza politika malguak eta, aldi berean, irmoak finkatzen. (Delphi txoste-na). [Eranskinak 222. or.]

2.3.4.2. HIZKUNTZA POLITIKA BERRITUA

Batzuek, adostasunean, pertsuasioan eta tinkotasun demokratikoan oinarritutako hizkuntza politika berrituaren premia aldarrikatzen dute. Beste batzuek, berriz, konplexurik gabeko hizkuntza politika baten premiaz hitz egin dute, malgua izan behar duena baina euskararekiko aldeketasuna landu behar duena.

«Adostasunean, pertsuasioan eta tinkotasun demokratikoan oinarritutako hizkuntza politikaren premia». (Diskurtso egituratua) / «Kontsentsua lortze aldera, bi ezinbesteko baldintza: Malgutasuna; eta Euskararekiko aldeketasuna». (Diskurtso egituratua) / «Hizkuntza politika erro-errotik berritu beharra dago». (Diskurtso egituratua: Isasi, 2014a)

«Hizkuntza politika konplexurik gabe». (Gizarte Foroan adostutako ideia). [Eranskinak 358. or.]

Gizartearen euskalduntze progresiboa ahalbidetu duen hizkuntza politika, etorki-zunean ere ongi kudeatzearen beharraz aritu dira beste batzuk. Eta aipatu da ere, ausartak izanik eta jarrera *aldarrikatzaile* batetatik soilik egin daitekeela hori.

«Instituzioek diskurtso aldarrikatzailea bereganatu egin behar dute; hori egin ezean, ahuldade handia erakusten da, eta euskararen alde ez dagoena ahulda-de horren zain dago, bere kontrako diskurtsoan sakontzeko». (Delphi txostena). [Eranskinak 239. or.]

«Eremu publikoan (hezkuntza, osasuna, justizia, legedia...) jokatu behar du batez ere; b) Maila teknikoan politika ausartak behar ditugu, eremu desberdinetan; hezkuntzan eta abarretan; c) Administrazioak eredu izan behar du. Lanpostu publiko guztiak elebidunak izatea; d) Eremu pribatuetan, eragileak bultzatu eta hauei zentralitatea ematea, behetik gorako parte hartzea zabalagoan. Adibidez,

Topagunea eta euskalgintzako elkarteak, Kontseilua, komunikabideak, euskalgintzatik kanpoko beste gizarte eragileak euskarara erakartzea...» (Delphi txostena). [Eranskinak 241. or.]

Hizkuntza politika berri horrek, ideologietatik haratago, jarreretan jarri beharko luke fokua.

«Gaur egun zenbait ikertzailek egiten duten bereizketa: ideologia / jarrerak. Ideologia kolektiboa da, komunitatearena (edo bere zati batena), baina beti talde batek partekatzen duena. Jarrerak, ordea, norbanakoarenak dira; eta, baliteke horiek izatea egiaz hizkuntza politikaren etorkizuna erabaki dezaketena». (Delphi txostena). [Eranskinak 235. or.]

Bestalde, hainbatek aipatu dutena izan da hizkuntza politika berriua ikerketan eta errealitatearen ezagutza zientifikoan oinarritua behar duela izan.

«Hizkuntza politikaren arrakasta ondo kudeatuko duen politika bat behar da orain. Horretarako garrantzizkoa da politikagileek informaziorik onena izatea hizkuntza eta elebitasuna jorratzen duten alor guztiekin, ikerketaren alorra barne. Europak bultzatu nahi duen egiazko ebidentziatan oinarritzen den hizkuntza politika (evidence based policy)». (Delphi txostena). [Eranskinak 228. or.]

«Hain zaila al litzateke galdetzea gizarteari nolako gizartea nahiko lukeen 40 urte barru? Edo 20 urte barru? Eta argazkia atera eta gero, zaila al litzateke hizkuntza politika egokiak eta adostuak egitea, ez bakarrik euskararena, beste hizkuntzena ere bai?» (Delphi txostena). [Eranskinak 229. or.]

«Gazteei galdetu behar zaie, horrelako taldeak egin gazteekin». (Gizarte Foroa (talde bateko adostasuna)). [Eranskinak 360. or.]

Modu horretan, hizkuntza politika berri hori diseinatzeko gizartean dauden adostasunetatik abia daiteke. Gizartean ematen diren diskurtso mota guztiak eza gutzen badira, guztiak barne hartuko dituen hizkuntza politika diseinatu ahalko delako. Horrela bakarrik lortuko da gizarte inplikaturia egotea, eta frustrazioan ez erortzea.

«Hausnarketarako, gaur egun euskal gizartean hizkuntzen aniztasunaren inguruan dagoen pertzepzioa ikertu behar da. (...) Adostasunak bilatzeko orduan,

gizarte-pertzepzioen azterketa sakonagoaren emaitzak hartu: gaur egungo euskal jendeak bere eguneroko bizitzan hizkuntza-aniztasunarekin dituen harremana zertan den xehe-xehe aztertu eta horren ikasgaiak aplikatzen saiatu». (Delphi txostena). [Eranskinak 228. or.]

«Hizkuntza probetsiaren errespetua eta garapena elebidun hartzaileak sortzen diren neurrian». (Gizarte Foroan adostutako ideia). [Eranskinak 358. or.]

«Gizartearen nahiari eta ahalmenari erreparatzen dakien diskurtso taxutzea komeni da, gizartea eta herritarrak “nahi eta ezin” baten murgildu gura ez baldin baditugu, behintzat». (Delphi txostena). [Eranskinak 230. or.]

2.3.4.3. AKORDIO ZABAL BATEN BEHARRA

126 Lege-araudi zein hizkuntza politika berriak bideratu ahal izateko euskararen inguruko diskurtso berria landu behar da; gizarte gehiengo zabalak bat egiten duen diskurtso berria: bai herritarrek orokorrean, baita izaera ezberdinetako alderdi politikoek ere.

«Gakoa: herritarren eskubideetan oinarritutako diskurtsoa eraikitzea eta euskara, behin-betiko, euskal gizarte osoaren altxorra den heinean, politikagintzan alderdi guztiek bere egitea. Herritarrekiko gardentasunean eta irekitzean oinarritzen diren gobernantza-molde berriek lagun dezakete eginkizun horretan (gobernu irekiek, legebiltzar irekiek...)). (Delphi txostena). [Eranskinak 230. or.]

Eta horretarako, guztiok, eta batez ere izaera ezberdineko alderdi politiko guztiak bilduko dituen akordio zabal baten beharraz hitz egin da.

Ados dago herritar arrunta ere ideia horrekin: alde batetik, egindako eztabaida-taldeetan nabarmendu da euskara akordio handi baten erdigunean izatea nahi dela, non alderdi politikoek, gizartearekin batera, benetako konpromisoa hartzen duten.

«Eztabaida konstruktiboa bai, harriak alde batetik bestera botatzea ez» (EA, 18-35, Bilbo) / «Oso abertzaleak eta ez abertzaleen artean egin behar da akordio bat eta esan...» (EA, 18-35, Bilbo) / «Con un pacto de estado entre los partidos políticos».

(ER, 18-35, Bilbo) / «Ni uste dut eztabaida ideologiko politiko horiek egon behar direla. Euskara hizkuntza bezala gizartearen parte da eta gizarteak politika erabiltzen du beraien gauzez hitz egiteko eta hizkuntza ere horren barruan sartzen da. Eta gaur egun inoiz baino gehiago». (EA, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

«Incluso las corrientes sociales de todos nosotros ayuda mucho más al euskera que las instituciones o que los políticos». (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

Eta bestetik, ideia horretan sakonduz, inkestan ere, hizkuntza eskubideak errespetatuko dituen akordio zabal bat lortze aldera alderdi politiko guztiak ados jartzearen alde agertu da biztanleriaren gehiengoa eta, batez ere, euskaldunak.

Galdera inkestan: «Zure ustez, zenbateko garrantzia du alderdi politiko guztiak ados jartzeak guztion hizkuntza eskubideak errespetatuko dituen akordio bat lortze aldera?». Erantzunik aipatuena: *oso edo nahikoa garrantzitsua*, biztanleriak: % 86 (elebidun aktiboek: % 93; elebidun pasiboek: % 90; erdaldunek: % 80). [Eranskinak 388. or.]

Akordio hori, gainera, herritarrengana zabaldu behar da. Guztion arteko adostasuna bilatu behar da eta guztiok bat egin behar dugu akordio horrekin. Beraz, alderdi politiko eta gizarte erakundeetan eman behar den eztabaida hori herritarrengana zabaldu behar da, bere egin dezaten. Hori egin ezean, hartuko diren neurriak arrotzak eta gogoz kontrakoak egingo zaizkio herritarrari.

«Inspirazio-iturria bilatzeko, lehen fase baten gutxienez, interesgarria litzateke: a) Gizarte egituratutik (erakundeak, politikagintza, enpresari-elkarteak, sindikal-gintza, euskalgintza eta abarretik) alde egitea; b) Herritar arrunt anitzengana jotzea (merkatari, taxi-gidari, kirolari, enpresari, guraso, aitita-amona, arrantzale, karrera amaitu berri...»). (Delphi txostena). [Eranskinak 230. or.] / «Hitz egitea denok elkar ulertzeko, sentsibilitate desberdinen artean adostasunak bilatuz, konnotazio politikoak eta gatazka politikoak alde batera utzita; b) Hausnarketa soziolinguistikoa eginez, estrategiak birpentsatu adostasun puntuak lortzeko; c) Gogoeta gizartera zabalduz, lan pedagogikoa egitea. Pertsonak dinamika horretan konprometitu ezean, hartutako neurriak arrotz eta beraien gogoz kontraktatzat jo ditzakete». (Delphi txostena). [Eranskinak 231. or.] / «Hausnarketa gizartera zabaltzea. Egoera aldatzea guztion esku dago, bakoitza bere arloan, baina sinergiak probestu behar dira». (Delphi txostena). [Eranskinak 248. or.]

2.3.4.4. KOMUNIKAZIO ESTRATEGIA OSO BAT

Aditutako partehartzaile batek dioenez, errealitatea eraldatu eta gizarte aldaketa sakona eragin nahi den heinean, argi izan behar da (onerako eta txarrerako) jendearen pertzepzioa dela «benetako» errealitatea, beren jarduna baldintzatzen duen errealitatea eta, ondorioz, pertzepzio hori, errealitate hori aldatuz lortuko dela aldaketa. Horretarako, komunikazio estrategia oso bat garatu behar da.

Komunikazio eraginkorra izan dadin, aintzat hartu eta ongi landu behar dira zenbait osagai, nagusiak honako hauek izanik: mezua eta hori igortzeko formatu edo aldaerak posibleak, euskarria edo mezua helarazteko baliabideak, eta igortzaile zein hartzailearen ezaugarriak. Izan ere, komunikazio oso batean sartzen diren elementuak.

«Komunikazio-kanpainak beharrezkoak dira, baina euskarak jendearen pentsamenduan duen toki edo posizionamenduan eragiteko kultura oso bat eraiki behar da, non euskarak nagusitasun osoa izango duen ikuspegi funtzional, sinboliko zein esperientzian eta hori lortzeko aipatutako hiru bideak dira ezinbesteko: hizkuntza politika, komunikazioa eta dinamika soziala». / «Euskarak gure egunerokoan leku egokia lor dezan, komunikazioaren premia eta erantzukizun kolektiboa agerian jartzen dituzten ekarpen batzuekin; alegia, aurreko aipuan agertu diren hiru elementuetatik azken biek: Euskararen gaia plaza publikora eraman behar da, herritarren, politikaren eta eragile sozialen agendetan sartuz. Agendetan kokatzeak, maila diskurtsibotik haratagoko urratsak ematea ahalbidetu behar du, azken batean maila aplikatiboan urratsak ematea ere / Guztion artean eman beharko genioke balio erantsia euskarari eta erabilera prestigioatu, politika aktiboagoak bultzatuz. Horretan, Administrazioak eta alderdi politiko guztiek zeregin handia dute. Lan mundua ere garrantzitsua da kate horretan / Funtsezkoa litzateke euskara modan jartzea. Hori da aldi berean zailena eta erronkarik handiena». (Delphi txostena). [Eranskinak 242-243. or.]

Funtsezkoa da beraz, euskara presente egotea komunikabideetan batzuen ustez, eta hori lortzen da euskaraz eta euskaratik arituz, batez ere. Eta ez horrenbeste, euskarari buruz edo euskara planei buruz hitz eginez.

«Euskararen gaineko planak baino, euskaratik eta euskaraz jardun beharko gara oro har: agerraldi publiko, harreman pribatu, komunikabide, politika eta abarren mailan. Euskarak bere unibertso autonomoa sendotu eta osatu behar du; hor-

tan komunikabideak (ez soilik EITB) eta internet funtsezkoak dira». / «Hizkuntza erabiltzen ez bada ez dago hizkuntzarik. Erabilera da hizkuntzaren ardatza eta erabilerak sendotzen du hizkuntza bera. Euskara agertu behar da (ETB2n, ekitaldi publikoetan...), euskaraz ere egin behar da (itzulpenik gabe), erdaldunak ez uxatzeko moduan eta bai interesa eta duten gabezia senti dezaten». (Delphi txostena). [Eranskinak 243. or.]

Baina, argi dute publizitatean aritzen direnak, horretarako diskurtsoak ezin due-la orokorra eta bakarra izan. Beharrezkoa izango da mezuak hartzailearen arabera doitzea, euskararen alhora seduzitu nahi baditugu.

«Ez dago mezu unibertsalik, eta pertsona bakoitzari (edo pertsona talde bakoitzari) hitz egiterako orduan, beregan eragina izango duen mezua eta hizkuntza erabili behar dugu. Beharrezkoa da norbanako hori edota talde hori ongi ezagutzea. Argi dugu zabaltzera jo behar dugula, baina urte asko daramagu euskaratik urrun dauden horiek seduzitu nahian eta beste estrategia bat behar dugu gure helburua erdietsi ahal izateko». (Delphi txostena). [Eranskinak 246. or.]

2.3.4.5. EUSKARARI PRESTIGIOA EMANGO DION ERREFERENTZIALTASUNA

Azpimarratzen den beste ideia bat da, euskarari prestigioa emango dion erreferentzialtasuna garrantzitsu baten beharra dagoela. Elebidunak, eta batez ere gazteak, euskara erabiltzera bultzatuko dituen, eta ez dakitenei ikasteko grina eta gogoia sartuko diena.

«Liderazgo motibatzaile/eraldatzaile baten garrantzia». (Gizarte Foroan adostutako ideia) / «Euskararen komunitate aktiboan parte hartzeari prestigioa ematea edo erakargarri egitea lortu behar dugu». (Gizarte Foroan adostutako ideia). [Eranskinak 361. or.]

Ilido horretatik ere, ikonoak gaur egungoak izan behar direla gogorazi dute, dagoeneko ez dute balio antzina egon zirenak, ezta Goenkalekoak ere. Erreferenteak edukitzean, erakargarritasuna, freskotasuna, naturaltasuna sustatzen da. Adin diferenteetako jendea ados egon da euskaldun erreferenteak behar direla euskara bultzatzeko, eremu guztietara zabaltzeko.

«actores, cantantes...» (ER, 18-35, Bilbo) / «Pirritx eta Porrotx-etaz aparte» (EP, 36-65, Bilbo) / «Abraham Mateo bat baina euskaraz abesten» (EP, 36-65, Bilbo) / «La de “Poziktibity”. Que salen dos presentadoras de televisión». (ER, 18-35, Bilbo) / «Erreferente potenteak jarri behar dira: musikan, teknologian, gauza deigarrietan... baina ume zein helduentzat» (EP, 36-65, Bilbo) / «Quien está por encima nuestro, que dé también esa imagen de uso de euskera. Los alcaldes de los ayuntamientos, etc. Que sepan ellos también euskera. Si los que nos gobiernan no tienen ni idea de euskera, pues vaya». (ER, 18-35, Bilbo) / «Aduriz o Ane Igartiburu no les he oído hablar euskera hasta ese anuncio. Hasta ese anuncio no sabía que lo sabían». (ER, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

«Unibertsitatetik gure gazteen erdia igarotzen da eta beraientzat erreferentziazkoak dira erregistro jaso erabiltzen duten irakasleak. Gazteagoentzat zientzia dibulgazioan lanean ari diren agenteek prestigio handia dutela esango nuke. Azkenik, euskararen munduan unibertsitatean nor den pertsona publiko asko dago euskararen erabilera prestigiatzen lagun dezaketena, hedabideetan, nagusiki». (Delphi txostena). [Eranskinak 242. or.]

«Oro har, lurraldetasuna lantzeko eta giza harremanetarako euskarak duen balioa haizatu behar da. Abertzaletasunaz haragoko eremu eta jendea ikusgarri egitea ere ona da, euskara komunikazio tresna gisa eskaintzeko eta ez helburu gisa. Adibidez, eremu politiko, sindikal edo instituzionaletakoak ez diren ospe handiko pertsonen euskaraz naturaltasunez baliatzea». (Delphi txostena). [Eranskinak 243. or.]

2.3.4.6. GAZTEKIN LAN BEREZIA EGIN

Euskararen etorkizuna hurrengo belaunaldien esku dago. Gazteak dira euskararen etorkizuna, eta partaideek ere horrela definitu dituzte. Gaur egungo belaunaldiek euskaraz hazi eta hezteko aukera izan dute eta beraz, euskararen egoera hobetzea euren esku dagoela ikusten da.

«Gazteok izango gara hurrengo belaunaldiak, beraz gure aukera da gure seme-alabak euskaraz heztea edo ez, [...] gu gara pixka bat trantsizio hori bideratzen dugunok». (EA, 18-35, Bilbo) / «Nire ustez, gure semeek gero eta hobeto egingo dute euskaraz, ez dago dena galduta» (EP, 36-65, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

Hala ere, gazte-sektorearen baitan oso argi ikusten da euskararen jakintza eta erabilaren artean dagoen diferentzia; batzuen ustez, gutxi erabiltzen dute gazteek euskara egunerokotasunean.

«No solo entenderlo si no también utilizarlo, porque es una pena que se pueda perder el euskera». (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Eskolan D ereduan ikasitakoa naiz, baina eskolako lagunekaz ez dot euskaraz berba egiten eta erdaraz egiten dogu berba». (EA, 18-35, Bilbo) / «Si no lo hablas en casa y con tus amigos tampoco ves que vas cogiendo una edad y no lo usas». (ER, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

«Euskaraz ikasi, baina hizkuntza hori erabiltzen ez duten ume eta gazteekin lan handia dago egiteko» (Delphi txostena). [Eranskinak 241. or.]

Aintzat hartzekoa ere bada gazteen artean ematen den joera: segun eta ze pertsonarekin ari diren hizketan, hizkuntza bat edo bestea erabiltzen dute (gazte euskaldun aktiboen artean bereizketa askotan agertu da). Hor badago, esku-hartzeko espaziorik.

«Kudrilan ba unibertsitatekoekin euskaraz hitz egiten dugu, azkenean ba gehienak herrietakoak direlako eta gehien bat ba euskara behintzat hitz egiteko nonbait, eta gero kaleko lagunekin gazteleraz egiten dut». (EA, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

Euskararen erabilera areagotzeko, gazteengan jarri behar da indarra. Horiek euskara erabili ahal dezaten espazioak handitu, eta gazteen artean euskara sustatzeko ekintzak sortu eta bultzatzeaz gain. Horiek erakargarriak izatea lortu behar da.

«Ez dakit zein izan daitekeen bidea, baina gazteak erakarri behar dira» (EP, 36-65, Bilbo) / «La clave es hablarlo en casa para que tus hijos lo escuchen y así poco a poco dejen de asociar el euskera con el colegio y se animen con algún amigo». (ER, 18-35, Bilbo) / «Aisialdiarekin lotzen dut baina gazteek erabili ahal dute euskara hezkuntzan, unibertsitatean eta eskolan, baina gero hortik kanpo ez daukate euskara erabiltzeko aukerarik ez bada beraien lagunen artean». (EA, 18-35, Bilbo) / «Que todas las actividades extraescolares sean en euskera para que los jóvenes vayan por donde vayan vean el euskera» (ER, 36-65, Donostia-San Sebastián) / «Tiene que ir un poco en eso, conseguir que sea divertido» (ER, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

«Euskara herritarren arteko harreman-hizkuntza izango bada, erabiltzeko baldintzak zaindu (edo sortu) behar dira, bereziki gazteen artean, eta horretan familia transmisioari baino gehiago, familia-erakarmenari arreta jarri. Erakargarria da gaur egun gure seme-alabekin darabilgun diskurtso agonikoa?» (Delphi txostena). [Eranskinak 245. or.]

Gainera, gaur egun dauden tresnak erabili beharko lirateke gazteek euskara erabil eta entzun dezaten. Orokorrean, aisialdia gaztelaniaz dago, behintzat erakargarria dena. Ondorioz, euskara gaur egungo hizkuntza gisa ez ikusteaz gain, ez dira euskara erabiltzeko sustagarririk ematen. Beraz, euskara, lehen aipatu bezala, gaztedia dagoen leku guztietara hurbildu behar da: ikasketak, aisialdia, kultura...

«Orain gazteentzako programa berriak egiten ari dira, jende berriarentzat». (EP, 36-65, Bilbo) / «Por nuevos incentivos puede entender nuevas formas de uso, nuevas actividades de fomento». (ER, 18-35, Bilbo) / «Ez gaude ohituta telebistan gauzak euskaraz ikustera, orduan gure aldetik be egon behar dira gogoak eta eskatu behar doguz, batez ere, aisialdirako edozer euskaraz». (EA, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

132

«a) Zer dago, zer behar da berria eskolari dagokion euskararen diskurtsoetan?; b) D ereduko ikasleen komunikazio-gaitasunei garrantzia ematea (lehenasuna ere bai, eskolako lehen urteetan); c) B eta A ereduak nola hobetu ere aztertu beharko da, jakina; d) Eskolatik kanpo euskaraz bizitzeko aukerak handitu behar dira, eskola-familia-auzoa-komunitatea oinarri hartuta». (Delphi txostena). [Eranskinak 241. or.]

3.

ONDORIOAK ETA EZTABAIDA

Ados jar gaitezke onartzeko euskara suspertzeko egin dena ahalegin positiboa eta emaitza handikoa izan dela? Ados jar gaitezke onartzeko ere, batetik, euskara suspertzeko ahaleginek argi-ilunak dituztela? Eta, bestetik, hainbat ahalegin berri egin beharko dela oraindik hizkuntza horren biziraupen duina ziurtatzeko? Izan ere, erabilera areagotu dadin lehendabizi hizkuntza horrekiko gizarte motibazioen sabaia altzarazi beharko da. Horrekin batera letorke, hain zuzen ere, diseinatu beharreko hizkuntza-estrategiaren eta hartu beharreko neurrien inguruan gizarte gehiengo zabalaren babesia. Kezka horrentzako erantzuna bilatzeko jarri zen abian EGOD egitasmoa.

133

3.1. Hipotesiaren balorazioa emaitzen argitara

Gogora dezagun, egoera eta bilakaera soziolinguistikoen inguruko emaitzak, azken urteetan euskararen inguruan lortutako adostasuna (Euskara 21 eta ESEP, besteak beste) eta gizartean dauden gainerako diskurtsoak aintzat hartuta, EGOD egitasmoaren oinarrian dagoen hipotesia hauxe dela: *Euskal gizartean badago diskurtso berritu, partekatu eta ongi sustraituriko bat osatzeko aukera.*

Ikerlan honen emaitzek frogatu dute hipotesi horren betetze maila altua dela edo, bestela esanda, badagoela gizarte sentsibilitate ezberdinen artean oinarritzko ados-

tasuna diskurtso berritua eraiki ahal izateko. Izan ere, oinarri demokratikoetan erai-
kia den eta bizikidetzarako ateak zabalduko dituen euskararen gaineko diskurtsoak
